



# Musika, danbaka

Gaur hasiko da Danbaka Musika Lehiaketa, Bergarako Seminarixoan. Bost kontzertutan, hogeit hamar talde ariko dira abenduaren 16ra arte. Lemak, Kiimak, The Clayton eta Jasan igoko dira gaur agertokira, 21:30ean / 46

Irudian, Juan Crisostomo Arriaga euskal musikagile klasikoaren, Danbakako lehen kartelean.

VOLKSWAGEN ID4 ELEKTRIKOA



TEKNOLOGIA ETA ETORKIZUNA

**Udalaitz**

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70





Gipuzkoako Mendiak Aske taldea osatzen dutenek agerraldia egin zuten eguaztenean, Elosuan. JOKIN BEREZIARTUA

## Mendiak defendatzeko dei egin dute Elosuan

Parke eolikoaren proiektuak direla-eta, mendiak industrializatzearen aurkako agerraldia egin zuten eguaztenean Elosuan. Gipuzkoako Mendiak Aske taldea da sustatzailea, eta uste du plan horiek ez direla lurraldeko herritarren ongizateari begira egindakoak

### Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria BERGARA

Gipuzkoako Mendiak Aske taldeak agerraldia egin zuen herenegun Elosuan, mendia industrializatzearen aurka. Josebe Blanco taldekideak hartu zuen hitza, eta, azaldu zuenez, "uholde bat" dago mendien industrializazioari dagokionez. "Jasangarritasunaren eta berriztagarritasunaren izenean makillatzen dute, baina badaude beste baliabide eta modu batzuk gauzak egiteko". Haren hitzetan, herritarrek, sarri, informazioa beharrean propaganda jasotzen dute multinazionalen zein erakunde publikoen aldetik.

Uste dute eolikoaren proiektuak ez dagoela Gipuzkoako herritarren ongizateari so baizik eta, enpresa handien nahiei. Eta, horretarako, adierazi zuten, munduko beste herrialdeetan aplikatzen den eredu bera errepikatzen da. "Azpiegitura erraldoiak egin, inguruak eta inguruko biztanleak kaltetu, hainbat

urtetan intentsiboki ustiari, eta, azkenik, zaborra eta kaltea bertan utzita alde egin".

Hori dela eta, argi dute mendiak defendatu beharra dagoela. "Gipuzkoan bertan ikusi besterik ez dago zenbat zentral eoliko eraiki nahi dituzten. Ez dira mendi mitikoak, baina gureak dira. Hori defendatzeko batu gara hemen", adierazi zuen Blanco, eta nabarmendu eskualde guztietatik iritsi zela jendea, oinez izan edo autobusez. Izan ere, agerraldiaren aurretik, mendi martxak egin zituzten Elosura hainbat herritatik.

### Elkar ezagutzeko aukera

Hain justu, talde horien artean daude Bergarako, Elgoibarko

**EOLIKOEN AURKAKO TALDEEK GERORA ERE ELKARTZEN ETA GAUZAK ANTOLATZEN JARRAITU NAHI DUTE**

eta Soraluzeko Karakate Bizirik, Azkoitiko Oletan Ere Ez, Urretxu-Zumarragako Urretxu-Zumarraga Bizi!, Azpeitiko eta Zestoako Sañu Bizirik, eta Zizurkilgo eta Usurbilgo Andatza-Ezkeltzu Bizirik.

Hala, talde horiek guztiek eta Elosura bertaratutako beste zenbait parte hartzailek eguazteneko eguna baliatu zuten arazo berbera partekatzen duten herritarrek batzeko, aurrerantzean ere elkartzeko eta antolatzen jarraitu nahi dutelako. Izan ere, nabarmendu zuten mendiak babesteko "une erabakigarrian" daudela.

Are gehiago, haize erroten izan dezaketen inpaktua bistaratzeko, frontoiaren ondoko belardi batean aerosorgailu batek izan dezakeen tamaina irudikatzen duen mosaiko bat egin zuten. Haien emandako datuen arabera, 200 metro inguru izango ditu errota batek hegal eta guzti, eta hegaletako bakoitzak, 80 metro luze.

## "Batzar irekiak egiteko prest gaude, proiektua azaltzeko"

**JON ZAYAS** ITSARAZ PARKE EOLIKOAREN ZUZENDARIA  
Energia Debagoiengan zabaltzea da Statkraften asmoa

### A.R.K. DEBAGOIENA

Eskoriatza eta Aramaio artean eraiki nahi dute Itsaraz parke eolika, eta proiektuaren zuzendaria da Jon Zayas (Irun, 1992). Azaldu duenez, hasierako fasean daude, eta, momentuz, neurketa eolikoak egin behar dituzte, eta azterketa gehiago. Dena den, zortzi haize errota jarri nahi dituzte: zazpi Aramaion eta bat Eskoriatzan, hain zuzen ere. Dena ondo bidean, 2026 amaierarako aurreikusten dute lanak hastea.

**205 metroko altuera izango dute aerosorgailuek. Zer ahalbideratuko dute?**

Haize errota baten potentzia unitarioa, egun, sei-zazpi megawattetako da, eta duela hamabost urte, bakarrekoa. Beraz, gaur egungo aerosorgailu batek duela hamabost urteko zazpi aerosorgailuren potentzia du. Tamaina, noski, handiagoa da, baina lurzoruaren okupazioa murriztuagoa. Gutxi gorabehera, 44.000 etxebizitza hornitzeko energia garbia sustatuko genuke, Debagoieneko biztanlerian eta industrian jariatzeko.

**Hasi al zarete administrazioarekin, enprekin eta herritarrekin hitz egiten?**

Eredua estrukturatzen gabiltza. Udalekin hitz egiten ari gara, enprekin, euskal gobernuarekin, eta ideia da guztion artean denok eroso gauden eredu sortzea proiektuaren onura eta etekina bertan gelditzeko.

**Hor daude Eskoriatza eta Aramaio ere. Egon al zarete bertakoekin?**

Kontaktuan gaude udalekin, eta batzar irekiak egiteko ere prest gaude, besteak beste, proiektuak goitik behera azaltzeko eta beraien zalantzak argitzeko.

**Era horretan, posible al da energia subiranotasuna erdiestea?**

Bai. Euskadik kontsumo energetiko handia du daukagun industria dela-eta, eta ideia da autonomia lortzea energetikoki. **Dena den, salaketetako bat da enpresa publikoa izan arren norvegiarra dela. Zergatik hemen?**

Errekurtso eolika oso ona delako. Nondik gatozen ez da horren garrantzitsua, baizik eta nola



Jon Zayas. MIKEL AGIRRE

egiten ditugun gauzak. Hori da azpimarratu nahi duguna, biltzen ari garen eredu jarraituz: etekina bertan gelditzea.

**Beste salaketetako bat da naturan inpaktu zuzena izango dutela eolikoek, eta, agian, eztabaida lekualdatu behar dela, kontsumoa murriztera...**

Statkraftek lehentasuna jarrita du ingurugiroan. Inguruneke azterketetan denbora eta lan asko egiten dugu, eta guretzako hori funtsezkoa da. Benetan natura suntsituz gero, proiektuak ez dira egingo. Eta, modelo energetikoari dagokionez, ikerketak ere egin ditugu autokontsumoari buruz, eta ikusi da autokontsumo ez dela nahikoa Euskadin dugun industrierako eta hain kontsumo handirako.

**Oreka bilatu behar al da eragin ditzakeen inpaktuaren eta izan ditzaizkeen onuren artean?**

Bai, proiektu guztiek dutelako inpaktu bat. Parke eolikoaren kasuan, bisuala da, baina ezer ez egiteak ere inpaktua du. Gasa eta ikatza erretzen jarraituz gero, naturan inpaktua izango du etorkizunean, eta hegazti eta animalia gehiago hilko dira energia produzitzeko modelo honekin jarraituz gero.

**"PARKE EOLIKOEN KASUAN, ERAGINA BISUALA DA, BAINA EZER EZ EGITEAK ERE INPAKTUA DU"**

# 600 familiak jaso ahalko dute tokiko argindarra

Datorren asteartean zabalduko da Leintz Bilarako Ekiola Kooperatibako bazkide egiteko izen-ematea. Arrasateko Garaiako esparruan azaroan hastekoak diren obretako plaka fotovoltaikoen bidezko energia jasoko dute etxean onuradunek

**Hasier Larrea** DEBAGOIENA

Leintz Bilarako Ekiola Kooperatiba babesten duten erakunde ordezkariek, tartean Energiaren Euskal Erakunde, Fagor Taldeko, Kreaneko, D2030eko eta Goiena Komunikazio Taldekoek, astean eman dute proiektuaren egungo egorearen berri. Adierazi dutenez, Garaia Parke Teknologikoan martxan jartzekoa den eguzki-parkeko lanak "azaroa eta abendua artean" abiatuko dira, eta, aurreikuspenen arabera, "martxoa eta apirila artean" hasiko da instalazio fotovoltaikoa Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasateko 600 etxebizitza ingurutako argindar-kontsumoa hornitzeko energia ekoizten.

**Bigarren fasean**

1,7 milioi euroko aurrekontua izango du 10.000 metro karratuko zabalera eta 2.300 panel fotovoltaiko izango dituen proiektuak; diru-kopuru horren erdia baino gehiago Europako Next Generation funtsetik -644.000 euro- eta Fagor Taldeak egingako ekarpenetik -335.400 euro- iritsiko da; Fagor Taldeak, modu horretan, "eskualdean trantsizio energetikoarekin duen inplikazioa" berretsiko du, Iraunkor-



Astelehenero ekitaldian azalpenak ematen, Arrasateko BAZen. I. BELOKI

tasun arloko arduradun Aritz Otxandianok azaldu duenez.

Hori guztia kontuan izanda, beste urrats bat egingo du Ekiolak asteartean, hilak 18, bazkidetza kanpaina abiarazita. Lehenengo faseko aurretiko izen-ematean izena eman zuten 400 familia inguruk bazkide egiteko lehentasuna izango dute; beraz, interesa duten gainontzekoak oraindik garaiz daude eskaera egiteko.

Horretarako, eta edozein zalan-tza argitzeko, bulego fisikoak irekiko dituzte txandaka. Datorren

asteen arratsaldeetan emango dute zerbitzua: Arrasaten, Biztanleen Arreta Zerbitzuan, astearte, ostegun eta ostiralean 13:00etatik 19:00etara; eta Aretxabaletan, Murruxio elkartearen egoitzan, asteazkenean, 14:00etatik 20:00etara; hilaren 24tik 28ra, berriz, goizetan egongo dira bulegoak irekita, 14:30ak arte, Arrasaten eta Aretxabaletan aurrez aipatutako astegunetan, eta Eskoriatzan astelehen goizean, printzipioz, udaletxeko lehenengo solairuan. Online bidez ere egongo da izena emateko aukera,

*ekiola.eus* webgunearen *Leintz Bailara* atalean.

**Onurak, "epe luzera"**

Aurretiko izen-ematea egin duten hiru kideko familia-unitateen batez besteko kontsumoa 2.200 kWh-koa dela kontuan izanik, familia bakoitzaren hasierako inbertsioa 1.239 eurokoa litzateke. "Gure aurreikuspenen arabera, ekarpen hori hiru urte eta erdian amortizatuko lukete bazkideek", azaldu du Maria Ubarretxenak, Arrasateko alkatetik. Ekiolako arduradun tek-

## "Argindar gutxiago ordaintzeko, hemen ekoizti behar dugu energia"

**IÑIGO ANSOLA** ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEKO ZUZENDARIA

EAEn sei Ekiola kooperatiba gauzatuko dira, horietako bat Leintz bailaran.

**Eguzki parkeez gain, parke eolikoak ere eraiki nahi dira gurean.**

Halako teknologien premia daukagu. Ingurumenarekiko inpaktua dute, baina garbiak dira, ez baitute isurtzen. Bestalde, egungo argindarraren prezioa gasa erretetik sortutako energia motek ezartzen dute, oraingoz horiek direlako eskaria eta eskaintza asetzeko gai direnak. Ondorioz, tokiko parke fotovoltaikoak zein eolikoak eraikitzea beharrezkoa da, argindarra merkeago ordaintzeko. Bestalde, itsas energia ere hor dago; berriki, haize energia ekoizteko oinarri flotagarri bat abiatu dugu Armintzako kostaldean, %100 hemen egindakoa.



ENEKO AZKARATE

**Elosuan parke eolikoaren aurka batu dira astean.**

Ulertzen dut, baina animaliak zaintzeko neurri zuzentzaileak badaude. Ez du balio esatea energia beste toki batzuetan egin eta gero guk erostea. Zenbat eta hurbilagokoa, hobeto.

**Zenbat isurtzen dugu EAEn?**

1982an, %62ko dependentzia geneukan petrolioarekiko. Gaur egun, %44koa, gutxiago isurtzen duen beste erregai fosil bat, gasa, erabiltzen dugulako.

nikoak, Krea enpresako Hodei Arzakek, gaineratu du etxebizitza bateko argindarraren urteko faktura 780 euro ingurukoa dela aintzat hartuta, aurreikuspenen arabera, "%25 eta %30 artean" aurreztuko luketela Ekiolako bazkideek.

**HASIERAKO 1.239 EUROKO EKARPENA "HIRU URTE ETA ERDIAN" AMORTIZATU EGINGO LITZATEKE**

GOIENA TELEBISTAK  
**8.000 IKUSLE EGUNERO.**  
ESKERRIK ASKO!

Iturria: CIES, 2022 (Gipuzkoari dagozkion datuak)

**goiena**  
Zu hemen zaude.

# "Donostiako Onkologikoa desagertzeaz dago"

**BITTOR BONET ONKOLOGIKOAREN PAZIENTEEN BATZORDEKO KIDEA**

Zapatuan, hilak 15, manifestazioa egingo dute Gipuzkoako hiriburuan, Bulebarrean, 12:00etan hasita. Bertan izango da Bonet, minbizia dutenen eskubideak defendatzen

**Hasier Larrea** DEBAGOIENA

87 urteko arrasatearra da Bittor Bonet, eta 2019an koloneko ebakuntza egin zioten Donostiako Onkologikoan, paziente minbizidunak artatzeko espezializatutako ospitalean. Garai hartan hasi zen, hain justu, zentro hori Osakidetzan sartzeko prozesua, ordura arte Kutxa Fundazioak kudeatzen baitzuen. Hiru urteotan zentroaren desegitea progresiboa gertatu dela dio Bonetek.

**Nolako prozesua pasa duzu minbizia atzeman eta gaur egun arte?**

Debagoieneko Ospitalean kolonoskopia bidez minbizia atzeman eta hiru hilabetera egin zidaten ebakuntza Onkologikoan. Tartean, Gasteizera ere bidali ninduten, zer eta beste kolonoskopia bat egiteko. Kexatu egin nintzen, asko, gainera, eta Donostiako Onkologikora bidali ninduten interbenitzeko. Koloneko minbizia sendatu egin zait ebakuntzaren ondorioz, gaitza lokartuta dago, eta, zorionez, ez dut kimiorik hartzen.

**Zortea izan duzula uste duzu?**

Justu-justu libratu nintzela esango nuke; denbora gehiago zain egon izan behar banu, auskalo. Orain, litekeena da pazienteek gehiago itxaron behar izatea; izan ere, mediku eta baliabide onak daude Osakidetzan, baina profesionalak falta dira; hein handi batean, espezialista onenek beste herrialde batzuetara alde egiten dutelako lanera. Ondorioz, aparatu bereziak erabiltzen dakiten profesional gutxi daude; esaterako, koloneko ebakuntza egiteko kualifikatuta daudenak. Horrek gaixo minbizidunen artapena eskatu egiten du.

**Adibideren bat jar zenezake?**

Nire semeak hilabete darama gaitz larri batekin. Gasteizen artatzen dute, baina hitzorduak atzeratzen dizkiote. Zita bihar-ko baduzu, gaur jaso dezakezu deia, medikua ez dagoela eta deituko dizutela berriz. Kontua



Bittor Bonet, Arrasateko Ferrerrias kalean. H.L.

## "PAZIENTEOK ONKOLOGIKOKO KALITATEZKO ZERBITZUAREN ITZULERA NAHI DUGU"

da minbizia gai dela zain ematen duzun epe horretan heriotza eragiteko.

**Pazienteek bakarrik ez, Onkologikoko profesionalak ere asteon salatu dute egoera ezegonkorra bizi dutela.**

Ezagutzen dut bertan 30 urtetik gorako lan esperientziadun profesionalak. Motibazioa galdu dute, ez dakitelako non amaituko duten. Izan ere, langileei Kutxak ordaintzen die oraindik ere, eta ez Osakidetzak, ez baitu horretarako interesik. Osasun sistema publikotik gero eta lan gutxiago bidaltzen diete; ziur aski, asperrarazi eta zentrotik alde egin dezaten. Nik argi dut Osakidetzak kudeatzen dutenek Onkologikoarekin amaitu nahi dutela.

**Kontrakoa adieraziko duzue bihar.** Donostiako zentro honen lehen- go izaera berreskuratzea alda-

rrikatuko dugu, ez gehiago eta ez gutxiago. Europa mailan erreferentea izan da; 1933a ezkerro dago martxan, lehenengo Egian eta gero Zorroagan, Donostiako Ospitalearen alboan. Gaixotasunaren prozesu osoaren jarraipena egiten zizuten. 2019an, 60 gaixo artatzeko gaitasuna zuen; gaur egun, bospasei bakarrik, eta eskas. Jada ez dute ez operatzen ezta tratamendurik egiten ere. Kezkatzekoa da, Gipuzkoa iberiar penintsulan minbiziatik heriotza-tasa handienetakoa duen herrialdeetako bat delako. Bailaran, urrutira joan gabe, aire kutsatu asko arnastu dugu, fundizioekin, zabortegekin...

**Onkologikoaren Pazienteen Batzordeak eta Onkologiako Enpresa Batzordeak deitu duzue manifestazioa.**

Bi aldeak, pazienteak eta osasun langileak, batuta gaude zentroa desegiten hasi zirenetik. Bularreko minbizidun hainbat emakume, hedabideetan agertu direnak, hasi ziren mugitzen. Tratu txarrak salatu izan dituzte, ebakuntzaren ondorioz titia moztu eta gero, estetikatik berriz jartzera bultzatzen zituztelako.



Aitortza Topaguneko lehendakari ohie; tartean, Mujika, Laka eta Irizarri. TOPAGUNEAK

## Euskalgintzatik herrigintzarako saltoa emango du Topaguneak

Joan den barikuan, sorreratik mende laurden bete izana ospatu zuen Euskaltzaleen Topaguneak Donostian

**H.L.** DEBAGOIENA

Atzera begirakoak errepasatu eta aurrera begirakoen berri emateko balio izan zuen euskara elkarten mugimenduak Donostiako Aquariumean eginiko ekitaldiak. Euskaltzaleen Topaguneko zenbait kide eta bazkidek hartu zuten hitza, eta Topaguneak orain arte eginiko ekarpenari balioa eman eta herritar antolatuek euskararen normalizazioan bete beharreko papera azpimarratu. "Euskararen erabilera eragiten jarraitu nahi dugu, ezagutzatik eta motibazioetik, bai baitakigu legeek eta hizkuntza politikek ez dutela lortuko euskara biziberritzea", adierazi zuen egungo lehendakariak, Jasone Mendizabal arrasatearrak, Goiena telebistaren *Hemen Debagoiena* saioan.

2023an egitekoak diren kongresuan ere jarri zuen fokua Mendizabalek. "Irekitzearen

premiatik" sortutako hausnarketari helduko diote, bereziki: "Euskaltzaleen mugimenduak badu giharra eta burua, baina zer-nolako harremana behar du gizartearekin? Gure desioa gazteengana, etorkinengana, instituzioengana iristea da; gizartearen askotariko esparruetara, hain zuzen ere".

**Omenaldia lehendakari ohie**

Debagoienak Topagunearen sorreratik izan duen pisua ere nabarmendu zuten. Euskara elkarten harremanean bailara honek izan duen garrantzia berresteko, aipagarria da 25 urteko ibilbidean lau lehendakari, behintzat, debagoiendarrak izan direla aipatzea; hain justu, Joxemari Muxikak, Karmen Irizarrek, Elena Lakak eta Mikel Irizarrek aitortza jaso zuten ostiraleko ekitaldian, euskalgintzari egindako ekarpenagatik.

## Pentsiodunek 70.000 sinadura eramango dituzte Madrilera

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak, gainerako pentsiodunen mugimenduekin batera, mobilizazioa egingo du bihar eguerdian, hilak 15, Madrilen. Bertan, bildutako sinadurak bistaratu eta proposatzen dituzten eskariak nabarmendu-ko dituzte; besteak beste, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa "berehala" ezartzea.

## 'Zubi bat euskaratik' hitzaldi zikloa antolatu du Auzokok

Euskaltzaleen Topaguneak kudeatzen duen Auzoko egitasmoak zortzi hitzaldi antolatu ditu datozen egunetarako. Hilaren 18koa Eskoriatzako kultur etxean izango da, 18:30ean; hilaren 26koa, Aretxabaletako Zaraqia aretoan, 17:30ean; azaroaren 4koa, Oñatiko Kultur etxean, 18:00etan; eta azaroaren 10ekoa, Arrasateko Kulturaten, 18:30ean.

# Gazte mugimenduek antolatuta, bi ekitaldi

Ikamak Debagoieneko Ikasle Eguna iragarri du eta Oñatiko Antixena gaztetxean izango da. Deba Bailara Kontseilu Sozialistak, berriz, Guda Zelaia jardunaldiaren bigarren edizioa egingo du Bergaran. Biak izango dira bihar, zapatua

## L. Zeberio Lekuona DEBAGOIENA

Bailarako gazte mugimendu bik antolatutako ekitaldi bana izango da aste bukaera honetan eskualdean.

Ikamak (Ikasleria Martxan) Debagoieneko Ikasle Eguna iragarri du biharko, eta Oñatiko Antixena gaztetxea izango da topaketa horren elkargunea. Egun osoko egitaraua iragarri dute. Hitzaldi batekin emango diote hasiera, 11:00etan, eta 12:30erako triki-poteoa iragarri dute. Ondoren, 14:30ean, bazkaria egingo dute gazteek, eta *Gaiztozeria tailerra*-rekin luzatuko dute bazkalostea. Arratsaldean musika izango da protago-

nista. 18:30ean, Züttik elektrotxarangak girotuko du Debagoieneko Ikasle Eguna, eta hiru emanaldirekin osatutako kontzertuak hartuko du ondoren lekukoa. Buru Gabe, Larru Beltzak eta Virgin Mari DJ arituko dira kontzertu horretan. "Ikasurte berrian ere ikasleok antolatzen eta borrokatzen jarraituko dugu! Batu zaitetz zu ere! Gurea euskal eskola herritar eta burujabea!", adierazi dute.

## Guda Zelaia Bergaran

Deba Bailara Kontseilu Sozialistak antolatuta, Guda Zelaia jardunaldien bigarren ekitaldia dago iragarrita egun bererako

Bergaran. "Hausnarketarako eta sozializatorako eguna izango da, zeinak arte eta kulturaren esparrutik gizarte sozialistaren eraikuntzarako ekarpen izan nahi lukeen", azaldu dute.

Kartzela zaharrean emango diote hasiera egitarauari, Ekidak proposatutako hitzaldi batekin, 11:30ean. Ondoren etorriko dira Moises Aspiazu dantza taldearen erakustaldia 13:00etan, bazkaria 14:30ean, *Agirretarren bandera* antzezlanaren emanaldia 18:00etan, Debrass Band-en saioa kalez kale 19:30ean eta kartzela zaharreko kontzertua 21:30ean, Berandu Baino Lehen, Inguma, Erne eta DJ Aifil-ekin.



Ikamak martxoaren 29an Bergaran egindako eskualde mailako manifestazioa. GOIENA



Kontseilu Sozialistak egindako Guda Zelaia jardunaldien lehen edizioa, Arrasaten. GOIENA

BANAKETA BERRIAK **ESTRA ASKOREKIN**

Terrazadun 2 logelako etxebizitzak **140.000 €-tik aurrera** (BEZ gabe)



TERRAZA  
PRIBATUAGOAK  
SERIE TIK DATOR LURZORU  
ERRADIATZAILEA  
ETXEBIZITZA BERRIETAN

BERGARA · [www.lorentxoko.com](http://www.lorentxoko.com)

**Berriz  
ere**

**lorentxoko**  
P25 · bizigune berria

Gure Lorentxoko maiteak berrasmatzen jarraitzen du eta Bergarako higiezin merkatuko etxebizitzarik ikusgarrienak eskaintzen dizkizu.

Oraingoan, bereziki pertsonalizatuak, maiteminduko zaituzten xehetasun guztiekin eta, nola ez, GÉren bermearekin.

Zatoz Lorentxokon oraindik eskuragarri dauden etxebizitza berriak ezagutzera.

**IRAILEAN BAKARRIK,  
trasteleku bat oparituko dizugu  
prezio horretan!!**

**GE** grupo eibar  
inmobiliario  
[www.grupoeibar.com](http://www.grupoeibar.com)

E: [comercial@grupoeibar.com](mailto:comercial@grupoeibar.com)  
**GRUPO EIBAR-EN BULEGOA: 943 31 66 11**  
Emai, 1 · 20570 BERGARA. **650 44 21 59**



ZABALIK

URTZI AMIANO SALTERAIN

## Arrazolako (des)kontrola

Irailaren 23a. Arrazolako Pala Txapelketako X. urteurrena da bihar. Uda lehorra bai, baina aste hau euripean pasa dugu, biharko pala finalak eta eguna bera kinka larrian daude, ez dago aterperik. Hilabeteetako antolaketa lana porrura joateko istant batera. Eta hementxe hasten da Arrazolako magia.

Gaizka joan da etxera, 100 metro karratuko plastikoarekin da bueltan, euria hasi aurretik estali du frontoia, laguntzaile izan du Gari. Hau gutxi ez, eta Aiertek, Elenak eta Xanpok egin diote hiru metro luzeko artelana hormari. Goiza iritsi da, finalak bertan dira, eguraldia lagun, frontoian: Aritz, Urkiol, Asier, Arkaitz, Egoitz eta Urtubi. Sei jokalaria, baina hiruk egin diote ohore txapelari. Xabat eta Xabat epaile eta argazkilari.

### ARRAZOLARREK BERAIEN SORTERRI ETA SUSTRAIKIKO DUTEN LEIALTASUNA GAINDIEZINA DA

Kamiseten diseinuan eskerrak eman Aranburi eta nire anaiari. Hamaiketako iritsita, sukaldean, Beñat eta Oies buru-belarri. Poteora bidali gaitu Errotak, hura da orkestraren zuzendari. Bazkarian jateko,

mingaina, denok egon gara kalakari, baina aurretik bota du Karkunek txopoa, Pedrinen irribarrea izan duela ikuskari. Jan eta jan bai, baina baita eman diogu edanari. Hasi da des-kontrola Arrazolan, Txino eta Titi eszenatokiaren atontze lanetan gidari, Magu, Pello eta Sala Txiki musikari. Oihane, Gentzane, Leire, Dorleta, Josune eta Eli kontzertuan, guztiok dantzari. Denok *Sapoherriruntz* korrika joan aurretik karaokearekin eman diote umeek amaiera Arrazolako egunari. Aldez aurretik, barkamena ahaztutako jende guztiari eta, nola ez, Anbototik zaintzen gaituen Mariri.

Badiote txakurrek beraien jabeekiko duten leialtasuna mugagabea, infinitua, dela. Arrazolarrek beraien sorterrri eta sustraietikiko duten leialtasuna gaindiezina da. Aita Arrazolan jaio eta Arrasaten hil zen; beti arrazolar leiala izanik, nire barnean zerbait -akaso, asko- utzi zuen.

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Km0aren paradoxak

**LUIS ARANBERRI MENDIZABAL 'AMATIÑO'**

'EIBAR-ORG'-N ARGITARATUA  
[HTTPS://LABUR.EUS/11a6L](https://labur.eus/11a6L)

Jendeari galdetuz gero zergatik garestitu ote den energia azken urtean, barrena hamarretik bederatzik erantzungo luke Ukrainako gerrarengatik izan dela. Baina hori, neurriren batean egiantza izanik ere, ez da lehenengo arrazoia, hirugarrena baino.

Lehena da, Europak ez duela, bere mugen barruan, kontsumitzen duen besteko energiari eta, mugaz kanpokoa berea balitz moduan kudeatu nahi izan duela (eurozentrismoa).

Bigarrena, behar beste energiari ez izan arren, Europak betidanik funtzionatu izan duela zeharo sinetsia, zintzo ordainduz gero sekula ez litzaiokeela energia hornirik falta izango (aberats sindromea).

Eta, hirugarren arrazoia, Ukrainako gerrak aurreko sasi-uste biak usteltzat frogatu dituela. Seguru gero, gerrak nekez dakarrela onik, baina Europak etxeko lanak garaiz egin izan balitu, agian Ukrainako aferak ez zukeen gure energiari eza honen gordin salatuko.

Petrolioari dagokionez, azken bi hamarkadotan hogeitaka findegi itxi dira European, baina ez kontsumoa

murriztu delako, findegiok ahalik eta urrutien nahi izan ditugulako baino. European findegiak itxi eta berriak European at egiteko joeraren atzean, gogoan hartu nahi izaten ez diren ondorioak daude: inbertsioak European kanpo egin direla eta lanpostuak, European landan sortu. Areago, Europak C02 isuriak gutxitu arren, munduan, oro har, hazi egin direla, European baldintzak zorrotzagoak izanik, kanpoko findegiak hemengoak baino kutsakorragoak direnez gero. Funtsean ez ditugu isuriak gutxitu, esportatu baizik. Eta hau guztia gutxi bailitzan, European kostuak handiagoak izateaz gainera... [...]

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**  
Monika Belastegi.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal.  
**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**  
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Igone Osinaga.

**Sailletako arduradunak**  
Xabier Urzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
**Maketazioa**  
Imanol Soriano,  
Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza.  
**Publizitatea**  
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,  
Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**  
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)  
**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 19.000 ale  
**Difusioa:** 18.723 ale

**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

**Eskerrik asko!****JOSE ANTONIO ALTUNA**

ARRASATE

Joan zen astean, agurra eman genion larregiko goiz joan zaigun Illart Losadari.

Aldain egindako hileta zibila hunkigarria izan zen oso; agur xume bezain ederra. Illarten lagunek bereziki ukitu ninduten.

Banengoen aspaldian sentsazio ez oso positiboez gaztediari buruz, eta aparteko lezioa eman didazue.

Han erakutsi zenuten neurriak, hitz goxoek, abestiak... ohorea.

Bihotzez, eskerrrik asko!

**Debagoiengan ekoizten dena Debagoiengan kontsumitzea da gure helburua****JOKIN LARRAÑAGA, MARIA AMASENE, JULEN MENDAROKETA, MIKEL LIZARRIBAR, ION MURGIÓNDO, EIDER MURGOITIO, MAITE DEL REY ETA ASUN ARANA**ARRASATEKO EREINDAJANEKO ZUZENDARITZA ETA LANGILEAK  
ARRASATE

Arrasaten eta Bergaran kokatzen den denda-topagunea da Ereindajan. Egun, 720 bazkidetik gora batzen ditu bailaran, eta bertakoak, osasuntsuak eta justuak diren produktuak eskuratu daitezke bertan. Debagoieneko 33 ekoizleek beraien produktuak saltzen dituzte: ogia, barazkiak, haragia, gazta, sagardoa, garagardoa... Elikadura

burujabetza oinarri hartuta, bailarako ekoizle eta kontsumitzaileei zuzeneko salmenta bermatzen die proiektuak.

Egun, Euskal Herrian kontsumitzen ditugun elikagaien %5 soilik produzitzen dira lekuan; gainontzekoa kanpotik dator. Elikadura burujabetza kontu estrategikoa dela azaldu nahi dugu.

Debagoiengan, XX. mendean, industriak *goraldia* izan zuenean, industrialdeak laborantzarako lurrik egokienetan ezarri ziren. Lur emankorren galerak baserria uztera eraman zituen familia asko.

Urteak pasa ahala, begi bistan da lehen sektorea ia ikusezin bihurtu dela gure bailaran, gizarteari eskaintzen dion ongizateari uko eginez: osasuntsuak eta lekukoak diren elikagaien sorrera, naturaren zaintza, lurraldeko kulturaren jarraikortasuna...

Gainera, azken urteotan, AHT moduko proiektuek sakon txikitu dute landa eremua eta etorkizun laburrean ere mehatxatuta daude gure lurrak. Bizi dugun krisi ekologiko eta energetikoaren aurrean, energia berriztagarria sortzeko presioa iritsi baita. Behar dugun energia bertan sortzearen aldeko hautua egitea ezinbestekoa da, baina ez edozein modutan. Bailaran, zorionez,

badauzkagu megawattak sortzeko estalpe eta lur ez-emankorreko guneak. Beraz, lehenengo sektorerako, nekazaritza zein abeltzaintzarako erabiltzen ditugun lurrik errespetua bermatzea beharrezkoa da.

Elikagai produkzioa handitu eta inportazioen menpekotasuna txikitzekotan, begi bistan da nekazaritzako lurrak mantendu beharko ditugula. Elikadura burujabe eta duina duen herria jasangarriagoa baita. Baina kontzientziak astindu behar dira, norbanakoen kontsumo ohituretatik hasten baita guztia. Gure udalerrietako agintariekin ere, badute zer pentsatu, landu eta priorizatu.

**Mendiak industrializatzea ez da jasangarria****JUDITH ARRIOLABENGOA UNZUETA**  
ARAMAIXO BIZIRIK, ORIXOL MENDIZALE  
ELKARTEA ETA ARAMAIXO TROPIKALEKO  
GAZTE ASANBLADA  
ARAMAIO

Aramaioko hainbat menditan Statkraft enpresa publiko norvegiarrak gure politikarien laguntzarekin jarri nahi dituen haize erroten aurrean, gure haserrea adierazi nahi dugu eta honen inguruan hausnarketa egitera gonbidatzen zaituztegu. Argi dago interes handia dagoela –ekonomikoa, noski–, eta medioetan horren isla dugu,

interesak dituztenek medio horiek mugitzen baitituzte. Baina, arren, hausnartu.

Haize errotak, berriztagarriak izanik, energia berdea lortzeko eredutzat saltzen dizkigute, baina ezarri nahi duten ereduak eremu naturalak suntsitzen ditu. Inguruan ezagutzen ditugun Elgeako haize errotak 50-60 metrokoak dira eta orain ezarri nahi diren errotek 200 metroko altuera dute; hauek mendietara garraiatu behar dira eta haize errotetatik estazio elektrikorako garraiatzeko dorre elektrikoak jarri behar dira, eta kableak, eta zarata... Honek guztiak inguruan izango duen eragina bene-benetan kontuan hartzekoa da.

Mendiak aukeratzen dira, errendimendu optimoena atera nahi delako, etekin ekonomiko handiena, izan enpresa publikoa edo pribatua, berdin da. Baina nahiz eta etekin txikiagoa atera, zergatik ez dituzte eremu degradatuak erabiltzen? Gure inguruan industrialde oro dugu, izugarriko teiltatuekin, haizea ere jotzen duen eremuak... Fagorrek ere erabili ditzake bere teiltatuak eta guneak haize errotak jartzeko, landa-lur gehiago galtzea eragotziz.

Berriztagarriek ez dituzte ordezkatuko garraiatzen eta gordetzen errazagoak diren energia fosilak; gasolioa, adibidez. Eguzkiak, haizeak,

energia sortzen du dagoenean, baina ez ez dagoenean. Era berean, berriztagarriak material zaharkituaren mende daude –txipak, bateriak...–. 20-30 urte barru, hondakin gehiago.

Instalatu nahi diren eolikoak ez datoz bat saldu nahi den trantsizio energetikoarekin, ekosistemak eta mendiak suntsitzen dituen eredu bat da, klima-aldaketa arinduko ez duena.

Benetako trantsizio energetikoa eremu naturalak errespetatu izan behar du.

Landa-eremuak suntsitzen jarraitu nahi da, eta horiek dira krisi ekosozialari eusteko balio dutenak; hau da, arazo klimatikoari, elikagaienari eta sozialari eusten dietenak. Lurraldea alderdi horiek kontuan hartuta antolatu behar da.

Energia ezin da izan enpresen onurarako, deszentralizatu beharreko ondasun soziala da, tokikoa izan behar du, kudeaketa sozialekoa.

Eta koherentea izan behar du, eremu naturalen kontserbazioa bultzatu behar da eta eremu degradatuak erabili behar dira.

Eremu horiek ahalik eta etekin handiena –irabazi gehiago– ateratzeko tokiak ez izan arren, aprobeitza daitezkeen eremuak ere badira.

Utzi bakean mendiak!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrek: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

**HAUXE BAI JENEROA!****GARBIÑE UBEDA**



1988an Udalpe elkarteko bandera bedeinkatu zutenekoa. UDALPE ELKARTEA



1987ko maiatzaren 16an, elkarteko hainbat bazkide, Herriko Plazan, 40. urteurrena ospatzen. UDALPE ELKARTEA

# Muxibarren ernaldutako hazia gaurdaino iritsi da, Iturriotz gotorleku hartuta

Aurten, 75 urte bete ditu Udalpe elkarteak, 1947ko maiatzaren 23an sortu baitzuten, Asociacion Sociedad Recreativa y Cultural Udalpe izenarekin; hori dela eta, datorren asteburua aukeratu dute atzera begiratua egin eta urteurren borobil hori ospatzeko

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE 75 urtek askorako ematen dute, eta, Arrasateko lehenenatariko elkarte gastronomikoa izateaz gain, herrian ekarpen esanguratsua egin duen elkarte da Udalpe. Belaunaldi berrietako arrasatearrek, agian, ez dute jakingo, baina gaur egun San Juan jaietan hain funtsezkoa den danborrada Udalperi zor zaio. Bazkideek azaltzen dutenez, Arrasaten bizi zen Jose Markiegi jostun eibartarrak faltan narbitzen zuen ikuskizun bat San Juan bezperan, eta, buruari

bueltaka, Donostiako danborradaren antzeko bat egitea pentsatu zuen. Udalpe elkarteak bere gain hartu zuen Markiegi egindako proposamena, Pablo Garairen eta Jose Egidazu *Casino*-ren gidaritzapean. Modu horretan, 1961ean egin zuten lehen danborrada Arrasaten, jantziak Donostian alokatuta.

Lehen bost urteetan, Luis Mari Maidagan izan zen danbor-jotzaile nagusia. Jose Luis Mendietak hartu zion lekukoa gero, eta Rafa Fernandezek hartu zuen ardura hori beste hainbat urtez.

Azken hori danbor-jotzaile nagusi izan zen lehen urtean, 1967an, hain zuzen, Udalpek banatu egin zuen danborrada antolatzekeo ardura, eta SUDC elkarte hasi zen horretan. Esan behar da, hala ere, SUDCen barruan zegoela Udalpe, San Isidro, Danok-Bat eta Casinorekin batera. Garai hartan, elkarteko bazkide zen Juan Arzamendik zuzendutako udal bandak laguntzen zuen danborrada, eta, bandarekin batera, barril-jotzaileak, gastatzaileak, sukaldariak eta karrozak ere irteten ziren.



Gaur egungo sei bazkide, elkarteko sukaldean, martitzenean. E.A.B.

**Muxibar jatetxean jaio zen ideia** Toribio Agirre kaleko 14. zenbakiko lokalean hasi zuen bidea Udalpe elkarteak, garai hartako El Caserio tabernaren ondoan –Olarre kalean–. Elkartearen sortzaileak Zarugaldeko Muxibar jatetxean elkartzen ziren eta

**GARAIK ONENETAN 290 BAZKIDE IZATERA IRITSI ZIREN ARREN, GAUR EGUN 150 BAZKIDE INGURU DIRA**

Florencio Garay izan zen sustatzaile nagusietakoa. Bazkide sortzaileak 30 izan ziren eta lehen presidentea, aldiz, Florencio Garay bera.

Orduko hartan, bi elkarte bakarrik zeuden Arrasaten: bate-tik, Casino, Arrasateko eliteari zegokiona; eta, bestetik, Danok-Bat, erdi-mailako klasearena. Bi horien artean, bere bidea irekitzen hasi zen Udalpe ere.

**Lekualdaketa Iturriotz kalera** Hamaika urte Toribio Agirre kalean egin ostean, elkartearen

## Udalperen ereserkia birmoldatu egin dute, abesbatzarako

Ez da horren ohikoa elkarte gastronomiko batek ereserkia izatea. Udalpek, ordea, badu berea; eta ez bat, bi baizik. Bat danborradarako sortutakoa da, hitzik gabekoa, eta bestea, elkartearen ereserki ofiziala, Pedro Ugaldek konposatutakoa eta Iñaki Eizmendi *Basarri* bertsolariak hitzak jarri zizkiona.

Ugaldek pianoarekin eta ahots bakarrarekin kantatzeko

konposatu zuen ereserkia. Orain, Nestor Maidaganek –Udalpeko presidentea– moldatu egin du abesbatzarako, lau ahosetara abesteko. Hala, urriaren 21ean, egubakoitza, jendaurrean estreinatuko dute ereserkiaren moldaketa, eta Goikobalu Abesbatza arduratuko da horretaz, Iñaki Maidaganen zuzendaritzapean. 19:30ean Portaloian hasita, kalez kale ariko

dira kantuan eta 20:30ean, Udalperen kanpoaldean, ereserkia abestuko dute. Horren aurretik, ereserkia grabatzeko asmoa dute. Izan ere, ez daukate inon jasota grabaziorik; partiturak eta hitzak bakarrik dituzte, eta ondo jasota geratzea gura dute.

Azkenik, urriaren 22an, zapatua, 75. urteurreneko bazkaria egingo dute elkartearen eta 30 bat lagun elkartuko dira.



Pedro Ugalde –ereserkiaren konpositorea– eta Juan Arzamendi, besteak beste. U.E.





Mus txapelketak oso jendetsuak izaten ziren garai batean. UDALPE ELKARTEA

egoitza lekuz aldatu behar izan zuten. Pablo Garai presidente zela, lokala erosteko ideia irten zen batzar orokorrean; izan ere, alokairuan egon ziren ordura arte eta lokala Elorrioko albaitari batena zen.

Hala ere, lokala erosteko proposamena ez zitzaion batere gustatu, antza, Udalpekoek aurrez ez zutelako erosi gura izan. Beraz, lokaletik bota egin zituen eta bazkideek lokal berri baten bila hasi behar izan zuten. Bilaketa-lan luzearen ostean, Maza familiari erosi zioten egungo lokalaren lehen zatia, Iturriotz kaleko 2. zenbakia –gerora, 4.a ere eskuratu zuen elkarteak–. Hala, 1958ko ekainaren 22an inauguratu zuten lokal berria.

**2016ko obra, inflexio-puntua**  
Zarata zela eta, bizilagunek keza asko jartzen zituzten Udalean.

**GOGORARAZI DUTE HAINBAT PLAZA LIBRE DITUZTELA BAZKIDE BERRIENAKO, BAJA BATZUK DIRELA ETA**

Hori dela eta, bazkide batzuek lekuz aldatzea gura zuten eta beste batzuek, aldiz, akustikoki isolatzea. Azkenean, bigarrenaren alde egin zuten, eta, 2016an guztiz eraberritu zuten lokala, akustikoki isolatuz, "horretarako aukerak oso zailak" ziren arren, Haritz Arrieta bazkidearen esanetan. Obra egiteko, baina, diru bat ordaindu behar izan zuten eta bazkideetako askok utzi egin zuten elkarte: 260 inguru izate-tik 150era pasatu ziren.

**Urte askoan, gizonen eremua**

Duela gutxira arte, bazkide guztiak gizonetzkoak ziren. "Lehen, emakumezkoak, Gabonetan, Inauterietan eta San Juan jaie-tan bakarrik sartzen ziren", dio Eli Alzolak, duela 49 urtetik bazkide denak. 80ko hamarkadan, hainbat bozketa egin zituzten hori aldatzeko, eta gehienetan ezezkoak irabazten zuen. "Halore, asko kostata, baina lortu genuen emakumezkoak elkar-tera sartu ahal izatea". Hori 90eko hamarkadan izan zen, eta geroago etorri zen emakumeek bazkide izateko aukera, 2000ko hamarkada bukaera aldera.

## Atzerritartasunari buruzko saioa egingo dute martitzenean

Arrasateko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak elkarlanean antolatuta, atzerritartasunari buruzko hitzaldia egingo du Biltzenek, Eusko Jaurlaritzako Atzerritartasun arloko Laguntza Juridiko Zerbitzuak, urriaren 18an, martitzena, 18:00etan, Kultura-teko areto nagusian. Informazio praktikoa emango dute atzerritarren erregularizazioari eta

haien bizitzako hainbat eremutan duten eraginari buruz. Honako gai hauei buruz hitz egingo dute: bizileku- eta lan-baimenak, berritzeak, familia-elkartzeak, ikasketengatiko egonaldia, erregularizazioa, erkidegoko pertsonen eta haien senideen araudia, nazionalitate-terako sarbidea eta abar. Hala-ber, 2022ko erregelamenduaren erreformaren berrikuntzak ere azalduko dituzte.

Parte hartzeko, aurrez izena eman behar da, [Arrasate.eus](http://Arrasate.eus)-en.

## Merkatu solidarioa egin dute, buru osasuna ikusarazteko

San Juan de Dios ospitaleko terapia okupazionalako zerbitzuak merkatu solidarioa egin zuen urriaren 10ean, Seber Altuben. Osasun Mentalaren Nazioarteko Egunaren harira egin zuten ekimena eta ospitaleko pazienteek egindako eskulanak izan zituzten salgai, haien gaitasunak eta trebetasunak nabarmentzeko.

## Zaldiekin 'coaching' saioa egingo dute, emakumeendako

Ekin Emakumeak Elkarteak antolatuta, norbere burua lantzeko saioa egingo dute, zaldien bitartez, Meatzerreka auzoan, *Emakume basatia, askea bezain ederra* lelopean. Emakumeei zuzenduta dago eta urriaren 22an izango da, 09:30etik 14:30era. Izena emateko, 943 79 83 70 edo 651 70 79 36 telefono zenbakietara deitu beharko da.

## Gizarteratzeko eta laneratzeko proiektu pilotua abiatuko dute

Iraupen luzeko langabezia gutxitzea helburu duen enplegu plana martxan jarriko dute Arrasaten, Next Generation-EU Europako Funtsekin eta Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailaren eskutik. Hala, "aukera gutxien dituztenak laguntzea helburu duen" proiektuan, bazoain lanak egiteko hamar herritar kontratatuko dituzte.

## Bertako produktuen azoka bihar, Puntaik Puntaren baitan

Hileko hirugarren zapatua izanik, bertako produktuen azoka egingo dute bihar, zapatua, Seber Altuben, 09:00etatik 14:00etara. 21 postu izango dira, guztira; ohiko ekoizleenez gainera, Harreman elkarrearen eskutik txokolatea eta kafea dastatzeko aukera izango da, eta baita herriko artisauen lanak eskuratzeko bidea ere.



NIRE USTEZ

JOHANNA SANCHEZ

## Energiarekiko mendekotasuna

Arrasaten dugun energia berriztagarri kopurua lurralde mailakoaren %8ra ez da iristen, eta elektrizitate-eskaera %90ekoa da. Hori aldatu egin behar da eta guztion artean, talde-lanean, lortu ahal izango dugu. Udallerri, eskualde eta probintzia mailan oso une garrantzitsuan gaude; guztiok batu, eta energia-efizientziaren eta energia berriztagarrien eredu berrien alde egin behar dugu, helburu bera lortzeko lankidetzara bilatuz.

Energia oinarritzko ondasuntzat dugu, eta horrek udal guztien laguntza eta talde-lana eskatzen du. Gobernatzen duenak gobernatzeko duen premisa hori egia bihurtzeko, hau da, proiektu guztietan nahitaezko parte izanez gizarte-irizpideak, herritarren partaidetza edo autokontsumorako eta sorkuntzarako irizpideak.

Ingurumen-balioak lehenetsi behar ditugu, parke eoliko seguruen proiektu bat aurrera eramanez, industria ekonomia-erantzutza segurua eta lanpostu asko sortuko dituen. Hori gure herritarren ongizaterako lan egitea da, eta gure enpresa eta autonomoen etorkizuna bermatzea. Bidezko trantsizio energetiko iraunkor batean sinesten dugu, ingurumen, ekonomia eta alderdi sozialen arteko oreka bilatuko duena. Horretarako zuten laguntza behar dugu.

*Sili Sili*

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta

arrasate

★

beinke

Ab 80

TANATORIOA

BEILATOKI BERRIA ARRASATEN

Guztion zerbitzura 24 orduz

ARRASATE HILETA BERRIA

Deitu eta informa zaitez!!

☎ 943 79 22 19

Araba etorbidea 3, 20500 ARRASATE. [www.funerariaarrasate.com](http://www.funerariaarrasate.com)

# Astelehenean 12 orduz etengo dute ur-hornidura

Arrasateko Udalak jakinarazi du urriaren 17an 07:30etik 19:30era ur-hornidura sarea konpontzeko lanak egingo dituztela. Zehazki, hodi alternatiboa konektatuko dute ur-hornidura sistemara, eta, bien bitartean, herriko ur-sare osoa etengo dute

## Hasier Larrea ARRASATE

Joan den irailaren 26an, Arrasateko ur-horniduraren sisteman matxura atzeman zuten Udaleko Obra eta Zerbitzuen Saileko arduradunek, Zalduspeko eremuan dagoen hodi orokorrean. Ordutik hona, hainbat jarduera egiten ari dira, horniduraren egoera kritikoa normaltasunera bideratzeko. Gaur-gaurkoz, erakia dute sare alternatiboa. "Hamar egun behar izan ditugu, bizpahiru asteko epea aurreikusitako genuen arren", adierazi du Victoriano Fuentes zinegotziak.

Hala, polietilenoazko 750 metro inguruko hodi bat konektatuko dute matxura jazotako tokian,



Zalduspeko esparruan matxuraren ondorioz sortu den putzua. H.L.

Zalduspeko ur-biltegia Nafarroa etorbideko hoditeriarekin konektatzeko. Esku-hartze hori datorren astelehenean egingo dute, hilak 17, 07:30ean hasita, eta, lanek iraun bitartean, "gehienez hamabi orduz", ur sare osoa eten egin beharko dute. Ondorioz, herritarrei eskatu diete sarea martxan jartzen denean "ura neurritz, arduraz eta modu solidarioan" erabiltzeko: "Ez baitakigu emari, presio edota hornidura arazorik izango den, ezta udalerriko zein eremuri kalte egin diezaiokkeen ere". Abisatu dute lehen une horietan ura zikin etor daitekeela: "Beraz, ura irteten utzi, eta zabaldu txorrotak apurka-apurka".

## Ostean, matxura konpontzera

Konponbide hori, esan bezala, probisionala da, eta ur-hornidura sistema modu alternatiboan garraiatzeko balio izango du. Bien bitartean, matxura konpontzeko lanei ekin ahal izango diete. Arazoaren iturburua den hormigoizko dadoa apurtzerakoan jakingo dute zenbat denbora beharko duten aberia gutziz konpontzeko.

## Eva Abuinek alkategai izateko hautagaitza aurkeztu du

Podemos alderdiak Arrasateko alkatetzarako barne hauteskundeetan prozesua ireki du, azaroaren hasieran amaituko dena, eta Eva Abuin arrasatearrak jakinarazi du *Bat egin* markarekin aurkeztuko dela bertara.

Gaur egun, Podemosen Arrasateko Udaleko bozeramailea eta zinegotzia da Abuin, 29 urte ditu, hainbat gizarte-mugimendutan militatu eta lagundu izan du, eta azken urteotan feminismoari lotuta egon da, bereziki. Politika instituzionalean 2015-2019ko legegintzaldian hasi zuen ibilbidea, Podemosekin lotutako Baleike udal-taldeko zinegotzi. Podemos Euskadiko exekutibako kide ere izan da, Berdintasunerako idazkaritzan eta Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako politika feministen blokearen eta proposamenen prestaketa koordinazioan ekarpena eginda.

Arrasaten "begirada gazte eta feminista duen proiektu politikoa eraikitzeko" egingo du lan.



## DEBAGOIENEN GREMIOAK



### AROTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**  
BERGARA / Telleria 19 B02-B03  
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20  
blogak.goiena.net/azkarate

### HONDEAKETAK

**EXCAVACIONES Y CONTRATAS**  
**ARRASATE SL**  
ARRASATE / Meatzerreka 30  
Tel.: 943 77 12 26/ 646 29 59 87  
e.arrasate@gmail.com

### ITURGINTZA

**EGIA ITURGINTZA**  
ARRASATE / Gipuzkoa etorbidea 39, behea  
Tel.: 943 77 01 85

### URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA / Basabe industrialdea B-3  
Tel.: 943 77 19 88  
Faxa: 943 79 59 97

### LOREZAINNTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**  
ARETXABALETA / Basabe poligonoa D-2-1  
Tel.: 943 79 78 45 - 616 96 57 98  
Faxa: 943 79 78 45

# Aldarri feminista egin zuen Maritxuk mirarian

Pandemiak ez du txikiteroen zaindariaren izaera aldarazi. Sarri erakutsi izan du gizartean pil-pilean dauden gaiek hunkitzen dutela, eta ostiralean emakumeen aurkako ziztadak gaitzetsi zituen irmoki; hark, eta haren inguruan batutakoek

**Hasier Larrea** ARRASATE

Betiko Maritxu Kajoi ospatu zuten joan den barikuan arrasatearrek eta festa egiteko gogoz etorritako parrandazale orok. Goizeko lehen ordutik josi ziren kaleak soineko eta traje elegantez jantzitako jendeaz, eta ez ziren Maritxuri loreak eskaintzeaz ahaztu. Eguraldi eguzkitsuak asko lagundu zuen eguna behar bezala ospatzeko garaian, Arbolapetan eskapularioak saltzen zebiltzan Komisiñoko kideek nabarmendu zuten moduan.

Urtero bezala, iluntzerako sorpresa berezia zeukaten gordeta, Maritxuren mirari misteriotsua, alegia. Emakumeen alde azaltzearen hautua egin zuen ama birjinak, 2018an Jaizkibel konpainia goraiatu zuenean bezala, esate baterako. Aurten go kasuan, udako jaietan zehar zoritxarrez hainbeste lerro-burutan agertutako gai bati heldu zion: zenbait gizonek emakumeen aurka burututako ziztada bidez-

ko erasoei. Mirariaren momentuan, xiringa itxurako metro inguruko pieza bat erditik moztu zuten trontzarekin, herri kiroleko demetan egin ohi duten gisa. Bien bitartean, pankarta handi bat erakutsi zuten buru-berokia soinean zeramaten hainbat emakumek, eta "gora borroka feminista!" oihukatu zuten behin eta berriz, Herriko Plazara bertaratutako laguntzarekin.

**Ezbeharrik gabe**

Gauak luze jo zuen gero. Arbolapetako indarkeria matxistaren aurkako gunean eta eraso matxistak jakinarazteko telefono zerbitzuan ez zuten aparteko intzidentziarik jaso. Tabernetan, jatetxeetan, elkarte gastronomikoetan eta Monteazpiko karpan giro goxoa nagusitu zen, eta goizeko zortzietako txarangarekin dantzatzeko indarrak gorde zituenik ere egon zen. Horrela izan dadila datorren urtean ere.



Mirariaren unean, buru-berokiz estalitako emakumeak bengalak astintzen. I.S.

## OHARRAK

### 1943an jaiotako kintada

Urriaren 22an, 12:30ean, elizkizuna egingo dute San Juan Bataiatzailearen parrokiaren ondoren, poteoa; eta bazkaria Buenuenan. Izena emateko, deitu jatetxera -943 79 79 60-.

### 1958an jaiotako topaketa

Azaroaren 5ean, Idiazabalgo J. Aranburu gaztandegira eta Olaberriako Arrieta jatetxera joango dira, 10:45ean Zalduspetik autobusean irtenda. Parte hartzeko, sartu 75 euro urriaren 25a baino lehen ES91 3035 0001 59 0011144438 kontu korrontean.

### 1961ean jaiotako kintada Leintz Gatzagan

Urriaren 22an, 11:15ean Zalduspen autobusa hartu, 12:00etan herria ezagutu, 13:00etan otordutxoan jan, 14:00etan Larrabearen bazkaldu, eta ostean dantzaldia. Apuntatu hilaren 16a aurretik, ES88 3035 0001 56 0011177328 kontuan 70 euro sartuta.

### Euskaraldian izena emateko mahaiak

Urriaren 18an, asteartea, San Andresen, Erguinen eta Musakolan eman ahalko da izena, 16:45etik 19:00etara; urriaren 20an, Seber Altuben, 18:00etatik 20:00etara. Gaur, urriak 14, *Gazte koadrila sarea* bilera egingo dute, 19:00etan, gaztetxean.



# 50€\*

sartuko dizkizugu  
EROSKI club txartelean

Haz daitezela zure aurrezkiak



\* Eskaintza EROSKI club-eko bazkideentzat izango da baietako, Euskadiko, Nafarroako, Kantabriako eta Erikoako EROSKI Hipermerkatuetan. Kontuitatu baldintzak zure chiko dendan.



**EROSKI**

ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE,

Tel.: 943 71 10 30



Familia erretratua egin eta gero –argazkian– banan-banan atera zituzten talde guztietako argazkiak. XABIER URZELAI

# Mondrak eta Leintz Arizmendik euren taldeak aurkeztu dituzte

Mondrak eta Leintz Arizmendik urriaren 12a baliatu zuten taldeak aurkezteko, 30 talde batu ziren, guztira. "Jendeak nagusiengan jartzen du interesa, baina hori harrobitik landu behar da", adierazi du Mondrako presidente Xabier Etxeberriak

**Xabier Urzelai** ARRASATE Futbol eskolatik hasi eta ohorezko erregional mailako taldeetarainoko jokalaria aurkeztu zituzten eguazten goizean Mojategin; Mondrako eta Leintz Arizmendiko 30 talde, guztira. "Ez da erraza halako egun bat antolatzea, baina merezi du, polita da urtean behin denok hemen batzea", adierazi zuen zuzendaritzako beste kide batzuekin batera talde argazkiak antolatzen buru-belarri ibili zen Xabier Etxeberria presidentek. Mondraren harrobiari dagokionez, eguaztenean 27 talde batu ziren Mojategin: alebin mailatik gorako hamabost eta futbol eskolako hamabi.

**Leintz Arizmendik lau talde** Mondrakoekin batera, Leintz Arizmendikoek ere hitzordua baliatu zuten euren taldeak aur-

kezteko. Ohorezko erregional mailan diharduten neskek ezin izan ziren Mojategin egon. Lan kontuak eta bestelako konpromisoak tarteko, gurago izan dute aurkezpena aurrerago egin, eta Leintz Arizmendiko futbol eskolakoak ere aurrerago batuko dira. Hitzorduan egon ziren, baina, Leintz Arizmendiko harrobiko lau taldeak, infantil

**"KLUB BATEN ATZEAN ZENBAT PERTSONA DAUDEN LAGUNTZEN IKUSTEN DA HALAKOETAN"**



**XABIER ETXEBERRIA**  
MONDRAKO PRESIDENTEA

mailako bi taldeak eta kadete mailako beste biak.

**Antolaketa lana** Kamisetak banatu, megafoniatik etengabe oharrak eman, talde argazkia antolatzerakoan gazteenak aurrean, kategoria nagusietakoak atzean... Eta, bitartean, gurasoak –hunka– Mojategiko harmailetan, erne, hila-bete batzuk barru klubak argitaratuko duen posterrak ze itxura izango duen aurreikusten. Goizean euria egin bazuen ere, lainoek errespetatu egin zuten hitzordua: "Futbol eskolakoak bakarrik kontaktzen baditugu, 120 neska-mutiko dira, pentsa... Eta horiek guztiak kudeatzeko entrenatzaile eta koordinatzaile talde sendoa behar da. Bada, halakoetan konturatzen zara klubaren atzean zenbat jende dagoen lanean...".



Ohorezko erregional mailako taldea. X.U.



Leintz Arizmendiko kadete mailako taldeetako bat; bi talde dituzte. X.U.



Talde erretratua atera aurreko une bat. X.U.

# Liburuetatik harago doan kalitatezko ekintza sorta

Arrasateko Udal Bibliotekak prest du urriaren 24an ospatu ohi den Bibliotekaren Egunaren bueltako egitaraua. Aurten, lau ekitaldi programatu dituzte, adin tarte guztiei begira eta hainbat euskarri kontuan hartuta. Hilaren 20an egingo dute lehena

## Hasier Larrea ARRASATE

Gaur egungo bibliotekak ez dira soilik liburu-tenpluak, hainbat euskarri, hala-nola musikak eta zinemak, osatzen baitute liburutegi publikoen ekosistema. Eta, noski, erabiltzaileek. "Batzuek ikasleen guneak direla uste duten arren, herritar orori zerbitzua ematea dute helburu, zerbitzu unibertsala baita", adierazi dute Kulturateko Udal Bibliotekako langileek. Filosofia horrekin, eta aldaketetara irekita, mimo prestatu dituzte, urtero legez, Bibliotekaren Nazioarteko Egunaren bueltako ekitaldiak.

## Guztientzako ekimenak

Hala, hilaren 20an, 18:00etan, irekiko du egitaraua Ixabel Agirresarobe ipuin kontalariak, Santa Marinako bibliotekan. Euskal Herrian aspalditik errota dagoen Gau Beltzarekin lotutako istorio eta ipuinak kontatuko dizkie 6 urtetik gorako haurrei.

Hurrengo egunean eta ordu berean, Kulturaten, 4 urtetik gorakoei zuzenduko zaizkie Nerea Ariznabarreta eta Mariano Hurtado artistak, *Ezberdin bezain eder* ikuskizunean –sarrerak agortuta daude–. Askotariko musika tresnak erabilita, "emozioak



Udal Bibliotekako langileak, Kulturateko liburutegian, kartela erakusten. H.L.

## DOAKOAK DIRA, ETA SANTA MARINAKOAN, 'ARRASATE.EUS'-EN BIDEZ KOMENI DA IZENA EMATEA

ernaldu, begirada zabaldu eta aniztasuna laguntzat hartzeko istorioak izango dituzte hizpide.

Emanaldiak bukatzeko, helduentzako *Txori kantazale*, *Xabier Leteren ildoan* errezitaldia egingo dute Alex Gurrutxagak

eta Joana Otxoa de Alaizak hilaren 28an, 18:00etan, Kulturaten. Sarrera libreko saio horretan, pianoak gidatuta, kantautore oartzuarraren unibertso poetikoan murgilduko dira, "kantariak bere piezekin zer esan nahi zigun" galdetzeko asmoz.

Ikasturtean zehar jarduera gehiago antolatzen dituzte Bibliotekari; udaberriko Liburuaren Egunaren bueltakoak, esaterako. Irakurketa sustatzeko aurrekontuari "bultzada" ematea ere gustatuko litzaieke, "egitasmo politak" antolatzeko.


## 'Go!azen 9.0' denboraldi berria Amaian aurrestreinatuko dute

Telesail arrakastatsuko aktoreak hilaren 29an etorriko dira; gaur jarri dituzte doako sarrerak 'arrasate.eus'-en

## H.L. ARRASATE

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Arrasateko Udalaren arteko elkarlanari esker, doako emanaldi berezia eskainiko dute ETB1en emititzen den *Go!azen* telesaileko aktoreek. Urriko azken zapatuan izango da hitzordua, eta ostiral honetan, hilak 14, eskeratu ahalko dira sarrerak *arrasate.eus* atarian, 10:00etatik aurrera. Eskari bakoitzeko gehienez lau sarrera banatuko dituzte, eta, guztira, 644 laguntzako tokia egongo da Amaian.

Berataratzen diren neska-mutilek aktoreekin aurrez aurre egoteko aukera izango dute. 17:00etan iritsiko dira protagonistak, eta 17:30etik aurrera pare bat ikuskizun eskainiko dute oholtza gainean. Ostean, telesailaren bederatzigarren denboraldiko lehenengo kapitulua proiektatuko dute, eta, bukatze-



Go!azen-eko Markel eta Enara. GOIENA

ko, jarraitzaileek *photocall* eremuan argazkiak atera ahalko dituzte aktoreekin. Basakabiko abentura berriak azarotik aurrera egongo dira ikusgai ETB1en. Hala, arrasatearrek primizian izango dute lehen kapituluaren berri.

## Jules Vernerren obra famatua haurrentzat taularatua bihar

Glu Glu antzerki konpainiak, ohikoa duen tonu umoretsu eta musikalarrekin, *Munduari bira 80 egunean* eleberrian oinarritutako moldaketa librea eraman go du bihar, zapatua, 17:00etan hasita, Amaia antzokiko oholtzara. Antzezlanak 3 eta 9 urte arteko neska-mutientzako dago bereziki gomendatuta. Sarrerak salgai daude *arrasate.eus*-en.

## Tatxo Telladok berak idatzitako poema-liburua aurkeztuko du

Datorren astelehenean, urriak 17, Juan Antonio Tatxo Tellado arrasatearrak *40 poemas encerrados en su propio encierro* idatzitako lana aurkeztuko du Kulturateko areto nagusian, arratsaldeko zazpitan hasita. 2020ko konfinamendua ardatz, amorru, haserre eta ezkortasunean oinarritutako gogoetak poesiara eraman ditu *Tatxo*-k.

## Bigarren eskuko liburu azoka

Amerika elkartearen eskutik dator azken ekitaldia. Hilaren 24tik 28ra 17:00etatik 20:00etara egongo dira borondatezko lana egiten Kulturateko sarreraren kanpoaldean, baita hilaren 29an –zapatua–, 11:00etatik 13:00etara. Hala, ekainean egin zuten jarduera solidario honi jarraipena emango diote, "arrakastatsua" izan baitzen.



Joan den ekaineko lehen asteburuko liburu azoka solidarioa. GOIENA

## Udazkeneko argazki lehiaketa abiatu du Artgazki elkarteak

Zortzigarren aldiz antolatu dute udazkenarekin zerikusia duten argazkien lehiaketa. Aurten, berrikuntza bezala, mundu osoan barrena ateratako irudiak aurkeztu ahalko dira, eta egileek argazkiak editatzeko askatasun handiagoa izango dute. Azaroaren 30era arte egongo da parte hartzea zabalik, *lehiaketak@artgazki.org* helbidearen bidez.

## Elektronika eta 80ko soinuak eroango ditu Felinek Koolturrera

Bermeo eta Gernika aldekoak dira Feline taldekoak, Audience, Zuloak eta Puro Odio bandetan aritutakoak. Elkarrekin kalera-tu duten lehen EPa aurkeztuko dute gaztetxean, datorren egunean, 22:00etan hasita. Post-punk, glam, garage, punk eta pop estiloak uztartzen dituzte piano elektrikoaren protagonismo bereziarekin.

# Ipurtotz azpiko pistetan ibiltzea debekatu dute

Arriola eta Arrikoiti errepidetik 150 metro ingurura dagoen lur-jausia da arrazoa. "Egoera larria" dela dio Udalak, eta, udazkenarekin batera euria hasi duenez, arriskua areagotu egin daitekeela uste dute. Ura agenziaren erantzunaren zain daude

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO Urtarrilean lur-jausi handi bat gertatu zen Ipurtotz azpian, Arriola eta Arrikoiti errepidetik 150 bat metrora. Lur-jausi handia da, bere egunean lur asko mugitu zuena. Bada, konponbiderik eman ez zaionez eta orain euria hasi duenez, arriskua asko areagotu dela iritzita Ipurtotz azpiko pistetan ibiltzea debekatu du Udalak.

Udala arazoarekin kezkatuta dago eta konponbide bila hainbat ate jo ditu. "Txosten geologikoa enkargatu genuen hasierako ebaluazioa egiteko eta baita uztailen egoerak nola eboluzionatu zuen ikusteko", dio alkateak, ohar bidez. Txosten horien berri Ura agentzian eta Aldundiko Mendi Sailean eman zutela diote. "Momentu honetan, Uraren erantzunaren zain gaudela, lur barruko ur eta errekek sortutako arazoa delako", diote.

## Goiko zatiaren beldur

Dagoeneko hiru txosten geologikoa enkargatu ditu Udalak. "Horien arabera, bi gauza daude: batetik, Arriola eta Etxaguen artean lur multzo bat geratu da, urtarrilean jausi zena. Presa moduko bat sortu da, lurrez, pinuz... betea. Bestetik, goiko partean lur zati handi bat dago,



Ipurtotz ingurua. A.E.G.

## GOIKO ZATIAN DAGOEN LUR ZATIA JAUSTEKO ARRISKUA DAGOELAKO EZARRI DUTE DEBEKUA

solte geratu dena baina oraindik jausi ez dena. Bada, oraingo euriekin zati hori jausteko arriskua dago", azaldu du Ingurumen zinegotzi Santi Balantzategik. Hain zuzen, arrisku hori ikusita erabaki dute pistetan ibiltze-

ko debekua jartzea: "Saihestu behar dena da istripu larriagoa gertatzea. Jende asko ibiltzen den lekua da: mendira joateko, edo lur orotariko ibilgailuekin... jendea ez dadila hor ibili; ez, behintzat, euri egunetan". Ez dakite goiko lur zatia jausiko den edo ez; eta jausiz gero ere noraino iritsiko litzatekeen. Hori horrela, arazoa handitzen bada bestelako neurri batzuk hartuko litzukete.

Baso inguruak zaintze aldera, urtero moduan, hainbat lan egingo ditu Udalak udazkenean.



NIRE USTEZ

MARKEL ARRIOLABENGOA

## Kolokan

Cadizko Unibertsitateak eginiko ikerketa baten arabera, hegaztien bidez garraiatzen diren hazien %86 pase garaian hedatzen dira.

Hau da, udazken-neguko migrazioan. Birigarro, zozo, durdula eta gainerakoek bidean jaten dituzten fruituen haziak zirinekin botatzean; hegoalderago dauden eremuetan askatzen dituzte. Horrela, espezieen dispersio prozesua errazten da eta habitaten aberastasuna handitzen da.

Dinamika eder honek, aldiz, badu baldintzatzaile handi bat: bogan dagoen klima larrialdia. Izan ere, klima ere migrazio fasean dago, baina kontrako noranzkoan, kontrapasan. Hau da, hegoaldeko klima lehorra iparraldeko klima hezearen lekua hartzen ari da. Bistakoa da. Aurtengo udan nabari antzeman da basoetan ur behar handieneko espezieen kontra okertu dela balantza. Añebarrin arteak ere gorritu dira!

Ezbairik gabe, epe laburrak ari finenaren gainean jarriko ditu ekosistemen biziraupenerako dinamika egonkortuenak ere.



ARAMAILUR KT

## Ezkurak batzen ibili ziren

Aramailur kontsumo taldeak antolatuta, ezkur-jana egin zuten eguaztanean. Lehenengo, ezkurak batu zituzten: 25 bat lagun elkartu ziren, haur eta nagusi, eta "ezkur mordo eta ederrak" batu zituzten. Ondoren, Azkoagara joan ziren ezkur-janaria dastatzera. Bazkaria egin zuten han bildu zirenek.

## Udazkenean egingo diren baso-lanak

| Lanen xehetasunak   | Enpresa                | Kopurua     |
|---|------------------------|-------------|
| Ibarra-Azkoaga-Mariarka-Ibarra ibilbidearen seinalizazioa | Arteman eta Talaia     | 6.379,68 €  |
| Kurtzetagain, Karikogain eta Besaiden garbiketarako lanak | Beitia Naturlanak      | 4.892,47 €  |
| Besaiden itxiturak kentzea                                | Beitia Naturlanak      | 2.726,90 €  |
| Arrabutu udal mendian itxiturak kentzea                   | Beitia Naturlanak      | 2.136,75 €  |
| Lurgorin landaketak eta itxiturak                         | Beitia Naturlanak      | 16.445,00 € |
| Gureia-Kruzeta errege bidea konpontzea                    | Escavaciones Arrasate  | 15.743,31 € |
| Aldapan paso kanadarra                                    | Julen Agirre eta Arbel | 10.787,15 € |

OHARRA: GASTUAK BEZA BARNE DUTELA JASO DIRA.

ITURRIA: ARAMAIOKO UDALA

## Orixolek antolatuta, Pirinioetara joango dira gaur, barikua

Gran Facha eta Musalesera irteera egingo dute asteburuan, Orixol Mendizale Elkarteak antolatuta. Gaur irtengo dira, 18:30ean, Aramaioko frontoitik; eta bueltako autobusa izango dute domekan, 16:00etan, Baños de Panticosan. Gaurko gaua Piedrafita de Jacan pasako dute eta biharkoa, Respomusoko aterpetxean.

## Gaur eta domekan pilota partiduak jokatu dituzte

San Martin pilota txapelketa martxa onean doa. Eguaztanean, urriaren 12an, jokatu zituzten partidu batzuk; eta gaur eta domekan jarraipena izango du txapelketak. Ohikoa den moduan, 18:15ean izango dira gaurko partiduak. Asteburu guztietan izango dira lehiak, urriaren 28an eta 30ean izan ezik -Erretiratuen Egunagatik-.



Arrillaga, ezkerretik lehenengoa; Azkargorta, ezkerretik hirugarrena. ARANTZAZU EZKIBEL GALDOS

# Rikardo Azkargortaren margolana, onena

Eguaztenean jokatu zuten 31. kaleko margo lehiaketa Aramaion. 39 margolari aurkeztu ziren lehiaketara. Herritar onenaren saria Jose G. Arrillagak irabazi zuen eta gazte onenarena, Ines Mugarrak. Margolanak Sastiñan egongo dira ikusgai

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO Etxaguen auzoan egindako margolanak eman dio Aramaio margo lehiaketako sari nagusia Rikardo Azkargorta bergararrari. Ukuilu baten barruan egindako margolana da, baserriar bat agertzen dena. "Pozik nago emaitzarekin. Eguraldi txarra iragarrita zegoenez, barruko zerbaitegitea pentsatuta neukan. Orain dela bi urte, baserria kanpotik margotu nuen, eta, barrua ikusi nuenez, pentsatu nuen hurrengo baterako leku ona izan zitekeela", dio Azkargortak.

Bolada ona darama margolari bergararrak, Aramaio sariak gain, aurten beste hainbat irabazi ditu eta: "Oñatin ere lortu nuen saria eta aurten sari zente hartu ditut".

## Parte-hartze polita

39 margolari aurkeztu ziren lehiaketara; horietatik lau aramaiorrek eta hemezortzi, aramaior gazteak. "Niretako oso garrantzitsua da herrikoak 18

gazte izan direla. Oso lan politak egon dira. Kanpotik etorri direnak maila handiko margolariak dira", azaldu du Ana Martiarena Kultura zinegotziak.

Epaimahai lanak egin dituzte Richard Perez Francok –presidentea–, Alberto Belerdik, Nacho Gonzalez Calvok eta Eduardo Perezek Aramaio sariketara etortzen", dio zinegotziak. Martiarenak nabarmendu du Aramaio margolanetara ekartzeko moduko txoko politak dituela, eta margolariek asko estimatzen dutela hori.

## Herritar onena: Arrillaga

Margo lehiaketako bigarren saria irabazi du Carlos Espigak

**31 URTE DAROA RICHARD PEREZ FRANCOK ARAMAIOKO SARIKETAKO EPAIMAHAI LANETAN**

eta hirugarrena Iker Mugarrak. Herritar onenaren saria, aldiz, Jose G. Arrillagak irabazi du: "Oso pozik nago emaitzarekin. Margolana egiteko teknika mistoa erabili dut, grafitoa oinarri duena. Koadroari jarri diot izena *Egun euritsua Aramaion, auto barruan*". Orain dela hilabete gutxi etorri zen Madrildik Aramaio bizi izatera Arrillaga.

Gaztetxoaren kategorian, irabazlea Ines Mugarra Cilla izan da; bigarren saria, Izar Alberdi Trejok lortu du; eta hirugarrena, Lide Abarrategi Txintxurretak.

## Erakusketa Sastiñan

Aste bukaera osoan ikusgai egongo dira 31. kaleko margo lehiaketara aurkeztutako margolanak Sastiñan. Gaur, 18:00etatik 19:30era egongo dira atean zabalik; eta, zapatuan eta domekan, 12:00etatik 14:00etara. Saria jaso duten margolanek gain, beste guztiak ikusteko aukera ere egongo da.



Nerea Ibarzabal eta Gorka Pagonabarraga. BERTSOZALE ELKARTEA

## Puntako bertsoariekin hasiko dute ikasturtea bertso eskolan

Urriaren 21ean, barikua, kurtso hasierako saioa egingo dute Ibarzabalekin eta Pagonabarragarekin, 19:30ean

### A.E.G. ARAMAIO

Astelehenean, hilaren 10ean, hasi zituzten eskolak Aramaio-xoko Bertso Eskolan; hala ere, ikasturteari hasiera ofizialki emango diote urriaren 21ean. Bertso saioa egingo dute Sastiñan, puntako bi bertsoariekin: Nerea Ibarzabal eta Gorka Pagonabarraga.

Saioa 19:30ean hasiko da eta sarrera librean izango da, edukiera bete arte.

### Bertsolari ezagunak

Nerea Ibarzabal Bertsoari Txapelketa Nagusian nola dabilen ikusita, aukeraketa ona izan dela uste du Bertso Eskolako kide Manex Agirrek: "Ekarri izan dugu Nerea, baina gogoz geunden berriro ere ekartzeko. Berriro ekartzea ez dago sobran". Gorka Pagonabarraga durangarra izena hartzen dabilen bertsoaria dela dio Agirrek, eta,

horrez gain, Aramaio gazteekin harreman duen bertsoaria dela, "oso gertukoa".

### Lau talde dituen eskola

Ikasturtea lau taldeekin hasi dute Bertso Eskolan. Horietatik bi talde gaztetxoekin osatutakoa da, 13-16 urte bitartekoekin. Talde baten hiru lagun daude eta bestean bost lagun. Hirugarren taldea 18 urtetik gorako gazteek osatzen dute, eta hiru lagun daude talde horretan. Azkenik, helduen taldea dago. "Jende pila bat gabiltza talde horretan; hala ere, ohikoena izaten da 10 bat lagun elkartzea. Martitzenetan izaten dira saioak", dio Manex Agirrek.

Irakasle lanetan Peru Abarrategi eta Martin Abarrategi dabilen: Peruk gaztetxoaren talde bat eta gazteena eramaten du eta Martinek, gaztetxoaren beste taldea.

## Kaleko paisaian eraingo dute Euskaraldian

Euskaraldia antolatzeke bilera irekia egin zuten astelehenean udaletxean. Alaiak erretiratuen taldeko kideak, Itur-Zuri elkarretakoak, Txirritola elkarretakoak eta herritarrek batu ziren. "Informazioa helarazteko" balio izan zuela dio Euskara zinegotzi Oihana Amezkua. "Gogorazi genuen Euskaraldia aurretik egin beharreko izen-ematea",

dio. Euskaraldiko egitaraua osatzeko elkarten eta herriko eragileen ekarpenak jasoko dituzte; aurten, gainera, kaleak apaintzeari eta hartzeari emango zaio garrantzia. "Paisaian eragin nahi dugu", dio. Urriaren 29an egingo den Erretiratuen Eguneko azokan argazki erraldoia ateratzeko deialdia egitea proposatuko dute. Horrez gain, sasoi honetan bai Udalak eta baita elkarteek antolatzen dituzten ekintzak Euskaraldiaren barruan kokatu nahi dituzte.

# Film emanaldiak abendu inguruan iritsiko dira

Zinema zerbitzuaren esleipena atzeratu egin da eta astelehen honetan argitaratu dute bigarren deialdia; oraingoan epeak estutu egin dituztela azaldu du alkateak, abendurako martxan izateko. EH Bilduk eskatu du garaiz abiaraztea halako prozesuak

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Zinema denboraldia azaroan hasi izan bada ere beste urte batzuetan, aurten beranduago iritsiko da hori. Zerbitzuaren lizitazioa hutsik geratu zen iraillean, akats bat tarteko, eta astelehenean bigarren deialdia argitaratu zuten. Hala ere, Unai Elkoro alkateak uste du abendurako martxan izango dela.



Arkupeko Zaraia aretoa. GOIENA

## EH Bilduren eskaera

EH Bilduk salatu du, hain zuzen ere, zinema zerbitzuaren lizitazioa hutsik geratu izana eta horrek dakarren atzerapena; haien esanetan, urtarrilerako arte, behintzat, ez da abian izango.

Zerbitzuak lizitatu eta kontratatu arteko epea "bi eta hiru hilabete artekoa" izaten dela jakinik, prozesua garaiz abiaraztea oso garrantzitsua dela adierazi dute, azken unera arte itxoin gabe: "Ez dakigu baliabide falta den edo antolaketa falta, baina onartezina da zinema zerbitzua

martxan ez jartzea". Eta gaineratu dute gero eta herritar gehiagoren kezak jasotzen dabiltzala: "Udalaren funtzionamenduz kezaka datoz, eta zerbait aldatzeko beharra dagoela uste dugu".

## Bigarren deialdia, urgentziaz

Lehenengo lizitazioa hutsik geratu izanaren arrazoiak azaldu ditu alkateak: "Iraillean zabaldu genituen pleguak zerbitzua esleitzeko asmoarekin eta eskaintza ekonomikoa ez zegoen ondo jasota. Enpresa bakarra aurkez-

tu zen deialdira eta ez zuen asmatu". Hori bera beste zerbitzuetan esleipenarekin ere gertatu dela gaineratu du.

Horren harira, "lehenetsuna" eman diote gaiari, eta astelehenean, urriaren 10ean, bigarren deialdia argitaratu zuten: "Urgentziaz sartu dugu eta epeak estutu egin ditugu, prozesua bizkortzeko". Hala, azaroan ez baina abenduan martxan izatea espero du: "Esleituta egongo da ordurako, seguru, eta abenduan bertan zinema abian izango da".



ALEko ikasleak tentsioa hartzeko materialarekin, azokan. ARETXABALETA LANBIDE ESKOLA

## Sentsibilizazio kanpaina jarri du abian Yaakarek ikastetxeetan

Materialez betetako edukiontzia Senegalera bidaltzeko helburuarekin ekindako diru-bilketaren barruan dago

### Goiena komunitatea

Yaakar elkarte / ARETXABALETA

Senegali laguntzeko lanean aritzen den Yaakar elkarteak sentsibilizazio kanpaina hasi du Debagoieneko eskoletan. Ikasleei eta gurasoei zuzendutako kanpaina da, gure proiektuaren eta helburuen berri emateko. Eta jasotzen ari garen erantzuna oso positiboa izaten dabil.

Aretxabaleko Lanbide Eskolako ikasleei hitzaldi txiki bat eman genien. Irakasleek oso ondo hartu gintuzten, eta soldadurako ikasleek protesiak, aulki bereziak... egiteko lankidetzak adostu genuen.

Urriaren 10ean, ALEko Eri-zaintzako Laguntzaile ikasleak Aretxabaleko merkatuan tentsioa hartzen aritu ziren Yaakarekin elkarlanean; herritarren artean oso harrera ona izan zuen. Eta urriaren 11n, tortilla batzuk egin zituzten dirua batzeko.

### Oso eskertuta

Arizmendi Ikastolak ere babestu du gure proiektua, hori partekatuz eta dohaintza eskatuz. Kurtzabarri eskolak ere lagundu digu mahai, aulki eta eskolako materialarekin eta gurasoek emandako arropa eta jostailuekin. Arrasateko eskolatik ere mahaiak eta aulkiak jasoko ditugu.

Mondragon Unibertsitateko Aretxabaleko campusarekin lankidetzak abiaraziko dugu, komunikazio-plan bat garatzeko ikasleekin. Elkarteak, gainera, bidaia batean pentsatzen ari da, eta, horretarako, auzolandegi horiei forma emateko ideiak eskatzen ari gara.

Yaakarek eskertu nahi ditu proiektuari erakutsitako inplikazioa eta gure proposamenak izan duen harrera ona. Espero dugu lankidetzak hori denboran luzatzea, ideiak sortzen jarraitzea eta proiektu komunitatearen parte izatea.

## Hipnosia taldearen emanaldia

Zaraia aretoko oholtzak Hipnosia taldeari egingo dio lekua gaur, egubakoitza, 20:00etan –sarrerak, 5 euro–. Talde bizkaitarra 2021ean sortu zen, baina eskarmentu handiko musikariak batu dira horren bueltan; horien artean daude Juan Carlos Calvo eta Emilio Vazquez, Leizarra musika eskolako baxu eta gitarra irakasleak, eta azken hori Akerbeltz taldeko kidea. Taldea osatzen dute Naia Fernandez eta Miriam Merino musikariek eta Alain Gutierrez abeslariak, aurretik Sutan taldean jardundakoak.

Rock doinuak lantzen dituzte, ukitu progresibo eta elektronikoeekin, eta *Hipnosia*



Hipnosia talde bizkaitarra. HIPNOSIA

izeneko lehen diskoa aurkeztuko dute. Hamaika kanturekin osatutako lana da eta horien artean dago Mikel Laboaren *Ihesa zilegi balitz* kantu ezagunaren bertsioa. Gogotsu

daude aretxabaletarren aurrean jarduteko, eta bertara gonbidatu dituzte herritarrek: "Indar handiko zuzeneko eskainiko dugu. Etor zaitez rockarekin gozatzerara!".

## Rap kantarien emanaldia gaur Durana kalean

Urban musika lehiaketa deitu zuten nerabeendako maiatz inguruan Debagoieneko euskara elkarteek, udalen laguntzarekin. Lehiaketa hartan epaile lanak egingo dira gaur, 21:00etan, Durana kalean. Oihan Uribarren *Fane*, Martin Errasti *Tata*, Iker Hiriart *HRT* eta Xady Aiastui *K-PO* elkartuko dira.

## Ibilgailu klasikoaren topaketa bihar Herriko Plazan

25 urtetik gorako ibilgailuak ikusgai izango dira bihar, zapa-tua, Herriko Plazan, eta oraingoan ere ikusmina sortuko du herritarrengan. 09:00 bueltan egingo diete harrera, eta 11:00etan, ibilaldi bat egitera joango dira. Eguerdiko parterako itzuliko dira eta gidariek mokatutxo bat hartuko dute; 13:00etan, opariak zozketatuko dituzte.



# "Neure estiloa izan dut beti, eta orain ere bai"

MARTXE ARANA MARGOLARIA

Donostian bizi den artista aretxabaletarrak hamabi bat olio-lan izango ditu ikusgai urriaren 17tik 25era bitartean Arkupeko erakusketa aretoan

**Mirari Altube** ARETXABAETA

Eskarmentu handiko margolaria da Martxe Arana (Aretxabaleta, 1943). Eta astelehenean erakusketa irekiko du Arkupen –astelehenetik egubakoitzera 11:00-13:00 eta 18:00-20:00 eta zapatuan 11:00-13:00–.

**Zelako margolanak ekarriko dituzu?**

Gehienak paisaiak izango dira. Baina lan berriak ere badituzte, pinturarekiko dudak ikuspegia aldatu egin zaidalako, eta halako pare bat ere jarriko ditut. Hamabi bat izango dira; horietatik lau, tamaina handikoak.

**Kolorea eta argitasuna duzue gustuko, ezta?**

Bai, horiek dira nire lanen ezaugarriak, eta gero, neure erara margotzea. Askotan, ahaztu egiten zait non nagoen ere, eta margotzen dut neuk ikusten dudana, neure buruan dagoena.

**Hortaz, paisaia dagoenetan ez duzue eramaten mihisera?**

Ez, neure sentimenduak ere islatzen ditut lanean. **Eta udako paisaiak nahiago?** Udak, udazkenak eta udaberriak nahiago ditut, bai, koloreak ditut gustuko eta; neguko tristura ez dut atsegin. Gainera, mendi ingurua kostaldea baino gehiago landu izan dut.

**Aretxabaletara lehenengoz ekarriko duzue erakusketa bat?**



Margolari aretxabaletarra. MARTXE ARANA

Ez. Laboral Kutxaren eraikinean jarri nuen nire lehen erakusketa orain dela 40 bat urte, edo, beharbada, gehiago.

**Urte asko pasatu dira ordutik; ilustriorik egiten dizue berriro etxera itzultzeak?**

Bai, noski! Egia da urduritasun apur bat ere badudala, ingurukoek zorrotzago epaituko ote nauten-edo beldurtxo hori badut. **Diote inor ez dela profeta bere herrian...**

Hori diote, bai. Herritarrek zer dioten entzun beharko dut, baina oso pozik nago.

**Urte asko daramatzazu pintzel eta mihise artean, ezta?**

Bai, bai; oso gazte hasi nintzen, eta nire afizioa eta lana uztartu izan ditut beti.

**Horrek bete egiten zaitu?**

Noski! Gaur egun ezin naiz bizi margotu barik.

**Zein unetan zaude orain?**

Momentu onean. Paisaietatik harantzago joan eta beste proba batzuk egiten nabil. Lehen, Arrasaten bizi nintzanean, adibidez, loreak egiten nituen asko, gautxe teknikarekin –inguruan lore asko nituelako edo–, eta gero, paisaietara eboluzionatu nuen. Denbora aurrera doa eta ez naiz lehengo; hortaz, beste bilakera bat izaten nabil orain.

**Olioarekin moldatzen zara ondo?**

Bai, baina akrilikoa baztertu barik, eta, esandako moduan, gautxearekin ere sasoi baten asko ibili nintzen.

**Autodidakta zara?**

Gaur egun ia ezin dela autodidakta izan uste dut, ikastaro asko egiten ditugulako; horregatik, influentzia asko ditut nik. Gainera, margolanez gain, grabatua eta serigrafia lantzen ditut. Horiek guztiak ikasi egiten dira; hortaz, autodidakta izatea ez da samurra. Hori bai, nik neure estiloa dut, beti izan dut, eta orain ere bai.

## EKKO proiektua aurkezteko bilerak gurasoendako

Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailako ikasleekin eta haien familiarekin EKKO proiektua garatuko da ikasturte honetan. Prebentzio-programa hau DBHko nerabeen artean antzemandako arriskuak kudeatzeko zailtasunei aurre egiteko jarri da martxan oraingoan, trebetasun sozialak, autoestimua, gatazken kudeaketa, erabakiak hartzeko moduak, eta pertsonen arteko harremanak landuz.

Proiektuaren berri emateko gurasoendako hitzaldi bat antolatu dute; urriaren 18an izango da komentuko kaperan: 18:00etan, euskaraz eta 19:00etan, gaztelaniaz. Izen aurrez eman behar da: [gazteria@aretxabaleta.eus](mailto:gazteria@aretxabaleta.eus).

## Komiki eta manga ikastarorako lekua dago oraindik

Manga komiki eta marrazketa teknikak jorratuko dituen ikastaroa antolatu du Kultura Sailak 14 urtetik gorakoentzat. Iñaki Martiarena *Mattin* ibilbide luzeko marrazkilaria jardungo du irakasle lanetan, eta ikasleek bi-lau orrialdeko komiki bat osatuko dute eta oinarriko kanon literarioa ezagutu.

Saioak urriaren 19an hasiko dituzte eta abenduaren 14ra bitartean egingo dira, eguaztentean, 18:00etatik 19:30era; guztira, 30 orduko ikastaroa da –euskaraz eta gaztelaniaz–. Izena emateko Arkupera jo behar da –prezioa da 85 euro– eta antolatzaileek jakinarazi dute oraindik badagoela lekua taldean.

## Adinekoen erorikoak prebenitzeko saioa urriaren 24an

AtxabaltaMugi egitasmoaren barruan, adinekoen erorikoak prebenitzeko tailerra antolatu dute urriaren 24rako –debalde–. 65 urtetik gorako pertsonen eta euren senide edo zaintzaileei bideratuta dago eta egun bakarreko saioa izango da; landuko dituzten gaien artean daude aholkuak, teleasistentzia eta etxez etxeko laguntza. Ibarra kiroldegian elkartuko dira parte-hartzaileak, 10:30etik 12:30era.

Interesatuak aurretik eman behar dute izena, osasun zentrorara deituta (943 71 19 59) edo udal Gizarte Zerbitzuetara: 943 71 18 62. Epea urriaren 21era arte dago zabalik –gehenez, 25 lagunendako lekua–.

## OHARRAK

### 'Paintball' jolasa

*Bixi* egitasmoaren barruan, 12 eta 17 urte arteko gazteek *paintball*-ean jardungo dute gaur, egubakoitza, Ibarra zelaian (17:00).

### Odol-ematea

Odola emateko dei egin dute; autobusa egongo da Durana kalean, hilaren 17an, astelehenean (16:45-20:00).

### Ipuin kontaketa

*Kontatutako eta kantatutako ipuinak* saioa eskainiko die 3 eta 5 urte bitarteko haurrei Ines Bengoa kontalaria hilaren 19an, liburutegiko Txiki Txokoan (17:00); izena aurretik eman behar da liburutegian bertan.



ORTODONTZIA IKUSEZINA

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

ZURE IRRIBARREA HOBETU AHAL IZANGO DUZU INORK IGARRI GABE.

DURANA KALEA 22 • ARETXABAETA • TEL.: 943 79 93 55



Eskoriatzako Euskaraldiaren hirugarren edizioan *hamabikoa* osatuko dutenak. IMANOL BELOKI

## Beste urrats bat egiteko 'hamabikoa', gertu

'Hitzez ekitego garaia' izenpean, Euskaraldiaren hirugarren edizioan izena emateko dei egingo du gaur Eskoriatzako Batzordeak. Horretarako aurkezpena egingo da gaur, egubakoitza; 'hamabikoa' aurkeztuko da eta musikaz borobilduko dute ekitaldia

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA  
Gaur, 19:00etan, Fernando Eskoriatza plazan egingo da Euskaraldiaren hirugarren edizioaren aurkezpena. Aurtengo ariketa sozialean parte hartzeko informazioa banatuko da, eta bide batez, izen-emateko aukera ezarriko dute. Gainera, aurtengo edizioan, Eskoriatzan bereizgarria izango den *hamabikoa* osatuko duten kideak ere aurkeztuko dituzte, eta Ireneren eta Peioren emanaldi akustikoa ere izango da.

**Euskararen erabileran jauzia**  
Euskaraldiaren hirugarren edizioa azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingo da, eta Eskoriatzan bereizitasunak izango dira. Izan ere, lehenengo edizioan *hamakakoa* osatu zuten Eskoriatzako Euskaraldia Batzordeko kideek *ahobizi*-ekin eta *belarriprest*-ekin, eta, ariketa honen espiritua pixka bat gehiago egitea denez, hamaika gehi bat, *hamabikoa*, osatuko dute aurtengo edizioan.

Hau da, euskararen aktibazioa bultzatzeko urratsa egingo duten herritar hauek ekimenaren enbaxadore izango dira Eskoriatzan, eta herritarren parte hartzea aktibatuzko lehen deia egingo dute. Hala, euskararen erabileran urratsak egiteko bidean, honako hauek izango dira *hamabikoa* osatuko dutenak: Mikel Ortueta, Alaitz Orueta, Alfredo Martins, Andoni Bengoa, Andoni Moto, Iria Fachal, Hodei Peciña, Maribi Carrillo, Susanna Caminals, Oihane Belategi, Arane Zubia, eta Julen Ezeiza. *Ahobizi* eta *belarriprest* rolak izango dituzte, eta hizkuntza perfil desberdineko eskoriatzarrak egongo dira: lehenengo aldiz parte hartu dutenak, uler-

**GAUR, EGUBAKOITZA, 19:00ETAN EGINGO DA AURKEZPEN EKITALDIA ETA IZEN-EMATE IREKIERA**

tu arren euskaraz hitz egiteko ohitura gutxi izanik eurei euskaraz egitea nahi dutenak, euskara ohiko harreman hizkuntza dutenak...

### Izena emateko modua

*Ahobizi* edo *belarriprest* rola hartu daiteke norbanako moduan Euskaraldian. *Ahobizi*-ek euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egiten dute une oro. Kideek euskaraz ulertzen ote duten ez dakitenean, lehen hitzak beti euskaraz egiten dituzte; euskaraz ulertzen badute, euskaraz jarraitzen dute. Batzuetan zaila izan arren, elkarrizketa elebidunetan ere euskarari eusten diote kideek ulertzen dutenean. *Belarriprest*-ek, berriz, aldiro erabakitzen dute euskaraz noiz eta norekin egin. Agian, beti ez dute euskaraz egingo ulertzen duten guztiekin, baina euskara dakitenean beraiei euskaraz hitz egitea nahi dute, eta horixe eskatzen diete modu esplizituan.



Fagor Automatioko Eskoriatzako plantako teilatua. TULANKIDE

## Teilatu fotovoltaikoa jarri du Fagor Automatiok Eskoriatzan

270 plaka fotovoltaiko jarri dituzte, orotara, eta 100 kW-koa da instalazioaren potentzia nominala

### I.B. ESKORIATZA

Energia berriztagarriak eta energiaren autosorkuntza erdiguenean, teilatu fotovoltaikoaren instalazioarekin jardun du azken hilabeteotan Fagor Automatiok. Guztira, 270 plaka fotovoltaiko jarri dituzte Eskoriatzako plantan, eta, horri esker, gaur-gaurkoz, batez beste, Eskoriatzako lantegiaren kontsumoaren %6,33 datorkio kooperatibari teilatu fotovoltaiko bidezko autosorkuntzatik.

Hain zuzen ere, urtean 138.820 kWh-ko sortze gaitasuna du instalazio berriak –2019. urtean, 2.191.389 kWh-koa izan zen lantegiaren urteko kontsumoa–. Fagor Taldearen asmoa da ekinbidea beste kooperatiba batzuetara zabaltzea, eta dagoeneko badabil aukera berriak aztertzen. Honela azaldu du Aritz Otxandiano Kanpo Fagor Taldeko Iraunkortasun arduradunak:

"Iraunkortasunaren aldeko jardunean dihardu Fagor Taldeak. Horren baitan, hainbaten artean energia berriztagarrietan eta autosorkuntzan sakontzen gabiltza. Urratsak egiten segitu beharra dugu, ekinbide berriak abiarazten, datozkigun aukerak aztertzen, aukera berriak bilatzen... Gaur egungo teilatu fotovoltaikoek ez dituzte gure beharrak haien osotasunean aseko, baina, ibilbide honetan, urrats bakoitza da beharrezko".

### Autosorkuntzaren abantailak

Autosorkuntzarako instalazioen aldeko ekinbideetan, adituek hainbat abantaila aipatzen dituzte: faktura elektrikoaren, karbono aztarnaren eta merkatu prezioekiko dependentziaren murrizteak; zero kilometroko energia berriztagarria eskuratzeara; eta erantzukizun sozial korporatiboan sakontzen segitzea.

## OHARRAK

### Elorretako auzoko jaiak lehenengoz

Urriaren 22an ospatuko dituzte herrigunetik Bolibar elizate bitarteko auzoko jaiak. Haur jolasak, ardo dastaketa, bazkaria, Nhil taldearen emanaldi akustikoa eta DJ Motoren saioa izango dira. Gainera, txosna jarriko da 13:00etatik aurrera.

### Hitzaldia: 'Migratzaileak herritartzeko euskara behar du?'

Julen Zabala EHUKo irakasleak eskainiko duen saioa urriaren 19an izango da, 18:30ean, kultura etxean. Kanpotik datozenak euskarara erakartzea, ulertzen ez dutenei gaztelaraz egitea... Halakoak izango ditu berbagai.

# Gellaon izango da Ezkurtxo, jolasteko gertu

Azken bi urteetan Jose Arana gunean ospatu arren, aurten Gellaon ospatuko dute Ezkurtxo eguna. Autobus zerbitzua jarriko dute hara joateko, baina inguruak ezagutu nahi dituenak Apotzagara autobusez igo eta oinez joateko aukera ere izango du

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA Zapatu honetan emango diote udazkenari ongietorria Arizmendiko Jose Arana guneko haurrek, aurten Gellaon elizatean ospatuko duten Ezkurtxo egunarekin. Askotariko jolasak izango dira bertaratzen direnentzat, eta Eskoriatzako elizateetako bat ezagutzeko aukera izango da.

## Era askotako jolasak

Aurten, Ezkurtxo ospatzen duten 25. edizioa izango litzateke, baina kontuan hartu behar da azken bi urteetan ikastetxean ospatu dutela jaiak. Beraz, elizate batean ospatzen duten 23. edizioa izango da aurtengoa.

Urtero, urriko hirugarren asteburuan antolatzen duten jaiak da Ezkurtxo; ekinaldi bakoitzean Eskoriatzako elizate batean. Aurten, Gellaon batuko dira, eta bertan hainbat jolas egingo dituzte, tartean, antzinakoak, eta ohiturari jarraituz ipuin kontaketa eta txokolate-jana ere izango dira. "Goitibeherak, tiragomak, ezkurtxekin jolasak, bolo-jokoa, soka-saltoa... izango ditugu, eta baita Ezkurtxoren maskarak margotu ere. Horrez gain, euskara eta irakurzaletasuna sustatzeko, Maider Alcelay ipuin kontalari arrasatearra izango



lax, Mendiola elizatean Ezkurtxorekin jolasean. IMANOL SORIANO

dugu, eta baita klasikoa den txokolate-jana musikaz alaiturik", adierazi du Lierni Altunak, Jose Arana guneko irakasleak.

## Elizate bakoitza, mundu bat

Altunak gaineratu duenez, Gellaon ez da ibilaldirik egingo, elizatea txikia delako. Hala ere, Apotzagatik Gellaorako bidea ezagutzeko aukera izango da. "Gellaora autobusez zuzenean joateko aukera izango da. Horretarako, 15:30ean Akeitako geltokian egon beharko dute interesdunek, eta ez dago aurrez

izenik eman beharrik. Horrez gain, aurretik, 15:00etan autobusa hartzen dutenak autobusak Apotzaga elizateraino eramango ditu, eta Gellaoraino oinez joateko aukera izango dute. 19:00 aldera bueltatuko gara Eskoriatzara".

## Autobusak erdigunetik

Pertsona asko batzen badira, joateko eta bueltatzeko autobusak hainbat bidaia egingo dituela jakinarazi dute antolatzaileek; irteera eremuetan puntualak izateko eskatu dute.

## 1959koen kintada

Joan den zapatuan, 1959. urtean jaiotako 100 eskoriatzarretik 28 elkartu ziren egun-pasa egiteko. Goizean elkartu ostean, Gure Ametsa jatetxera joan ziren, bapoz bazkaltzera "Urte honetan Barbie jaiotzen, eta baita Laboral Kutxa sortu ere. Hain zuzen ere, urte berean jaiotakoak elkartzeko aprobetxatu dugu", dio antolatzaileetako batek.



MIREN DIAZ DE GEREÑU



Gatz Egunaren aurkezpenean, Debagoieneko Mankomunitatean. IMANOL BELOKI

## Gatzaren Eguna, herriko urrezko produktuari omenaldi gisa

Urriaren 23an ospatuko da Gatzaren Eguna, eta aurtengo edizioa seigarrena izango da

### Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Urriaren 23an –datorren zapatuan– izango da, seigarren aldiz, Leintz Gatzagan Gatz Eguna, eta, hori horrela, antolatzaileek egitaraua aurkeztu zuten joan den eguaztenean.

Aurkezpen ekitaldia Debagoieneko Mankomunitateko egoitzan egin zuten, Arrasaten, eta han batu ziren Iker Goiria, Foru Aldundiko Turismo zuzendaria; Maite Anton, Debagoieneko Mankomunitateko lehendakaria; Aitor Larrañaga, Gatzagako Udaleko Garapenerako eta Turismo alorreko teknikaria; eta Beñat Agirreurreta, Gatzagako Udaleko Kultura teknikaria.

### Ondareari balioa

Aitor Larrañaga Leintz Gatzagako Udaleko Garapenerako eta Turismo alorreko teknikariak eman zuen Gatz Egunaren egitarauaren berri, eta Gatzagako ondareari balioa emateko aprobetxatu zuen: "Iturburu gazi bat dugu Leintz Gatzagan. Iturburu horrek gatzaren inguruko ekonomia bat sortu zuen, eta horrek ekarri zuen herriaren garapena; eta herriaren sorrera bera ere gatzak ekarri du. Gainera, gatz kultura bat hedatu da, eta, orain dela 30 urte inguru, kultura horren guztiaren aztarna guztiei balioa ematen hasi ziren. Gaur egun, gatz ekoizpena bertan egiten dugu, zero kilometrokoa, Eusko Label kalitatea duena, eta, horrekin batera, zabalkundea emateko, Gatzaren Eguna ere antolatzen hasi ginen".

### Egitarauaren denetarik

Gatz Eguna gatzari omenaldi bat egitea moduko bat dela esanez, egitaraua honako hau izango da: 11:00etatik 14:30era, gatzaren eta produktu ekologikoen azoka; 11:00etatik 14:00etara, zurezko plaza jokoak; 10:00etan, mendi ibilaldi gidatuak egingo dituzte, eta bi aukera izango dira: *Gatz kulturak eman digun paisaia eta bioaniztasuna eta Gatzaga mendebaldeko pagadietan zehar*; 11:00etan, Baso Bainua; 12:00etan, Jakoba Errekondo. Landare-kontsultategia. Horrez gain, sukaldaritza tailerra izango da haurrentzako, eta baita mintegi ekologikoa. Bisita gidatuak eta gatz-xaboiak egiteko tailerrak, berriz, Gatz Museoa izango dira.

### Eskerrak laguntzaileei

Beñat Agirreurretak, Gatzagako Udaleko Kultura teknikariak, berriz, Gatzaren Egunaren baitan antolakuntzan aritu diren guztiei eskerrak emateko aprobetxatu zuen. "Herriar moduan eskerrak eman nahi dizkiet prozesu luze honetan lanean aritu diren guztiei. Baita bertako elkarte eta eragileei, eta Aldundiari, Mankomunitateari, Biolurri, Errez kooperatibari...".

**GATZ MUSEOAN BISITA GIDATUAK ETA GATZ-XABOIAK EGITEKO TAILERRAK IZANGO DIRA**

AGINTALDI AMAIERAKO ELKARRIZKETAK

# "Anbizio handiagoko antolakuntza behar da"

**MIREN ARRATE GALLASTEGI** ANTZUOLAKO PSE-EEKO BOZERAMAILEA  
2015a ezker, bi agintaldi oso daramatza Miren Arrate Gallastegi eibartarrak Antzuolako PSE-EEKo bozeramaile; 2019tik, Legebiltzarreko parlamentaria ere bada

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

2023ko aurrekontuak onartzeaz dauden honetan, inbertsio berritzaileak jasoko dituen udal aurrekontuen aldeko apustua egiten duela alderdi sozialistak dio Miren Arrate Gallastegi bozeramaileak. Antzuolak aurrera egiteko aukerak eta dirua badietuela nabarmendu du.

**Agintaldiari buruzko zein balorazio egiten duzu?**

COVID-19ak eragindako pandemiagatik oso agintaldi konplexua izan da niretzako, bai pertsonalki eta baita politikoki ere. Alderdi sozialistak oso argi izan du egoera honen aurrean Udal Gobernuari laguntza eskaini behar ziola hainbat ideien bitartez. Baina suspertze lanetan jarri behar genuela uste genuenean, Putinek sustatutako Ukrainako gerrak eragindako krisi ekonomikoak gogor kolpatu gaitu. Energiaren garestitzeak eta erosketa-otzararen prezio igoerak kolpatu ditu herritarrak, bereziki. Nire bizitza politiko osoan ez dut egun bizi dugun moduko egoerarik bizi izan.

Eta egoera larri honen aurrean, EH Bilduren Udal Gobernuak ez du mailarik eman. Ez da soilik larrialdiei erantzutea kontua, uste dugu etorkizuneko ekonomia eraldaketarako lan egiteko aukera bat dela. Hau da, tokiko ekonomia bultzatzeko eta garapen industrialarekiko konpromisoa erakusteko aukera da. **Zeintzuk dira Antzuolako herriarendako alderdi sozialistak gauzatu dituen proiektuak?**

Gure lehentasunetako bat izan da diru publikoa, denona den dirua, gizarte arazoei erantzuna emateko bideratzea. Gure bizilagunen beharrei erantzutea, alegia. Alabaina, urtetik urtera, diru partida bat bideratzen da ETAKo presoek familiek kartzetletara egiten dituzten desplazamenduak aurre egiteko. Gainera, lagunak dituzten Udalbiltza eta Uema bezalako elkarteak diru publikoarekin laguntzen dira. Horiek ez dituzte helburu sozial eta ekonomikoak. Langabeziari aurre egin beharrean, edota Eguneko Zentroaren eta tutoretzapean dagoen etxebizitzetako babes zabalagoa eman beharrean, EH Bilduk bere helburu alderdikoa lehenesten du.



Miren Arrate Gallastegi, Antzuolako Mañarieta auzoan. GOIENA

## "BERDINTASUNA GURE OINARRIZKO PRINTZIPIOA DA, ETA PROIEKTU GUZTIEN ARDATZA"

**Nolakoa harremana izan duzu Udal Gobernuarekin?** Harreman pertsonala ona da, errespetuduna. Baina arlo politikoari dagokionez, EH Bilduk Udala nahieran erabiltzen du. Gainera, oposizioari ez zaio informazioa behar den moduan helarazten eta ez zaio lana errazten; behin eta berriro salatu dugu hori; izan ere, uste dugu oposizioaren lana mugatzen duela.

**Gizarte gaitan adostasuna lortu izan dute alderdi sozialistak eta Udal Gobernuak.**

Gure iritziz, gizarte politika kudeaketaren muina da. *Zertarako* egitea da garrantzitsua. Herritar xume eta zaurgarrien bizitza hobetzeko lanean aurkituko gaituzue. Horregatik, gai honetan adostasuna bilatzeko ahalegina egiten dugu. Helburua da antzuolarren gizarte politiken kalitatea handitzea zein hobetzea eta antzuolarren gizarte zerbitzuen etorkizuna bermatzea.

**Gogor defendatu duzue berdintasunaren alorra.**

Sozialistendako oinarriko printzipioa da berdintasuna. Gure proiektuetako esparru guztien ardatza da, oposizioan egon edo ez. Horregatik, genero indarkeriari aurre egiteko sentsibilizazio kanpaina bat egiteko diru-partida aurkeztu nuen aurtengo aurrekontuetarako. Zoritxarrez, ezker abertzaleak ez zuen antzuolarrendako beharrezkotzat jo.

**Antzuolarren bizi-kalitatea hobetzeko zein proposamen egin dituzue.** Garapen ekonomiko oinarri duten proiektuak sustatzea izan da gure apustua. Antzuolako industria eta enpresa garapenaren alde egin dugu, ekintzailatza, sortu berri diren sektoreak, industria sortzaileak eta eraldatzaileak, besteak beste, sustatuz.

**Zein iritzi duzu Trekutzeko parke eolikoaz?**

Garbi dudana da aldaketa klimatikoari aurre egiteko denbora agortzen ari zaigula. Sinistuta nago energia berritzailearen erabilera sustatu behar dela ohiko energia sistema aldatuta. Horregatik, PSE-EEK uste du horrelako parkeak egiterakoan kontuan izan behar dela inguruan izango duen ingurugiroaren inpaktua zein bertako balio naturalak. Haatik, gure eskualdean parke eoliko seguruak bermatu behar dira, gure eskualdearen balioei, ezaugarriari eta beharrei erantzuteko. Gizarte irizpideen baitan garatu behar dira, eta gure herritarren beharrei erantzun ere egin behar die; baita eskualdeko industriaren beharrei ere. Eta, nola ez, herritarrendako lanpostuak sortu behar ditu.

**2023ko aurrekontuak lantzen dihardu Gobernuak. Zein proposamen dituzue?**

Gustatuko litzaidake etorkizunera begira egindako inbertsioak jasotzea 2023ko aurrekontuak. Inbertsio berritzaileak, zehazki. Antzuolak aurrera egin behar du, eta aukerak eta dirua baditu. Antolakuntzak anbizio handiagokoa izan behar du, modernoa eta jasangarria. **2019an parlamentari kargua hartu zenuen berriro; zinegotzi lanarekin bateragarria izan da? Ondo moldatu zara?**

Zaila da, baina gauzak asko erraztuko lirateke Gobernuaren aldetik oposizioaren lana zailduko ez balitz. Adibidez, osoko bilkuretako dokumentazioa egun bat lehenago jasotzen dugu, eta, gehientsuenetan, justifikatutako txostenik eta informaziorik gabe. Baina harriarriena da noiz edo noiz oposizioaren proposamenak ere ez dituela Gobernuak gairerendean sartu.

**Zerrendaburu gisa aurkeztuko zara maiatzeko udal hauteskundetan?** Ez da soilik nire erabakia; nire alderdikideak, PSE-EE alderdiko militanteak, dira zerrendaburu zein izango den proposatu eta erabakitzeko dutenak. Baina niretzako ohorea litzateke berriro Antzuolan aurkeztea. Hala ere, esan nahi dut formatutako gazte ugari ditugula erreleborako gertu.

## Hilaren 23an egingo da Aiherra-Antzuola eguna, Iparraldean

Aurten, Nafarroa Beherean egingo da, Aiherran bertan. 10:30ean egingo diete antzuolarrei ongi-torria, eta, 11:15ean, Hazparneko (Lapurdi) Uhalde etxaldera egingo dute bisita. Ondoren, omenaldia egingo diete antzuolarrek duela urte batzuk Aiherran landatutako pagoari, 12:30ean; gero, herri bazkaria eta musika, bazkalostea girotzeko, Are Kiki Bordatxo taldearekin.

Bertara joateko autobusa doakoa da eta udaletxean edo liburutegian eman behar da izena urriaren 17a baino lehen. Era horretan, 1984an sortutako eta urtez urte mantendutako harremana sendotzen jarraitzea da asmoetako bat.

## Urriaren hasiko diren 'Nigan' saioetan izena emateko epea zabalik

Barnekotasuna lantzeko *Nigan* saioak ikasurte berria abiatuko du urriko azken astean. Ikastaroaren xedea da garapen pertsonal orok jorratzen dituen bi bideak aztertzea: batetik, *mild-funess*-a eta norberaren zaintza-astelehenetan, hamabostean behin, urriaren 31tik urtarrilaren 23ra-; bestetik, *ni neu naitzena onartzeko* saioak egitea – egubakoitzetan, hamabostean behin, urriaren 21etik urtarrilaren 27ra-. Saioak Olan etxean egingo dira, 18:30etik 20:00etara. Prezioa: borondatea.

Izena emateko, deitu 669 13 29 00 zenbakira edo idatzi ondorengo helbide elektronikoa honetara: [nigan@yahoo.com](mailto:nigan@yahoo.com).

## OHARRAK

### Euskaraldiko batzarra

Antzuolako Euskaraldiaren Batzardeak bigarren bilera irekia deitu du hilaren 20rako. Liburutegian egingo da, 18:30ean. Biler herritar orori irekia dago.

### Hitzaldia

*Publizitatearen trikimailuek* solasaldi-tailerra egingo da hilaren 21ean, Landatxopen, 17:00etan.



Nere Erkiaga tanatologian, parte hartze dinamiketan eta kultur transmisioan aditua, hitzaldi bat egiten. NERE ERKIAGA

# 'Hil Arte Bizi', hiltzearen aurrean ahalduntzeko

Herritarrak heriotzaren aurrean ahalduntzea du asmo 'Hil Arte Bizi' egitasmoak, eta lau tailer egingo dira Antzuolan. Nere Erkiaga da sustatzailea, eta urriaren 19an izango da aurkezpena; besteak beste, gaiaren inguruko alor praktikoak landuko dituzte

**Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria** ANTZUOLA

*Hil Arte Bizi* egitasmoa aurkeztuko du Nere Erkiaga tanatologian, parte hartzen dinamiketan eta kultur transmisioan adituak Antzuolan, herritarrak heriotzaren aurrean ahalduntzeko. Urriaren 19an izango da, Olaranen, 18:00etan.

"Alor ezberdinetan ditugun eskubideak ezagutu, guk ditugun ideiak argitu, besteenak entzunda gureak egokitu nahi ote ditugun ikusi, eta, azken finean, elkarrekin ikasi eta hartu behar diren erabakiak gauzatzeko lagundu nahi du egitasmoak", azaldu du Erkiagak. Haren ustez, heriotzaren gaineko kontuak bakarka lantzea "zaila" da, eta, sarritan, "alferkeria galanta" ematen du. "Egitasmoak taldean egitea proposatzen du, modu atsegina eta egituratu".

Horretarako, Antzuolan lau tailer eskainiko dituzte. Lehenengoan, hiltzearen aurrean dauden baliabideak landuko dira,

zerk lagundu eta zerk egin dezakeen kalte, adibidez. "Bigarrenean, kontu praktikoetan sakonduko dugu: hileta enpresen funtzionamendua, testamentua, bizitza digitala...". Eta, azken bietan, agurrek duten funtzioaz eta norbere agurraz jardungo dute.

**Naturala bezain soziala**

Erkiagak azaldu du heriotzari beldurra izatea "naturala" den arren, zati handi bat "soziala" ere badela. "Beldur naturalak bizitzari lotzen laguntzen digu, eta izan daiteke pertsonaren batek bere historian izan duen esperientzia batengatik hiltzeari beldur patologikoa izatea: horrek lanketa pertsonala eskatuko luke". Dena den, uste du

**ERKIAGAREN PROPOSAMENA HERIOTZAREN GAINEKO BELDURRA DESERAIKITZEA DA**

herritar gehienek beldurra sozialki eraikitakoa dela.

Nabarmendu duenez, lehen, erlijioak betetzen zuen funtzio hori, eta, egun, pertsonak "libreagoak" izan daitezkeela pentsatu daitekeen arren, ez dela horrela: "Hedabideetan, Interneten, zinemaren... Etengabe zabalitzen den iruditegia beldur-garriarekin gure inkontzientea gainezka dabil". Baina Erkiagak erantsi du eraiki den beldur hori deseraikitzea dela egitasmoaren proposamena.

**Ez da doluan daudenentzat**

Erkiagak, ordea, ohartarazi du tailerretako dinamikak ez daudela prestatuta doluan daudenentzat. "Askoz ere zaurgarriago gaude; batzuetan, bizitzari lotuta; eta, beste batzuetan, baita desagertuta ere".

Hala, jakinarazi du adin nagusikoa den edozeinentzat dela egokia, edo heriotzaren inguruan bere buruaren jabe izan nahi duenarentzat.



150 lagun batu ziren eskolako patioan eginiko herri bazkarian. MAIDER ARREGI



Hainbat lagun bildu ziren Arrola gainean goizean eginiko irteeran. ARROLA

## Giro onean ospatu dute Arrola elkartearen 50. urteurrena

Mendi irteera, bazkaria eta erromeria egin zituzten joan den zapatuan, belaunaldien arteko espazio bilakatuta

**A.R.K.** ANTZUOLA

50 urte bete ditu aurten Arrola Mendizale Elkarteak, eta, mende erdia ospatzeko, egun osoko festaz gozatu zuten antzuolarrek joan den zapatuan.

08:30ean hartu zuten goiztiarrenek Arrola mendirako noranzkoa. 60 lagun inguru batu ziren, oinez nahiz bizikletan, eta, beheranzkoan, salda eta txorizoa dastatzeko aukera izan zuten, Lizargaraten.

Joxe Lizarralde aritu zen zeregin horretan, Arrolaren sustatzaileetako bat. Hunkituta zegoen. Belaunaldi gazteek proiektuari eman dioten jarripena txalotu zuen, baina ez du erretiratzeko asmorik: "Ahal dudan artean jarraituko dut, baina gazteak ere baditut laguntzaile".

Imanol Lizarralde da gazte horietako bat. Umetatik hartu du parte Arrolan, eta urteurre-

naren ospakizunean Lizargaraten egon zen, jardun horretan lehen aldia ez bazuen ere: "Jende pila bat azaldu da, eta salda eta txorizo guztia gastatu da". Haren hitzetan, Arrola herrian errotuta dagoen taldea da eta auzolanaren esentzia mantentzeko balio du, besteak beste.

**Bertsoak eta ekitaldia**

Urko Arregi eta Aitor Tatiegi bertsolari oñatiarrak aritu ziren bertsoetan eguerdian, eta eskolako patioan egin zen bazkaria. 150 lagun inguru batu ziren.

Bazkalostean, ekitaldi bat egin zuten. 1990eko hamarkadan jaiotako gazteek bi bertso abestu zituzten eta Arrolako kideek esker mezua zabaldu zuten.

Amaitzeko, herritarren abilezia proban jartzeko jolasak egin zituzten, eta baita erromeria ere Muxutruk taldearekin Zurrategi plazan.

# "Nazio eraikuntzan parte hartu nahi zuten"

**KARMELE PEREZ URRAZA** EHU-KO IRAKASLEA ETA GARAIA TALDEKO IKERTZAILEA Emakume Abertzale Batzari (EAB) eskainia izan da Memoria Jardunaldien lehen hitzaldia. Ikerketa lana burutu duen Garaia ikertaldeko hiru kideak Elgetan izan dira

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Gurutze Ezkurdiak, Begoña Bilbao eta Karmele Perezek osatzen dute Garaia taldea. Maiatzean mendeurrena bete duen EABri buruz aritu ziren atzo Elgetan. **Nolakoa zen gizartea 1922an?**

Garai hartan hasi ziren kalera-zen emakumeen mugimenduak. Gizonen pareko eskubideak aldarrikatzen zituzten, eta baita ere alfabetatze eskubidea. Abertzaletasunari dagokionez, Irlandako emakumeen mugimenduak indar handia hartu zuen, eta hainbat hitzaldi izan ziren Bilbon apirilean. EAB 1922ko maiatzaren 7an sortu zen.

**Emakume asko batu ziren?**

Hasieran, 50 bat. Maiatzerako, 100 afiliatu ziren, eta handik gutxira, 600 bat. Kontua da urte eta erdiko ibilbidea izan zuela mugimenduak; izan ere, Primo de Riveraren diktadura etorri zen. Isilean jarraitu zuten lanean, eta bigarren errepublikarekin egin zuen benetako eztanda mugimenduak. 1936rako, 28.000 afiliatu inguru ziren.

**Zein ziren lan-lerro nagusiak?**

Aldarrikapen nagusia zen gizonen pareko lan egitea naziogintzan. Ez modu berean, baina bai parean. Emakume haiek parte hartu nahi zuten nazioaren eraikuntzan, eta, horrekin batera,



Karmele Perez Urza. EHULEARNING

## "ELGETAKO DATURIK EZ DUGU, BAINA EIBARREN ETA BERGARAN INDAR HANDIA IZAN ZUTEN"

euskararen eta euskal kulturaren transmisioan.

**Ze indar izan zuen EABk gurean?**

Elgetako daturik ez dugu. Gerrak gogor jo zuen eta behin betirako galduko ziren. Datu hurbilenak Bergarakoak dira, eta Bergaran

mugimenduak indar handia izan zuen. Eibarren ere bai. Han beste emakume talde batzuk ere bazeuden, eta, sarri, talka egiten zuten, erreferentzia desberdinak zituztelako, baina Eibarren ere mugimendu indartsua sortu zen. **Gizarteak gutxi daki EABri buruz.** Emakumeak eta abertzaleak.

Atera kontuak! Historia ofizialak isildu egin ditu, eta garaileek egindako historiak, zer esanik ez. Familia abertzaleetan eza-gutzen da gehien, baina egia da gauza hauek, askotan, beldurrez kontatu izan direla.



Patxi Montero dantzaldi bat gidatzen. JOSU GARATE - 'DANTZAN.EUS'

## Herrixa Dantzan dantzaldiak berriz Espaloia kafe antzokian

2020ko martxotik etenda egon dira saioak, baina bueltan izango dira urriaren 30etik aurrera

**L.Z.L.** ELGETA

Hil honetarako iragarri du bueltako Herrixa Dantzan saioa Patxi Monterok, eta Elgetako Udalaren babesa izango du oraingoan ere ekimenak. "Urriko eta azaroko saioak bereziak izango dira, eta abenduan Escamot Catalaren ohiko bisita jasoko dugu", aurreratu du Monterok.

Saioak, lehen bezala, hileko azken domekan izango dira, 19.00etan. Urritik apirilera bitartean izango dira, eta dantzaldietako batzuk zuzeneko musika-ekin egingo dituzte. Horien artean da azaroaren 27koa.

**Proiektu berri baten aurkezpena**

Patxi Monterok jakinarazi du azaroko saioan *Euskal Herriko plazetarako dantza berriak* proiektua aurkeztuko dutela, Alboka taldearekin eta Iker Allur soinu-jolearekin. "Gipuzkoako Dantzaguneak babestutako proiektua da. Bezperarako ere Dantzan Ikasi programako ikastaroa antolatuko da, proiektu honen nondik norakoak, emaitzak eta proposatutako dantzak probatzeko. Urriaren 30eko saioa ere azaroko prestatzeko baliatuko dugu", gaineratu du Patxi Monterok.



ELGETAKO UDALA

## Emakumeak protagonista Memoria Jardunaldietan

1922an Bilbon sortua, Primo de Riveraren diktaduran legez kanpo utzi zuten EAB. 1931n berragertu zen eta Hego Euskal Herri osora zabaldu zen, 1936an gerra piztu eta berriz ere zapaldu zutenera arte.

Memoria Jardunaldien bigarren hitzaldian ere emakumeak izango dira protagonista. Alava sareari buruz arituko da Josu Chueca.



Bergarako Emakume Abertzale Batzako kideetako batzuk. JUSTE AMENABAR

## Auzolan eguna Egoarbitzan

Urriaren 12an, hamaika lagun elkartu ziren Egoarbitzako herri basoa auzolanean garbitzeko. Udalak urtero egiten du deialdia, eta, goiz ia osoa behe-laino artean joan bazen ere, hainbat lan egin zituzten bertaratutako boluntarioek. Sasi garbiketan, itxiturak egiten eta zuhaitz gazteak babesteko lanetan aritu ziren, besteak beste.

# ERREKA EGUNA 2022



**DEBA IBAIA**

**UBIDEA BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO**

ENEKO AZKARATE LASPIUR

## 'ERREKAK BIZI'

DEBA IBAIAREN ETA HONEN ADARREN GAINEKO IKUS-ENTZUNEZKOA

- ESKORIATZA URRIAK 20, 18:30, ZALDIBAR ARETOA.
- ARRASATE URRIAK 24, 18:30, KULTURATEKO ARETO MAGUSIA.
- BERGARA URRIAK 24, 18:30, IRIZAR JAUREGIKO EUSKALDUNBERRI ARETOA.
- ANTZUOLA URRIAK 26, 18:30, OLARAN ETXEA.
- LEINTZ GATZAGA URRIAK 26, 18:30, GATZ MUSEOA.
- OÑATI URRIAK 27, 18:00, SANTA ANA ANTZOKIA.
- ELGETA URRIAK 27, 18:30, ESPALOIA ANTZOKIA.
- ARETXABALETA AZAROAK 3, 18:30, ARKUPE KULTURA ETXEKO ZARAIA ARETOA.

SARRERA  
DOAN



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

**goiena**

Zu hemen zaude.



Irailaren 28an egin zuten *Debagoieneko erreka bizirik auzolanean* ekimenak agerraldia. GOIENA



Antzuolan ere 2009az geroztik, behintzat, egiten da garbiketa. GOIENA

#### Amaia Ramirez de Okariz

##### Kortabarria DEBAGOIENA

Deba ibaia da bailara batzen duen ur emari nagusienetako bat. Herrerreketan hasi, Leintz Gatzagan, eta Bergararainoko bidea egiten du. Herri guztietatik igarotzen ez den arren, bertara iristen dira erreka-adar guztiak: Aramaio, Oñati, Elgeta eta Antzuola. Are gehiago, hark ematen dio izena eskualdeari ere.

Bada, hori gogoan izanda, eta inguruko erreka bizirik mantentzeak duen garrantziaz jabetuta, *Debagoieneko erreka bizirik auzolanean* ekimena sortu dute zenbait eragilek. Hala, Erreka Eguna ospatuko dute bihar herriz herri, erreka auzolanak egiteko.

Bergarako Erreka Batzordeko kidea da Arianne Kereaga, eta ekimen honen sustatzaileetako bat. Azaldu duenez, Bergarako erreka garbiketarako hamargarren edizioa du aurten, eta hori aitzakiatzat hartuta sortu zen egitasmoaren ideia. "2013an egin genuen lehenengoz, Soraluze kooperatibak 50 urte betetzean, proposamena eurek egin baituzten". Udalarekin zein herritar talde baten laguntzarekin, lehen erreka garbiketa antolatuta zuten. "Ukitu gabe zegoen, jende asko ere sekula jaitsi gabe, eta txatarrak pila bat agertu zen".

Ordutik, urtero egin dute erreka garbiketa Bergaran, eta aurrez ere eginak zituzten beste herri batzuetan; esate baterako, Antzuolan. Datu zehatzik ez dago,

# Erreka auzolana, bailara batzeko

Bergarako erreka garbiketaren hamargarren edizioa egingo dute aurten, eta, hori aitzakiatzat hartuta, ideia bailarara zabaltzeko hautua egin zuten, auzolana helburu izanda. Bihar ospatuko da Erreka Eguna, herri bakoitzaren izaeraren arabera

baina zikinkeria ugari bildu ohi da Deba ibaian eta bere adarretan, eta Bergarara iristen da guztia. "Beti esaten dugu zentzua edukiko lukeela dena garbitzea, sasoi berean ez bada ere. Urak beherantz eramaten baitu guztia, eta baita haizeak ere", zehaztu du Kareagak. Beraz, horretaz ohartuta, inguruko eragileak "xaxatzen" hasteko hautua egin zuten.

#### Bateratzeko lehen urratsak

Txatxilipurdi elkarteak da eragile horietako bat, eta bertako kideetako bat Iker Agirre. "As-

#### TXATXILIPURDIK EGIN ZUEN LEHENENGO BAT EKINTZAREKIN, BAT DATORRELAKO EUREN HELBURUAREKIN

kotan komentatu dugu Bergarako ekintza badela gure elkarrekin eta helburuekin bat datorren ekimen bat, eta aukera ikusi genuen hori dimentsionatu eta Arrasatera ere ekartzeko". Gainera, jakinarazi du elkartean badutela *Berdean hezi* lan-ildoak, eta, horrez gain, herri hezitzailearen begirada garatzen ahalegintzen direla. "Ikuspegi horretatik egin dugu tira. Ikusi dugu historikoki hirigintza ereduak baztertua utzi duela erreka Arrasaten, eta horrek ibaia oso urrun sentitzera garamatzala". Harreman hori berrartzeko, beraz, bergararren proposamena "aukera polita" iruditu zitzaion, auzolana erdigunean jarrita.

Izan ere, ekimenak hezitzaile izateko nahia du. "*Garbiketa* hitza ateratzen zitzaigun hasieran, baina hitzaren konnotazioa

kendu nahi genuen, auzolana ez delako soilik garbiketa, baizik eta baduelako zer kohesio sozialetatik ere elkarrekin batzeko edo egun hain urrun bizi dugun baina horren gertu dugun natura beste era batera bizitzeko", nabarmendu du Arregik. Gainera, uste du herriak eurak hezitzaileak direla, eta, beraz, horrelako ekimenak beharrezkoak direla, tokian tokiko eragileek eta administrazio publikoek sustatutakoak. "Azkenean, herritarrek balio hezitzaile batzuetan hasteko aukera ematen du".

#### "ZENTZUA DU DENA GARBITZEAK, HAIZEAK ETA URAK BEHERANTZ BAITAKAR GUZTIA"

ARIANNE KEREAGA, EKIMENEN KIDEA

Kareagak ere gaineratu du Bergaran orain artean eginiko bederatzita edizioetan ateratako ondorioetako bat dela euren inguruko seme-alabek ez dutela egun hau inondik inora ere galdu nahi. "Belaunaldi berriek errekaekin harremantzeko beste modu bat sortu dute. Guk ez genuen askotan begiratzen, baina haiek jaitsi egiten dira erreka, bainatu... Beste erlazio bat eraiki dute".

#### Gainontzeko eragileekin

Horretaz jardun ostean, beste eragile batzuekin batzeko hautua egin zuten Bergarako Erreka Batzordeak eta Txatxilipurdi elkarteak, eta batzar bat egin zuten uda aurretik, Arrasateko Besaide Mendizale Elkartearekin ere gonbidatuta. "Orduan animatu ginen eskualdera salto egitera, ateratzen zena ateratzen zela ere", adierazi du Kereagak.

Ingurutik babesa jaso zutela azaldu du bergararrak. Udalen kasuan, adibidez, erantzun "ona" jaso zuten, eta baita Fagor Taldetik eta Debagoiena 2030 plataformatik ere. Arrasateko kasuan, AED Arrasate Euskaldundu Dezagun elkarteak zuzendaritza batzordeak ere bat egin du erreka auzolanarekin, ibaia hilko baltz, eskualdea eta, ondorioz, hizkuntza bera ere akabatuko lirakeelako. "Bizirik behar dugu ibaia, bizirik bere emarira batzen den erreka txikiena, Debagoiena eta bere jatorrizko hizkuntza, gure euska-





Ez dago datu zehatzik, baina zikinkeria ugari jasotzen da erreka garbiketetan. Irudian, Bergara, 2014an. GOIENA



Arrasate Herri Eskolakoek ere erreka garbiketa egin zuten 2019an. GOIENA

ra, biziko badira". Beraz, parte hartzeko dei egin du.

#### Goienak ere bat egin du

Eragile horiez gain, ordea, badira bat egin duten beste batzuk ere. Esate baterako, Goiena Komunikazio Taldea. Kareagaren hitzetan, azken hilabeteotan Erreka Egunaren komunikazioz arduratu da komunikabidea, eta hala izan da. Julen Iriondo kazetaria Deba ibaiaren gaineko ikus-entzunezko piezak egiten aritu da azken asteetan, eta Goiena telebistan emititu zen atzo lan osatua. Gainera, bihar ere jarraipena egingo da sare sozialetan zein webgunean, eta, gerora, irudi horiek guztiak aurrez filaturikoekin elkartu, eta herriz herri egingo dira emanaldiak.

Hala, elkarlana oinarri nagusienetako bat den honetan, eskualdearen izaera lantzeko saiakera egiteko nahia dute sustatzaileek. "Askotan hitz egiten da Debagoienaz, baina zerk batzen du bailara? Nik uste dut horrelako ekimen bat aproposa izan daitekeela, eta, beraz, bailarari ikuspegia eman diogu", kontatu du Agirrek, erantsita herri bakoitzak bere izaeraren

**500 PERTSONA  
INGURUK EMAN DUTE  
IZENA, BAINA USTE  
DUTE GEHIAGO ERE  
IZANGO DIRELA**

arabera antolatu duela biharko eguna.

#### Aurrera begirako asmoak

Herri bakoitzak, beraz, funtzionatzeko bere era izango du. Esaterako, Puntaik Punta jaialdia ospatuko da Arrasaten Erreka Egunaren aldi berean, eta egitarauaren parte da Eloregerainoko ibilbide gidatu bat aditu batekin. Ekimen paralelo bat izan arren, Agirrek jakinarazi du, agian, egongo dela zer ikasia.

Gainontzeko herrietan, berriz, garbiketaz gain, hamaiketako egingo da, eta, kasu batzuetan, baita ekintza solteren bat ere: Bergaran, adibidez, hamargarren edizioa ospatzeko musika-eta egongo da jarrita Seminarioan.

Dena den, behin auzolanak egin ostean egin beharko da balorazioa. Gaur-gaurkoz, 500 pertsona inguruk eman dute izena aurrez prestatuturiko galdegegian, eta haiek guztiak bertaratzea espero da, baina antolatzaileek ohartarazi dute auzolanak egin ostean jakingo dela zenbateko zehatza, egongo direlako izena eman ez baina parte hartuko duten batzuk ere. "Baloratu beharko da, baina inoiz ez da egon bailara mailako auzolan bat, eta, beraz, hau abiapuntu bat izan daiteke", erantsi du arrasatearrak.

#### Oñatin jardunaldiak

Oñatin, aurten, ez da egingo erreka auzolanik, nahiz eta oña-

tiarrek izango duten beste eremu batzuetara joateko aukera, parte hartu nahi izanez gero. Izan ere, badituzte beste proiektu batzuk esku artean: Ibailegun jardunaldiak, esaterako. Hamargarren urtea dute aurten, eta Oñatiko erreketako presetan dute jarrita, batik bat, arreta. Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak Garibai Errota, San Pedro eta Zubillaga izenekoak eraisteko asmoa du, eta Diputazioko teknikariek horren gaineko azalpenak emango dituzte azaroan edo abenduan.

Dena den, aste honetan herriko errekek hobetzeko plana ahalbideratzeko tailer bat egin dute. EHU Euskal Herriko Unibertsitateko biologo eta doktore Joserra Diez eta Unai Ortega izan dira saio horren gidari, eta, gainera, domekan, Olateko indarretxera irteera bat egingo dute Araozetik abiatuta. 08:30ean izango da autobusa, San Lorentzoko geltokian. Eta, martitzenean, berriz, *Monopolia: agua, negocio y poder político* (Monopolia: ura, negozioa eta botere politikoa) dokumentalaren emanaldia egingo da Zinema aretoan, 19:00etan.

**"INOIZ EZ DA EGON  
BAILARAKO AUZOLAN  
BAT; ABIAPUNTU BAT  
IZAN DAITEKE HAU"**

IKER AGIRRE, EKIMENEN KIDEA

## 'Errekak Bizi' lanaren emanaldiak

Goiena Komunikazio Taldeak ikus-entzunezko berezi bat ekoitzi du Erreka Egunaren harira. Deba ibaiaren eta bere adarren gainean jardun da Julen Iriondo kazetaria zenbait aritu eta aditurekin. Bada, *Errekak Bizi* lanaren emanaldiak egingo dira herriz herri:

**Antzuola.** Urriak 26, 18:30. Orlan Etxea.

**Aretxabaleta.** Azaroak 3, 18:30. Zاراia aretoa.

**Arrasate.** Urriak 24, 18:30. Kulturate.

**Bergara.** Urriak 24, 18:30. Irizar Jauregia.

**Elgeta.** Urriak 27, 18:30. Espaloia Antzokia.

**Eskoriatza.** Urriak 20, 18:30. Zaldibar Antzokia.

**Leintz Gatzaga.** Urriak 26, 18:30. Gatz Museoa.

**Oñati.** Urriak 27, 18:00. Santa Ana Antzokia.

## Herriz herri egindako hitzorduak

Herri bakoitzak bere izaeraren arabera antolatu du Erreka Eguna. Hemen egitarauak:

#### Antzuola

Herriko plaza, 10:30.

#### Aramaio.

Herriko plaza, 10:30.

#### Aretxabaleta.

Herriko plaza, 09:30. Hamaiketako, 13:00etan.

#### Arrasate.

Biteri, San Isidro eta Elorregi, 09:30. Hamaiketako, 13:00etan.

#### Bergara.

Seminarioa, Labegaraieta eta Osintxu, 09:00. Hamaiketako, 13:30etan.

#### Elgeta.

Herriko plaza, 09:30. Hamaiketako, 13:00etan.

#### Eskoriatza.

Santa Marina plaza, 10:00.

#### Leintz Gatzaga.

Herriko plaza, 09:00.



# Urrats ugari bai, baina denak ez

20 urtean asko aldatu da Deba ibaia; besteak beste, saneamendu azpiegiturak eraiki direlako. Halere, oraindik ur-zikinak bideratzeko lan guztiak ez daude amaituta, eta herritarren plataformak sortu dira, norabide horretan aurrerapausoak emateko

**Uxue Igarza Loiola** DEBAGOIENA

Uraren hiri zikloaren kudeaketa hobetzeko urrats ugari egin dira azken bi hamarkadetan –plangintzak, araztegiak eta kolektoreak eraiki, zeuden azpiegiturak hobetu...–; Debagoiengan, Mekolalde eta Epeleko araztegiak dira horren adibide. Oraindik, baina, Deba ibaiaren egoera kimiko eta biologikoa hobetzeko badira egiteke dauden lanak.

Leintz Gatzagan jaiotzen da Deba ibaia, garbi dator sorburutik, baina, ibilbidean zehar, hiritartuta dauden eremuetatik eta industrialdeetatik igarotzean, kutsatuz doa. 2005ean Greenpeacek argitaratu zuen azterketan, Deba ibaiak "toxiko arriskutsuak" zeramatzan uretan nahastuta –etilbezenoa eta etuenoa, besteak beste–; hondakin horiek fabrikek isuritakoak ziren. Horrez gain, txostenean adierazten zen etxebizitzetatik isuritako ur-zikinek ere nabarmen eragiten zutela erreken eta biodibertsitatearen ongizatean. Erakunde ekologistaren arabera, Deba ibaia zen orduan Euskal Autonomia Erkidegoko erreka guztien artean "egoera txarrean" zegoena, Oka eta Urumearekin batera.

Ordutik –eta lehenagotik ere bai–, hasiak ziren Debagoiengan industrietako isurketak mugatu eta ur-zikinak bideratzeko azpiegiturak eraikitzen. Horretarako, besteak beste, mugarririk izan zen Europatik 2000. urtean iritsitako zuzentaraua.

**Europako arauen eragina**

Alejandra Iturriotz 2007tik 2011ra bitartean Aldundiko Obra Hidraulikoetako zuzendaria izan zenak garbi adierazi du Europako Batzordeak 2000. urteko zuzentarauak eragin nabarmena izan zuela eskualdean hartutako

neurrietan. "Irizpide orokorrak ezarri ziren uraren egoera ekologikoa eta kimikoa babesteko. Gainera, 2015. urtea jarri zen epemuga gisa, eta horrek prozesuak hauspotu zituen".

Zuzentaraua betetzeko, erakundeek baliabide ugari bideratu zituzten erreken osasuna hobetzeko proiektuetara: "Erreakak eta ingurumena interes orokorreko gaiak izanik, egitasmo eta azpiegitura asko Espainiako Gobernuak finantzatu zituen; esate baterako, Epeleko araztegia".

**Bi araztegi bailaran**

2005ean hasi ziren Mekolalde auzoan araztegia egiten eta hiru urte geroago bukatu zuten.

Epeleko lanak, berriz, 2007an abiatu ziren, 26 milioi euro baino gehiagoko aurrekontuarekin. Deba ibai osoko saneamendu

**GREENPEACE-REN ARABERA, 2005EAN DEBA ZEN EAE-N EGOERA TXARREAN ZEGOEN IBAIA**

**ERREKEN GAINKO EUROPAKO ARAUAK "FUNTSEZKOAK" IZAN ZIREN BAILARAN NEURRIAK HARTZEKO**

**2005EAN HASI ZIREN MEKOLALDEKO ARAZTEGIA EGITEN ETA 2007AN ABIATU ZUTEN EPELEKOA**

sarea barnebiltzeko helburuarekin egin zen, eta 2011n amaitu zen.

Bi urte geroago, hasieran finkatutako helburua lortzeko, Oñatiko Zubillaga auzoan ponpaketa estazioa jarri zuten, ur-zikinak Epeleraino iristeko; lau kilometroko hoditeria jarri zuten. Gauzak horrela, Aretxabaleatik, Eskoriatatik eta Arrasatetik datozen ur-zikinak jasotzen ditu lehen kolektore batek, eta bigarrenak, ponpatze sistemarekin, Oñatiko urak ja-



2011n, Elorregin, makinak lanean hoditeria lurpean sartzeko. GOIENA

sotzen ditu. Araztegiak ur horiek garbitzen dira, gero berriz ere ibaira isurtzeko.

Garbiketa prozesuari dagokionez, araztegiak tratamendu naturala egiten dela azaldu dute langileek. "Ur-zikinek, zaborraz

eta zikinkeriaz gain, mikroorganismo batzuk ere badituzte. Guk mikroorganismo horiek baliatzen ditugu garbiketa egiteko; beraiek garbitzen dute ura eta guk baldintza hobeak ematen dizkiegu hori egin dezaten". Amonioa eta bestelako substantziak ezabatzen dituzte mikroorganismoek. Halere, tratamendu kimiko bat ere egiten dela azaldu dute; besteak beste, fosforoa eta halako elementuak uretatik ezabatzeko.

Alberto Manzanos Ura agentziako Hidrologia Plangintza teknikariak duela bi urte egin dako adierazpenetan azaldu zuen araztegiak ezarri ahala ibaien egoera "asko" hobetu dela azken urteetan. "Gaur egun arazo nagusiak dira Ubera, Antzuola eta bestelakoetan daudenak. Baina neurriak prest daude, idatzita, datozen urteetan ezartzeko. Horrek esan nahi du egoerak hobetzen jarraituko duela", esan zuen orduan, nahiz eta oraindik ez den espero beste aurreratu.

**Azpiegitura faltan oraindik**

Duela 40 urte hasi ziren Debagoiengan lehenengo ur-kolektoreak jartzen; Antzuolan jarri zuten lehenengoa, hain zuzen ere. Nolanahi ere, Antzuolan bertan eta Elgetan pilatutako ur-zikinak errekarara isurtzen dira oraindik –horiek araztegi-eramateko hoditeria faltagatik–, baita beste herri batzuetako zenbait puntutan ere; horiek baina etxebizitza isolatuak dira.

## Errekako gertaerak 20 urtean

- 2002** Kolektoreak egiteko lanak abiatu ziren Arrasateko hainbat auzotan; esaterako, Mekolalden.
- 2003** Ibaian berreskuratze lanak egiten hasi ziren Osintxun.
- 2004** Bergarako erdigunean kolektorea jartzeko lanak egin zituzten. Trafikoan eragin handia izan zuten.
- 2005** Mekolalde auzoan araztegia egiten hasi ziren.
- 2006** Erreka desbideratzeko lanak hasi ziren Antzuolan.
- 2007** Epeleko araztegiaren lanak hasi ziren.
- 2008** Mekolaldeko araztegia bukatu zuten.
- 2009** 1.200 kilo zabor atera zituzten errekatik Bergaran.
- 2010** Gerra garaiko obusa agertu zen Ozaetako zubiaren azpian.
- 2011** Epeleko araztegiako lanak amaitu zituzten.
- 2012** Ponpaketa estazioa jarri zuten Oñatiko Zubillaga auzoan.
- 2013** Erreka garbiketa antolatu zuen Debagoieneko Mankomunitateak, Erreka Astearen baitan.
- 2014** 1.750 kiloko amurraina arrantzatu zuten Oñatiko errekan.
- 2015** Erreken gaineko argazki lehiaketa, ibilaldiak eta hitzaldiak antolatu zituen Arrasateko Udalak.
- 2016** Elgetako Udalak salatu zuen herriko ur zikinak ez direla araztegiara iristen eta kutsadurak kalteak eragiten dituela.
- 2017** Erreka garbitu eta bazterreko landare inbaditzaileak kentzeko auzolana egin zen Oñatin.
- 2018** Zianuroak ehunka arrain hil zituen Osintxu eta Soraluze arteko ibai zatian.
- 2019** Ura agentziak kalifikazio ona eman zion Deba ibaiari.
- 2021** Arrain ugari hilda agertu ziren Arrasateko San Andres auzo inguruan.
- 2022** Erreka Egunaren hamargarren edizio bateratua egingo da bailaran. Auzolana bultzatzea du helburu egitasmoak, baina baita herritarrak ibaira begira jartzea ere.



2013an, talde bat Epeleko araztegiako funtzionamendua ikusten. GOIENA



Ur-zikinak garraiatzeko hodiak erreka ertzean. GOIENA

Antzuolaren kasuan, esan bezala, duela lau hamarkadatik jasotzen dira kolektore batean ur-zikinak; halere, oraindik, ez dago azpiegitura-bidea osatuta hondakin horiek Mekolaldeko araztegiara bideratzeko. Udan, uztailean, hasi ziren Arizti ingurutik Burubikoko zubira bitartean hodiak sartzten eta kutxilak (arketak) jartzen; azken horiek sor daitezkeen buxadurak askatzeko balioko dute. 530.000 euro pasatzeko aurrekontua du proiektuak.

Hamabost bat egunean amaitzea aurreikusten dute, baina, lan horiek amaituta ere, Bergarako kolektorearekin lotura egiteko beste zati bat falta da, bidegorri inguruan. Bidegorria bera ere bukatu behar da eremu berean –gasolindegitik San Antonioraino, 200-300 metro–, eta bi proiektuak bateratzeko eskaera eginda du Bidegorria eta Ur-kolektorea Bukatzearen Aldeko Antzuolako Plataformak.

Gipuzkoako Urak erakundeari dagokio hoditeria sartzeko lan hori egitea, eta bidegorriko lanak Gipuzkoako Foru Aldundiari. Ura Agentziako komunikazio arduradun Eneko Albizurik 2021eko azaroan esan zuen agentzia Aldundiko Mugikortasun Sailarekin koordinatuta ari zela lanean eta proiektuaren idazketa "esleitu berri" zela eta "2022an lizitatzea eta gauzatzen hastea" espero zutela. Uztailean adierazi zuen agentziak proiektua egiten ari zirela, baina orain-

## 617 igerileku betetzeko beste isurketa

Antzuolako Plataformak ikerketa egin zuen antzuolarrek isurtzen dituzten ur-zikinek duten bolumena ikusarazi eta kolektorearen premia azpimarratzeko.

Gipuzkoako Ur Kontsorzioak ateratako datuetan oinarrituta, biztanle bakoitzak, batez beste, 153 litro ur-zikin isurtzen ditu. Hala, Antzuolako 2.102 biztanleak datu horrekin biderkatuz gero eta urte oso bat hartuta erreferentzia moduan, 117.386.190 litro ur-zikin isurtzen dira urtero errekarera.

Baina zenbat da hori? Igerileku olinpiar bat 34,7 aldiz betetzeko beste. Edo gertuago etorrita, Bergarako kanpoko igerilekua 617,8 aldiz betetzeko beste. Beste modu batera esanda, Antzuolatik datorren ur tratatu gabearrekin egunean ia bi aldiz bete ahalko litzateke Bergarako kanpoko igerilekua: 1,7 aldiz, zehazki.

dik proiektua ez da aurkeztu eta lanek "luze" joko dutela azaldu dute plataformako kideek.

Azken zati hori bukatu arte, ez dute orain egiten ari diren kolektorea martxan jarriko; hondakinak Bergarako herrigunetik oso gertu isuriko liratekeelako eta kiratsa egongo litzatekeelako herrian.

### Elgetan, Antzuolan bezala

Elgetan, Antzuolan bezala, ur-zikinak ez doaz araztegiara; herrian pilatu ostean, Sesto errekarera joaten dira. Gainera, horren ondorioak, elgetarrek ez ezik, Bergarako Ubera auzokoez ere jasaten dituzte.

2007an lanak egiteko akordioa sinatu zuten erakundeek eta Jaurlaritzaren gain geratu zen proiektua gauzatzeko ardura. 2019an, baina, Ura agentziak hartu zuen, eta Iraitz Lazkano Elgetako alkateak adierazi duenez, udalak idatziz galdetu du proiektua ea noiz egingo den. Lazkanok, baina, ez du erantzunik jaso agentziaren partetik. "Argi dagoena da 2023an ere konpondu gabe jarraituko duela arazo honek", esan du alkateak.

Uberako Gorka Buruaga Uberako auzo-alkateak ere sarri salatu du egoera. 2018an Plan Estrategikoaren azterketa egin zuten auzoan, eta kolektorea San Juangoarekin konektatzea "beharrezkoa" zela ondorioztatu zuten: "Europatik datorren agindua da ur-kolektoreak jartzea, kutsadura ekiditeko. Material

organikoez uraren kalitatean eragiten dute: oxigenoa murrizten da eta bertako biodibertsitatea hiltzen joaten da".

### Ongizatearen bilakaera

20 urtean errekararen osasuna "nabarmen" hobetu dela dio Eneko Albizurik. "Agerikoa da hobekuntza. Deban ere antzeman da aldaketa". Horrekin batera aipatu du industria-eragileak "geroz era zuhurragoan" dabiltzala ingurumen-gaietan, eta, era berean, orain, gizartea kontzientziatuago dago gaiarekin: "Jendarteak ez ditu onartzen

## ANTZUOLAKO ETA ELGETAKO UR-ZIKINAK ORAINDIK EZ DOAZ MEKOLALDEKO ARAZTEGIRA

## IA 35 ALDIZ BETE DAITEKE IGERILEKU OLINPIAR BAT ANTZUOLARREN UR-ZIKINEKIN

## DEBA IBAIKO URA ETA EGOERA BIOLOGIKOA "NABARMEN" HOBETU DIRA AZKEN HOGEI URTEETAN

orain dela hamarkada pare bat maizago ikus zitezkeen egoerak". Halere, Albizurik onartu du badaudela egiteko dauden lanak: "Isurketa puntuak murrizten jarraitu behar da, ur horiek saneamendu sistemara bideratzeko".

Oro har, errekarako egoera biologikoak onera egin duela dio Urak 2021ean argitaratutako txostenak. Deba ibaiako hamalau ur-masetako bostek dute kalitate ona; zazpik dute kalitate onargarria; batek eskasa; eta azkenak txarra. Azken biak ez dira Debagoienean kokatutako masak, baina aipatzekoa da Ubera eta Antzuolan sumatzen dela ur-kolektoreen falta, uraren kalitateari erreparatuta.

Uraz gain, baina, beste faktore bat ere hartu behar da kontuan errekararen osasunaz jarduteko: hain zuzen ere, bertan –eta inguruan– bizi diren animaliak eta landareak. Ekosistemari lotuta, egoera "ez dela hain ona" errepikatu izan dute Oñatiko Natur Eskolako kideek: "Azken urte hauetan uraren kalitatea hobetu arren, ekosistema ez dago egoerarik onenean. Gizakiok erreka ondoan egin ditugun ortuen, errepideen, etxeen eta enpresen erruz, erreka alboko basoak desagertu egin eta, horrekin batera, honek dituen funtzioak ere bai". Nolanahi ere, apurka-apurka, ari dira espezieak itzultzen Deba ibaira eta jarrapena egiten ari zaie.



Leintz Gatzagan, Deba ibaiaren indarra gatz ekoizpenerako erabiltzen den tokia. GOIENA



Deba ibaia, Bergara zeharkatzen. JULEN IRIONDO M. DE ZUAZO

**Julen Iriondo M. de Zuazo** ARRASATE Oria eta Bidasoa ibaien emaririk urruti –erdia baino gutxiago; luzeran, berriz, aurrenekoa nabarmentzen da– eta Oiartzun ibaiaren aldean beste pisu batekin, Gipuzkoako erreken artean tarteko multzoan koka daiteke Deba. Hiruerreketa deritzon parajeen Urkitza eta Usokoaitza errekaekin bat egin, eta hura jotzen da Deba ibaiaren sorleku. Handik, 62 kilometro eta erdi, erreka itsasoratu eta ur geza ur gazitan nahasten den arte, berriz ere Debak gatzarekin topo egiteko; sortu eta lasterrera baitu harekin lehen harremana Bengoerrekak –hala deitu izan diote gatzagarrek Deba ibaiari, euren herri paretik pasatzera–.

"Leintz Gatzagara iritsi baino justu lehenago, gatz industria bat dago erreka honek martxan jartzen duena. 1843. urtean erakitako ponpaketa sistema bat du, Deba ibaiaren indarra erabiltzen duena", azaltzen du Udaleko Turismo teknikari Aitor Larrañagak.

Leintz Gatzagan behera, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Soraluze, Elgoibar, Mendaro, Mutriku eta Deba udalerriak zeharkatzen ditu, Debagoiena eta Debabarrena eskualdeak, eta inguruko ibaiadarretako urak jasotzen: Debagoiengan, Aramaio, Angiozar eta Ubera dira ezker aldeko nagusiak, eta Urkulu, Oñati eta Antzuola eskuinaldekoak.

# Gatzetik gatzera, 62 kilometro

Arlabango mendietan sortu eta Deban itsasoratzen da kostaldeko herriari eta arrosoari izena ematen dion ibaia. Hamaika adarren urak batuta eta 12,56 m<sup>3</sup>/s emariarekin, Gipuzkoako ibaien bigarren multzoan dago, Urola eta Urumearekin

## Flora eta fauna

Aramaio erreka eta Deba ibaiak Arrasaten egiten dute bat, Debagoieneko Mankomunitatearen egoitzaren atzealdean. Bertan egin du hitzordua

GOIENAK Naiara Corcuerekin –Ingurumen Zientzietan lizentziaduna–: "Arrasaten dagoen toki politena izan daiteke: espazio zabalagoa da, hondartzatxoak ditu harrie-

kin-eta osatuak... Arrasaten, gainerakoan, ubidea oso estua da, toki askotan ezin da jaitsi... Ezin da ahaztu Arrasaten gaudela eta eremua oso artifizialdua dugula".

Florari dagokionez, haltzadi kantauriarra da kantauriar isurialdeko erreka inguruetako berezko ekosistema; baita Deba ibaiko ere. Europa mailan babestuta dago, eta lehentasuneko habitata da, babestu beharrekoa, asko gutxitu delako bere azalera: "Haltza da nagusitzen den basoa, eta nahasten da halako baldintzetan gustura egoten diren beste landare batzuekin: sahasak, makalak, lizarrak...; eta uretatik urrundu heinean, bertako berezko basoekin; hemen, hariztiarekin, gehiengotan. Zuhaitzez gain, uretatik hurbil bizi ohi diren ohiko landareak, zuhaixkak eta belarrak leudeke".

Naiara Corcuerekin dio herri-guneetan ez dela gisa horretako ekosistemarik geratzen: "Izan daitekeenaren pistaren bat badago, hori baino ez, ze natura berez saiatzen da, denbora osoan, kolonizatzen, zuhaitzen haziak eta landareak bertan baitaude; baina asko saiatzen gara hori kontrolatzen, eta mozketak egiten dira, desbrozeak, eta erreka ertzean ez dago, gainera, espazio handirik. Beraz, ezin dugu beharke lukeen moduko baso bat ikusi: egur hilarekin, zuhaitz handiekin, edo zuhaixka eta belar nahasketa handiarekin... Halakorik ez dago".

Eta herriguneetatik kanpora ere, tamalez, erreka inguruko berezko ekosistema oso gutxiagotua dago: "Industria-guneak ditugu erreka bazter-bazterean eraikita; ditugu azpiegiturak –

## Gipuzkoako ibaiak, zenbakietan

| Ibaia    | Azalera               | Luzera  | Batez besteko plubiometria | Batez besteko isurketa urteko |
|----------|-----------------------|---------|----------------------------|-------------------------------|
| Deba     | 533,8 km <sup>2</sup> | 62,4 km | 1.384 mm/urte              | 12,56 m <sup>3</sup> /s       |
| Urola    | 337,5 km <sup>2</sup> | 63,5 km | 1.329 mm/urte              | 10,87 m <sup>3</sup> /s       |
| Oria     | 882,5 km <sup>2</sup> | 82,7 km | 1.547 mm/urte              | 29,79 m <sup>3</sup> /s       |
| Urumea   | 279,0 km <sup>2</sup> | 59,4 km | 2.500 mm/urte              | 13,63 m <sup>3</sup> /s       |
| Oiartzun | 85,3 km <sup>2</sup>  | 16,6 km | 2.333 mm/urte              | 3,71 m <sup>3</sup> /s        |
| Bidasoa  | 700,0 km <sup>2</sup> | 69,0 km | 2.100 mm/urte              | 28,7 m <sup>3</sup> /s        |

ITURRIA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



Naiara Corcuera, Arrasaten, Aramaio erreka eta Deba ibaiak bat egiten duten tokian. J.I.

errepideak, autobideak... Toki berezi batzuetan aurki dezakegu: Arrasatetik Bergarara badaude zenbait puntu non haltzadia ez den ukitu hainbat hamarkadatan; Etxezarretan, edo Elorregitik Bergararantz ere badaude adibide polit batzuk".

Ibai-ekosistema gehiago kaltezu ez eta, ahal den neurrian, leheneratzen saiatu; berreskurapenera bidean, Arrasateko Udalaren ekintza bat dakar gogora Corcuera, adibide on moduan: "Landaketa bat egin zuten duela zenbait urte Mojategin, eta inguru horrek baso itxura du dagoeneko: zuhaitzak oso handiak dira, haltzak azkar hazten dira, eta sahatsak ere bai". Landare inbaditzaileekin egindako lana nabarmentzen du, horrekin batera: "Erreka bat degradatzen denean, kutsadura maila altuarekin, eta bertako landaretza guztiz ezabatzen denean, inguru horiek errazen kolonizatzen dituztenak landare inbaditzaileak dira. Eta, horiekin, bioaniztasuna murriztu egiten da: denean zabaltzen dira, eta ez dute uzten beste landarerik inguruan jartzen. Hemengo fauna ohituta dago belarra edukitzera, zuhaixkak edukitzera, zuhaitzak edukitzera, eta ez bakarrik banbu japoniarrak, esate baterako; martin arrantzale bat ezin da geratu, agian, banbu japoniar baten arrainak arrantzatzeko, ez diolako eusten". Naturzale arrasatearrak hainbat udalek –tarteetan, Arrasatekoak– banbu japoniarra kontrolatzeko

egindako lana goraiatzeko du: "Nahikoa kontrolatuta dagoela esan daiteke, eta horrek lagundu du haltzadia berriz ere bere tokia kolonizatzen has zedin".

Faunari dagokionez, habitaten degradazioagatik eta kutsaduraren ondoriozko uraren kalitate galeragatik Deba ibai ingurutik desagertutako espezieetako hainbat itzuli dira, berriz ere, bertara: "Duela urte batzuetatik hona ikusten dira arrain txikiak: loinak, ezkailuak, amuarrainak... Horiek egotea ornogabeak egotearekin lotuta dago. Arrainak egonda, hegazti arrantzaleak agertzen dira: martin arrantzalea, lertxunak, ur-zozoa ere bai –oso animalia berezia, ornogabe txikiak jaten ditu eta ur bazterretan egiten du habia–, buztanikara horia eta zuria... Horiez gain, igelak, apoak... Eta beste animalia berezi bat, eta Elorregin topatu dituzte haren arrastoak: igaraba; ugaztun handi bat, uretan bizi dena, eta uretako igelak eta karramarroak jaten dituena. Eta bisoi europarra, Europa mailan galtzeko arrisku larrian dagoen ugaztuna".

#### Itsasoratzea

Ekosistema, flora eta fauna; ur geza ur gaziarekin nahasten den

## CASACAMPO PADURA ETA ARTZABAL HEZEGUNEA GARRANTZITSUAK DIRA DEBAN

tokian sortzen diren baldintzek eta haien ondorioek aparteko aipamena merezi dute. Deban gertatzen da hori, Deba herrian, Leintz Gatzagan 62,5 kilometro gora jaiotakoa hiltzera doanean. Beste bizitza mota bat eragiten du. Euskal kostaldeko Geoparkeko Ingurumen arloko koordinatzailea da Gonzalo Torre: "Padura da itsasoko ohiko ekosistema. Marea jaisten denean bistan geratzen dira lokatzak, eta toki ona da hegaztiak eta beste animalia batzuk bertara etorri eta janaria bilatzeko. Ura gora datorrenean, ostera, estali egiten ditu bertako landareak ere; landare bereziak dira, beraz, urpera ohituak. Ekologian horri ekotono esaten zaio, bi medio desberdinek bat egiten duten tokia. Baldintzak asko aldatzen diren tokiak izaten dira, baina, horregatik, biodibertsitate handia edukitzen duten tokiak ere bai".

Torrek nabarmentzen du euskal kostaldean Txingudi eta Urdaibai artean dauden gun txikiagoek ere hegazti migratzaileen pausaleku moduan duten garrantzia: Debako Casacampoko padurek eta Artzabaleko hezeguneez, kasurako, okupazio maila altua duen ingurune baten erdian. Horiek egokitu eta leheneratzeko propio egin zituzten lanak erakundeek duela zenbait urte: "Hobeto egon zen antzina, okupatuta dago, berreskuratu da zerbait. Horrek laburbiltzen du orain Deba ibaiaren itsasadarraren egoera".



Deba ibaiaren itsasoratzea. J.I.



Igaraba. FACTUMQUINTUS

## Debagoieneko sare hidrografikoa

ITURRIA: GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK





# Aisiarako gune ere bada erreka

Ibaiko bizia bera bezala, denbora-pasarako erabiltzeko aukera ere ia erabat desagerrarazi zuen aurreko hamarkadetan Debak jasandako degradazioak – kutsadurak, neurri handi batean–. Uraren kalitatea hobetuta, egoera oneratzeko ari da

J.I. ARRASATE

"Gu erreka kontrari jaio ginen, eta errekek askorako ematen zuen orduan; ez bakarrik igeri egiteko, aberatsa zen zarbo-ekailuetan, loinetan, karramarroetan... Pentsa nola izango zen, gure aurrekoek adreiluak zituzten jarriak errekan; eta adreiluetatik aparte, kilometro batean, hamahiru dozena karramarro hartu genituen arratsalde bakarrean". Zarbo-ekailuak "angulak baino preziatuagoak" zituztela dio Alvaro Arregi arrasatearrak. Arregi aspaldiko kontuez ari da, noski, 50eko hamarkada amaieratik aurrera erreka guztiz kutsatu baino lehenagokoez –1945ean jaio zen 80ko hamarkadan Arrasateko alkate ere izandakoa–.

Gerora, gauza ezaguna da, arrain eta karramarrorik ez, bainatu ezta pentsatu ere, eta, are gehiago, erreka arrimatu ere ez gehienak. Bergarako Betti-Busti klubak hiru hamarkada daramatza herrian piraguismoa egiten eta bultzatzen. Lehenengo urteetan, baina, *ausartenak* baino ez ziren Deba ibaian sartzen, kutsaduragatik: "Joan behar izaten ginen Errobira, Iparraldera, edo Murillo de Gallegora, Huescara. Horiak ziren gertuen zeuden lekuak, bi ordutara autoz". Joseba Zangituk dio erreka hurbildu eta "lokatzetan itsatsita" geratzen zirela: "Auskalo ze poso zegoen hor, hainbeste urtetakoa! Entzuten zenien gurasoei-eta lehen bainatu ere egiten zirela, eta guk piraguarekin ere ezin erabili!".

Uretara sartuz gero, arriskua zen "piraguan buelta eman eta ura tragatzea". Zangituren esanetan, eurak baldintza zehatzetan baino ez ziren Deba ibaian sartzen: "Hiru egunez-edo euria

egiten zuenean gogor eta zikinak eramaten zituenean, apur bat garbiagoa zegoenean, orduan sartzen ginen. Baina gazteek entrenatzen zuten hemen nahikoa zikina zegoenean ere".

Orain, errekaekin gozatzeko aukera handiagoa dute Bergarako piraguistek: "Ur apur bat dagoenean, Elorregin hasi eta Agorrosineraino jaisten gara. Zati txikia da, baina jolasten-eta geratzen gara, praktikatzen, eta ordu pare bat egiten ditugu. Eta ibilbide polita da". Joseba Zangituk esandakoari Josue Lazkanok –Beti-Bustikoa hau ere– gehitzen dio Bergarako erreka zatiak badituela bere "olatuetan eta ur-bizirik".

Deba ibaia gozagarri, kirola eginez: "Erreka da bizitza. Errekan sartzea gozamen da, adrenalina handia eragiten du. Baina, nahiz eta mantso joan, ur gutxirekin ere, erreka kanpotik edo barrutik bizitzea ez da gauza bera. Barrutik ikusten den ikuspegia erabat desberdina da". Betti-Busti klubeko piraguistek Labegaraietan entrenatzen dute, batzuek lehiatu ere egiten dute, eta irteerak egiten dituzte beste erreka batzuetara. "Errekaren aitzakian ezagutu ditugu lekuak, jendea... eta bizitza egin dugu erreka inguruan".

## Aisialdirako guneak

Garai batean piragua barruan ere ez ziren, beraz, Deba ibaian seguru sentitzen. Bainatu nolatan, orduan! Zorionez, gauzak

## ARRANTZARAKO ETA PIRAGUISMORAKO AUKERA EMATEN DU DEBAK, BAINATZEKO ORAINDIK EZ

badoaz aldatzen, uraren kalitateak hobera egin du –oraindik behar lukeen bezain ona ez den arren–, eta han eta hemen hasi dira bainurako eta aisialdirako tokiak egokitzeko eskeak egiten. Horren harira, planteamendu bat baino gehiago egindakoak dira aurreko urteetan Arrasateko SUDC elkarteak. Oraingoz, dena den, ez dute erantzun baikorrik jaso. Ura agentzietatik esan izaten direla hala-koetarako, "ingurumen irizpideak" betetzea eta "uholde arriskua" kontuan izatea, adibidez.

Deba ibaitik at, ibaiadarretan, haietan bai, lehen bezala orain, badira bainurako tokiak, bakar batzuk, gutxi-asko, egokitutakoak –Oñatiko Usako da, zalantzarik gabe, ondoen prestatutakoa–, besterik gabe freskatzeko aukera ematen duten putzuak beste batzuk. Hor daude Bergarako Osin putzuak Angiozarrera bidean, edo Abrain errekaak, Buruñao auzotik Arane aldera doan bidea jarraituz; Eskoriatzan, berriz, Castañares da harribitxia.

## Bainua ez, arrantza bai

Arrantzarako bai, arrantzarako badago aukera dagoeneko Deba ibaian, arrainak itzuli dira-eta, behin urak gutxieneko kalitatea berreskuratuta –bai, behintzat, zenbait espeziek bizitzeko behar duten bestekoa–. Unai Etxeberria bergararrak gaztetatik dihardu arrantzan –hil gabeko arrantza egiten du–, eta urte batzuetatik hona Deba ibaian ere bai, Bergara erdigunean, adibidez: "Loinak, ezkailuak, aingirak... hasi ziren. Orain amuarrain banakak ere badaude. Niretzat ametsa zen hemen arrantzan egin ahal izatea, eta, zati batean, egia bihurtu dut".



Usakoko putzua, Oñatin. GOIENA



Gaztetxoak piraguan, Bergaran. GOIENA



Unai Etxeberria, Deba ibaian arrantzan. J.I.



San Andres auzoa egiteko Arrasaten sortutako kanala. J.I.



Begarako San Antonio Algodonera, Deba ibaiaren ertzean. BERGARAKO ARTXIBOA-JUAN IDIGORAS FUNTSA



Uholde arazoak saihesteko, gainezkabidea egiten, Antzuolan. IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ

# Ibaia, gizakiak makurrarazia

Errekako ura aspalditik izan du baliagarri industriak: mendeak atzera, errotek eta burdinolek, askotariko lantegiek geroago. Emandakoaren 'trukean', pozoiz bete zuten Deba ibaia. Hirigintzak ere nahieran tratatu du, kontuan izan beharrekoak alboratuta

## J.I. ARRASATE

Zenbait kasutan lotuta ere badaude industriaren loraldia eta hirigintzak errekan izandako eragina. Horrela dio 80ko hamarkadan Arrasateko alkate izandako Alvaro Arregik: "1950eko hamarkadan, industrializazioa gertatu zen. Gerra osteak bultzada handia ekarri zuen lanpostuei dagokienez, eta jende askok etorri behar izan zuen kanpotik, gure enpresek lan egin ahal izan zezaten. Orduan sortu zen San Andres auzoa: mila etxebizitza planteatu ziren, erreka erdi-erdetik pasatzen zen, eta errekaeren desbideratzea etorri zen". Gaur egungo San Andres auzo osoa barruan hartuko lukeela, zirkunferentzia erdia egiten zuen Deba ibaiak ia Intxausti paretik Etxaluze ingurura [Argazkian]; egin zutena izan zen batetik bestera

lerro zuzen bat bota eta erreka horrela kanalizatu: "Askoz azalera handiagoa sortu zen, horrela, etxeak egiteko".

Eta zenbat horrelako aktuazio! Egin kontu, Deba ibaia kanalizatuta dago bere ibilbidearen %30-45ean, zatiaren arabera; bestelako esku-hartzeak ere kontuan izanda, ibaiarekiko presioa %60-65 artekoa da. Oso Eraldatutako Ur Masa izaera du Deba ibaiak.

## Uholde arriskua

Ibaiaren ibilguan egindako aldaketak eta hirigintza zein in-

**LANTEGIEK ZUZENEAN ISURTZEN ZITUZTEN GAI KUTSAKORRAK ERREKARA; 1959AN, ERABAT ERRE ZEN**

dustria arrazoiengatik erreka ertzetan gauzatutako eraikuntza lanak, gainera, ibai-sistemaren funtzionamendua kontuan izan gabe egin direla dio Martin Arriolabengoa geologo aramaiorak: "Behin eraiki dugunean uholde lautadetan, badakigu eremu horiek direla noizean behin ureztatuak egon beharko luketen lekuak. Ez hori bakarrik, erreka inguruak urbanizatuta edukitzeak –hormigoiak eta abar– dakar prezipitatutako ura lurrazaletik zuzenean ibaira joatea, hark xurgatzeko aukerarik eduki gabe, eta horrek eragiten du erreka emaria oso bizkor haztea, eta, zenbat eta azkarrago hazi, orduan eta aukera handiagoa uholde lautadetan gainez egiteko".

Horrekin batera, kanalizatzeak ere baditu arriskuak: "Ubide natural batek baditu bihurtu-

neak, zuhaitzak ditu, arroka irtengune eta sarguneak, emariari trabak jartzen dizkietenak eta moteldu egiten dutenak. Kanalizatu egiten dugunean, bihurtuneak kendu egiten dizkiogu; bihurtuneak kentzean, luzera moztu egiten da, eta malda handitu: malda handiagorekin eta trabak kenduta, ura azkarrago jaitsiko da, eta une jakin batean sor daitekeen emaria handiagoa izan daiteke".

Argi dio Arriolabengoak: "Eraikuntza lanek eta erliebearen antropizazioak ez dituzte arrisku geologikoak eta, kasu honetan, uholde arriskua kontuan izan. Sistemaren eraiki dugu, sistema horren dinamika nola den eta nola jokatzeko duen kontuan hartu gabe".

## Industriaren erabilpena

Horrela eraiki zen aurreko bi mendeetan gaur egun ere Deba goiena eskualdea ezaugarritzen duen industria. Izan ere, errekatik gertu egotea beti etorri zaie ondo lantegiei. Alvaro Arregik aipatzen du Elma lantegiak nola hartzen zuen erreka ura hozte lanetarako; Jose Antonio Azpiazu historialari oñatiarrak, berriz, Garay enpresakoek ar-

gindarra sortzeko erabiltzen zutela inguruko presa batetik abiatuta lantegira iristen zen kanaleko ura –zer esanik ez, Arrasateko Zerrajerak ezarri zuen azpiegitura handia, gaur egun Oñatiko Ur-jauziak direna–.

Errekako ura baliabide garrantzitsua izan da industria-rentzat; trukean, ordea, zabor-tegi bihurtu zuen industriak ibaia. Gauza jakina da Zerrajerak zuzenean isurtzen zituela azidoak erreka, edo, Bergarako Algodonerak ekoizpenean erabiltzen zuen tintaren arabera, kolore batekoa edo bestekoa joaten zela Deba ibaiko ura. Eta gehiago, Alvaro Arregik dioen bezala: "Ez diegu kooperatibei errua botako, baina erreka behin baino gehiagotan erre zen 60ko hamarkada hasi baino lehenago; azkeneko aldir, zeharo jota gertatu zen 1959an. Ordutik aurrera, ez zen erreka generorik ateratzerik izan. Enpresa bakoitzak bere produktuak zituen, zirela pinturarako, bainu elektrolitikoetarako... bakoitzaren behararen arabera. Eta produktu horiek zuzenean erreka-joaten ziren, ez zegoen beste biderik. Inoiz ez da argitaratu inork zer egin zuen, baina ez dago erreka erretzean enpresek izan zuten eraginaren zalantzarik. Gero, errekupeazioa luzea da. Arrain banakak ikusten dira, baina urte batzuk gehiago behar dira oraindik egoerak lehenagoaren antza izan dezan, urte batzuk bai".

**UHOLDE ARRISKUA KONTUAN IZAN GABE EGIN DA ERAIKUNTZA, ETA BAITA KANALIZAZIOA ERE**



Arrasate eta Elorregi arteko San Prudentzio ZH presa botata, abuztuan. HASIER LARREA

# Presak eraitsi, leheneratzeko

Deba ibaian funtziorik ez duten hamar presa eraitsiko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak, Europako Merlin proiektuaren laguntzarekin. Debagoiengan bi bota dituzte eta beste bi botatzea da asmoa. Ibaien leheneratzean ezinbesteko dira eraisketak

## Miren Arregi ARRASATE

Ibaiak eta errekek leheneratzeko eta haiek gizarteari ematen dizkioten onurak areagotzeko ahalgina ez da berria eta begi-bistakoak dira ahalegin horren emaitzak erreketan. Duela 20 urteko eta gaur egungo Deba ibaiak ez dute zerikusirik. Ordukoa egoera penagarrian zegoen, kutsadura handia zen eta ibaia hilik zegoen. Ordutik gaur arte egin diren efektuzioei esker, une honetan arrainak bizi dira Deba ibaian, eta, erreka guztiz naturalizatu ezingo bada lortu ere –herri gehiegi daude eta jende gehiegi bizi da–, errekarren leheneratze horretan aurrerapauso handiak eman dira.

Errekak naturalizatzeko helburuarekin, Gipuzkoako ibai eta erreketan presak eraisten hasi zen Gipuzkoako Foru Aldundia duela urte batzuk. Izan ere, ez

dute inolako onurarik sortzen eta eragiten duten kaltea handia da: arrain migratzaileen joan-etorriak oztopatzen dituzte, ibaia artifizializatzen dute eta uholde arriskua handitzen dute. Hala, ibaia naturalizatzeko aktuzioen artean garrantzia handia du presen eraistea. "Gaur egun funtziorik ez duten presak dira, bere garaian errotetarako, burdinoletarako, enpresak hornitzeko edo beste funtzio batzuetarako eraiki zirenak", azaldu du EHUko Ekologia katedradun Arturo Elosegik.

## EUROPAKO MERLIN PROIEKTUAREN LAGUNTZAREKIN, HAMAR ERAITSIKO DIRA DEBA IBAIAN

## Hamar eraisketa Deba arroan

Gipuzkoako Foru Aldundiak duela urte batzuk ekin zion presa eta bestelako oztopo artifizialak botatzeari, eta orain, Europako Merlin proiektuaren babes eskuratu dute eraisketa planek. Ibaien errestituziorako Europako proiektu erraldoi bat da Merlin. 22 milioi euroko aurrekontuarekin, 17 tokitan ari dira errestituzio praktika desberdinak probatzen. Esaterako, Suedian, kastoreak sartu behar dituzte ibaiak naturalizatzeko; Herbehereetan, uholde arriskua murrizteko, Rhin ibaiari eremua zabaldu egin behar diote; eta gurean, presak kenduko dira. "Proiektu horren baitan, Arrasatek behera hamar presa kentzeko asmoa dugu", azaldu du EHUko Ekologia katedradun eta Merlin proiektuko kide Arturo Elosegik. Elgoibarren, Sorluzen,

## 205 presa edo oztopo eskualdean

Azken urteetan inbertsio handiak egin dira ibaien errehabilitazioan, eta testuinguru horretan kokatzen dira presak eraisteko planak. Izan ere, errota, burdinola edo enpresen horniketarako presa asko eraiki ziren erreketan duela 100, 200, 400 edo 600 urte. Gaur egun inolako funtziorik ez duten presak dira, eta ibaia kaltetzen dutenak: biodibertsitatea artifizializatzen dute, arrainen migrazioa oztopatzen dute eta uholde arriskua areagotzen dute. Hori horrela, gaur egun funtziorik ez duten presak eta oztopoak kentzeko konpromisoa hartu dute hainbat erakundek. Eta bada lanik; izan ere, Europan milioi bat presatik gora dago eta erdia kentzea da helburua. Gipuzkoan, esaterako, 1.000 presa inguru daude eta Foru Aldundiak 228 kentzeko plana du esku artean. Horietatik 100 kendu dituzte dagoeneko. Deba ibaian, berriz, 205 presa edo oztopo artifizial daude, Gatzagatik Sorluzerainoko zatian eta Debagoieneko zatiko ibai adarretan dauden guztiak kontutan hartuta. Deba arro osoan hamar kenduko dira, Merlin proiektuaren baitan, eta lau kendu dituzte dagoeneko. Foru Aldundiaren planaren baitan, litekeena da gehiago ere botatzea datozen urteetan, baina horiek Arrasatetik gora, eta Deba ibaiaren adarretan botako lirateke.

Bergaran eta Elorregin kenduko dituzte horiek. Dagoeneko lau eraitsi dituzte eta sei gelditzen dira kentzeko.

## Debagoiengan bi botata

Dagoeneko erorarazi dituzten lau presa horietatik bi zeuden Debagoiengan: bata, Matxiategin, abuztuaren hasieran bota zutena; bigarrena, Arrasate eta Elorregi arteko bidegorriko Errekabaltz tunelaren aldamenean. Hori ere abuztuan eraitsi zuten. Europako proiektuaren babesean, beste bi faltako lirateke botatzeko: bata Elorregin eta bestea Labegarietan. Arazoa da bi presa horiek ondare babes dutela; ondorioz, baimena behar dute eraisteko. "Ondarearen babes izan dezakete, baina presa batek leku hori artifizializatzen du eta, gainera, gora eta behera kilometro askotan beste eragin batzuk ditu. Horrez gain, uholde arriskua areagotzen dute nabarmen. Noski, presa batzuk mantendu beharko dira ondare direlako, baina ondo pentsatu beharko da zenbat eta zeintzuk", azaldu du Elosegik. Hala, bi presa horien deskatalogazioa derri-gorrezkoa litzateke eraitsi ahal

## PRESEK ARRAINEN MIGRAZIOA OZTOPATU, IBAIA ARTIFIZIALIZATU ETA UHOLDEAK AREAGOTZEN DITUZTE

izateko. Bergarako Udaleko Ingurumen teknikari Nerea Egiak azaldu duenez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzarekin lanean ari dira hori nola bideratu daitekeen erabakitzeko.

## Foru Aldundiak, guztira, 228

Merlin proiektutik kanpo, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2035era bitartean Gipuzkoako erreketan 228 oztopo kentzeko plana du. Hori horrela, litekeena da Debagoiengan beste hainbat oztopo eta presa kentzea. "Horiek Arrasatetik gora eta ibai adarretan egingo lirateke. Arrasatek beherakoak Merlin proiektuaren baitan egingo diren hamar horiek lirateke", zehaztu du Arturo Elosegik. Eraisketek ahalbidetuko dute ingurune garbiagoa izatea, biodibertsitate gehiagokoa, eta klima aldatetari aurre egiteko erresilienteagoak izango diren errekek izatea. Behin presak eraitsita, emaitza batzuk berehala antzematen dira. "Esaterako, ur geldoa desagertu egiten da eta urak abiadura hartzen du. Arrainen itzulerak eta ibai ertzeko landarediaren berreskuratzeak denbora gehiago darama, baina urte gutxian sumatuko da aldea", dio Elosegik. Are gehiago, apustu egingo luke urte gutxian izokinak ikusiko ditugula Deba ibaian. "Debagoiengan ez, oztopo gehiegi dutelako, baina bai Deba ibaian, Elgoibarreraino".





Joserra Diez, martitzen iluntzeko hitzaldia hasi aurretik, Oñatiko Santa Marina plazan. O.E.G.

# "Ibaia bera baino gehiago, arroa izan behar da kontuan"

**JOSERRA DIEZ** BIOLOGOA, IBAI EKOLOGIAN DOKTOREA ETA EHU-KO IKERTZAILEA

Ura zaindu egin behar dela dio, formatu egin behar garela gai horretan, eta koherentziaz jokatu, etor daitezkeen arriskuei aurre egiteko

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI

Oñatiko Natur Eskolak gonbidatuta egon da Joserra Diez (Bilbo, 1970) astean Oñatin, eta herriko errekek nola hobetu aztertzeko tailerra egin du herritarrekin batera, "soilik entzunda baino hobeto elkarbanatzen delako ezagutza". **Zein da Oñatiko erreken egoera?** Egoera desberdin asko daude Oñatiko ibaietan. Iturburuak, egoera ezin hobean; gune urbanoa, baina, guztiz kanalizatua. Errepideak daude ibai er-

tzetan eta biribilguneak ere bai gainean.

**Herri barruan oso estuak direla diozu. Zer esan gura du horrek?**

Ez dela ona. Ondorioak ditu, ekosistemaren eta gizakiaren osasunean, uholde arriskua han-

**"EZ DA NAHIKOA UR TXORROTA ITXITA IZATEA HORTZAK GARBITZEN DITUGUN BITARTEAN"**

ditzen dute, kalteak sortu eta behera urak abiadura handian iristen dira. Kanalak dira, ez ubideak.

**Nolakoa izan behar du ibaiak?**

Haren askatasun eremuan, dimentsio longitudinala, alboetako eta bertikala, ukitu gabe, eraldatu gabe, dituen. Horrelakoak, baina, ez dira existitzen. Munduko ibaien %75etik gora eraldatuta daude; gurean, ia guztiak. Berez, ibaiak askatasuna behar du bere egitura osatzeko –ura, fauna, flora, ha-

rriak...– eta funtzioa betetzeko –arrainen migrazioa, sedimentuen garraioa, arnasketa, nitrifikazioa...–. Arroarekin lotura hertsia izan behar du, inpakturik gabekoa eta herritarren kontsiderazioa, noski.

**Eta presak bota egin behar dira?**

Presek erreken dimentsio lineala oztopatzen dute. Kardiologiarren hizkeran, *tronboak* direla esan genezake, ubidea oztopatzean erreken funtzionamendua kaltetzen baitute ura eta sedimentuak geldituz, uraren ezaugarriak eraldatuz, tenperatura handituz, oxigeno disolbagarritasuna zailduz, usainak sortuz eta erreken zenbait prozesu kaltetuz. Era berean, presetan behera ondorio nabarmenak daude; besteak beste, sedimentuen falta eta ubideen ebakidura. Ahal den neurrian, ibaien konektibotasuna berreskuratu behar da eta presak de-segin neurri berean, beste aukera batzuk bilatuz errekek permeabilizatzeko. Desegite horretan, aldagai asko sartzen dira: kontzesioa indarrean ez egotea, ondare gisa kalifikatuta ez egotea, teknikoki posible izatea... eta, kasuren batean, herritarren oposizioa ez edukitzea. Horren harira, aipagarria da Gipuzkoako Aldundiaren jarduna, errekek permeabilizatzen esperientzia handia baitu azken hamarkadetan, eta baita planifikazioa ere datozen urteetarako. **Zikinkeria ere ikusten da ibaietan. Nola ikusten ditu gizakiak?**

Bai, zikinkeria oztopo bilakatu daiteke, baina ezin dugu nahastu zaborra ibaietan berez gartzen den landarediarekin. Beste gauza bat dira oztopo kimikoak; horien presentziaren eraginez, arrainek eta beste bizidun batzuek ezin dituzte ohikoak diren mugimenduak gauzatu. Bestalde, pertsonok ibaiekiko, normalean, oso ikuspegi murrizta dugu, ubidea baino ez dugu ikusten. Eremu domestikatuak aldarrikatzen dira eta horrek talka egiten du gure ibaien eta erreken izaerarekin.

**Erreka garbiketaz gain, bestelako neurriak hartu behar direla diozu.**

**"IBAIEN KONEKTIBOTASUNA BERRESKURATU BEHAR DA, AHAL DEN NEURRIAN"**

Errekek garbitzea, berez, egitasmo positiboa da. Positiboa litzateke garbitzeko beharrik ez izatea, eta nik ez dut uste hori herritarren ardura bakarrik denik. Hala ere, lurraldearen zaintza tresna ezin hobea da habitatak, ibar-basoak eta abar berreskuratzeko. Errekek garbitze huts horretatik abiatuta, begiratu behar da erronkaren dimentsio kolektiboa zein den. **Politikak aldatu behar dira?**

Arroa lurraldea ulertzeko eta kudeatzeko oinarritzko unitatea da, bertan gertatzen diren prozesuen –fisikoak, kimikoak, biologikoak, sozialak– arteko erlazio konplexua ulertzeko. Oreka dinamikoa duen ekosistema da, materia kontinentetik ozeanora transferitzen duena. Beraz, arroko erabilera guztiek eragina dute uraren kantitatean eta kalitatean, eta ibaiak eta errekek arroaren ondorio dira. Ikuspegi ekosistemikoa behar da: arrotik politika hidrologikoa egin behar da, ubidetik baino gehiago. Tamalez, arroaren ikuspegi hori ez da kontuan hartzen eta arlo hidrologikoa, ibaiak eta errekek barne, modu isolatuan kudeatzen dira, arroarekin eta han gertatzen diren lurralde erabilpenak aintzat hartu gabe. Adibide ezin hobea da baso-politika, hazkuntza azkarreko espeziatzen eta intentsitate handiko baso-lanak dituen, Gipuzkoan, eta Oñatin, azalera handia hartzen duena. Lurzoruaren galerari, ebatoptranspirazioari eta halako kontuei ez diegu erreparatzen, eta bada garaia. Esate baterako, klima aldaketaren arriskuen aurrean, horrelako kontuetan arreta jarri behar da azkar, lurraldea erresilienteagoa izateko.

**Uda lehorra eta beroa izan da. Ur eskasia ere ikusi dugu. Jabetu gara horretaz? Zer egin dezakegu horren aurrean?**

Planifikazioa, aurre hartzea, eskala lokalean aritu, prebenitu, arro mailan planifikatu. Bestetik, formatu eta koherentziaz jokatu behar dugu. Ez da nahikoa ur txorrotara ixtea hortzak garbitu bitartean. Uraren gainekoetan *alfabetatu* behar dugu: faktura irakurtzen jakin, kontsumoa ezagutu, uholdeen arriskua ulertu... Ura baliabide publikoa dela ulertu behar dugula, giza eskubidea. Eta gu ez gara inoren bezeroak, erabiltzaileak baizik.



# **GIPUZKOAKO OZTOPOAK IRAGAZTEKO PLAN ZUZENDARIA 2020-2035**

**HELBURUA: ibaien konektibitatea hobetzea**

**Gipuzkoako ibaien nabigagarritasuneko 420 km baino  
gehiago berreskuratuko dira**

**225 oztopo kenduko dira**

**8,5 milioi euroko inbertsioa**

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Ingurumena eta Obra  
Hidraulikoetako Departamentua



**ETORKIZUNA ORAIN**  
Es futuro

# Anfibioendako urmael berria prest dute Elgetan

Herri Eskolak, Elgetako Udalak eta Aranzadi Zientzia Elkartek elkarlanean bultzatuta anfibioendako urmaela egokitu dute hilerrri ondoko lur eremuan. Euri urarekin beteko da poliki-poliki, eta uhandreak eta txantxikuak espero dituzte bertan

## Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Gaur astebete, mugimendu handia izan zen hilerrri ondoko lur eremuan; lehen bizikletendako zirkuitua zegoen espazioan. Udalak bultzatuta, anfibioendako urmaela egin dute bertan, eta, hasierako lanak udal brigadako langileek egin bazituzten ere, eskolako ikasleek, irakasleek eta gurasoek eman diote errematea.

Eskola egun berezia izan zen. Taldeka antolatuta, Lehen Hezkuntzako sei taldeetako ikasleak txandaka bertaratu ziren, eta nork bere egitekoa izan zuen. Zuloa prest aurkitu zuten; izan ere, udal brigadako langileek egin zuten, hondeatzeko makina batekin. Hala, hasierako lanen artean izan zen uraren iragaztea saihesteko material berezia jartzea. Behin hori eginda, lurrez estali zuten urmael guztia, eta izan zen aitzurra hartu eta handiegia ziren lur piloak desegin eta lurra berdintzeko lanetan jardun zuenik ere. Handik aurrera, baldeak lurrarekin bete, urmaela izango den zuloraino eramane eta azalera guztia estali zuten.

## Gurasoen txanda arratsaldean

Gurasoak arratsaldean bertaratu ziren, eta urmaela egiteko



Ikasle, irakasle, guraso eta Udaleko ordezkari talde bat auzolanean. HERRI ESKOLA



Eskolako ikasleak filtrazioak mugatzeko materiala jartzen. HERRI ESKOLA

lanak ia amaituta aurkitu zituzten. Haien egitekoa izan zen ur putzua inguratzen duen hesitura jartzea. Adi entzun zituzten Aranzadi Zientzia Elkarteko herpetologia saileko Ane Fernandez jarraibideak, eta udal brigadako langileekin batera jarri zuten itxitura.

## Euri-urarekin beteko da

Euri-urarekin bateko da urmaela, poliki-poliki. Horrela azaldu du Aranzadi Zientzia Elkarteko adituak. Hutsik jarraitzen du, oraingoz; izan ere, apenas egon da prezipitaziorik aste honetan. Oso pozik agertu da elgetarrek urmaelaren inguruan egindako auzolanaren inguruan. "Eskolako umeak oso gogotsu aritu dira. Asko etorri dira, eta oso aktibo ibili dira, txikienetatik hasi eta handienetaraino. Asko lagundu dute", esan du. "Gurasoak ere ederki aritu dira".

Urmaelaren helburua zein den galdetuta, erantzun du habitat berri bat sortzea zela asmoa, eta lan hori auzolanean egitea. "Dena ondo badoa, pixkanaka, anfibioak, odonatuak eta antzerako izaki bizidunak iritsiko dira, eta ekosistema txiki bat osatuko da, gero eskolak ikertu ahal izateko edo eskolatan landu ahal izateko". Ekosistema horretara egokitutako izakien etorrera iragarri du -animaliak zein landareak-, nahiz eta ez duen zehaztu zenbat denbora beharko den horretarako. "Inguru honetan aberastu egingo da biodibertsitatea. Ur puntu berri bat sortuko da, eta ur horretara moldatutako izaki bizidun ezberdinak etorriko dira. Horrek ekarriko du inguru honetan biodibertsitatea handitzea". Jarraipena egingo diote Aranzadi Zientzia Elkartetik.



GOIENA

## "Lan polita egin dute elgetarrek"

ANE FERNANDEZ ARRIETA ARANZADI

Aranzadi Zientzia Elkarteko herpetologia sailekoa da Fernandez. Urmaela egokitze lanen jarraipena egin du.

## Zer da herpetologia?

Anfibio- eta narrasti-espezieen populazioak babestea du helburua, eta, aldi berean, arlo horretako zientzia-egaztuta sortzea.

## Ze anfibio mota agertuko da urmaelean?

Ziurrenik, lehenengo, uhandre palmatuak helduko dira; eta gero, txantxikua etortzeko aukera dago. Joango gara ikusten eta jarraipena egiten, baina arruntenak horiek izan daitezke.

## Inguruko biodibertsitatean eragina izango du?

Ur puntu berri bat sortzen ari gara, eta ur horretara moldatuta dauden animalia eta landare ezberdinak etorriko dira. Beraz, bai.

## Unai Cantabranak joko du Danbakako chill out gunean gaur

Gaur izango da Danbaka Musika Lehiaketako lehen zuzeneko saioa, 21:30ean. Bergarako Seminarioa aretoan izango dira saio guztiak, eta Errege Seminarioaren arkupeetan egokituko chill out gunean joko du gaur elgetarrak. Haren azken sorkuntzak eskainiko ditu, besteak beste. Cantabranaren saioa 20:00etan izango da.

## Bigarrenengo erreka auzolanean garbitzeko deia

Debagoieneko eragileek bat egin dute bihar, urriak 15, erreka garbiketara eguna izan dadin bailara osoan. Bigarrenengo erreka aukeratu du Elgetako Udalak ekimenarekin bat egin eta erreka auzolanean garbitzeko. Taldea 09:30ean elkartuko da, Mendizaleen Plazan. Ezinbestekoa da aurrez izena ematea (Ikus 23-34 orriak).

## Elgetako liburutegiak martxan du X. marrazki lehiaketa

Gaia aurten da *Liburutegian egiten dut*. Parte hartzaile bakoitzak marrazki bakarra aurkez dezake, eta lehiaketa zabalik dago 2006-2017 urteen artean jaiotakoei. Hiru kategoria izango dira: 5-8 urte, 9-12 urte eta 13-16 urte. Lanak aurkezteko epea zabalik da eta urriaren 31n itxiko da. Lehiaketako oinarriak eskuragarri daude liburutegian.

## OHARRAK

### Mendi irteera domekan

Kantsatzeke mendi taldeak Altzaniako mendietara egingo du irteera domekan. Taldea 08:00etan abiatuko da Elgetatik.

### Xalbadorpe erretiratuen elkarte

Gernikako azokara egingo dute txangoa hileko azken astelehenean. Izen-ematea domekan izango da, 11:00etatik 12:30era, Ozkarbi elkartearen. Prezioa 30 euro da. Urriko podologo kontsulta, berriz, astelehenean izango da.

### Energia berriztagarrien komunitatea

Bigarren batzarra eguaztenean izango da, hilaren 19an, 18:30ean, Espaloian. Gaia: argindar fakturak ulertzeko gakoak.



San Joxepe eremuan kokatuta dauden ortu komunitarioak, eguzten arratsaldean ateratako argazkian. NEKANE MUÑOZ



Ortu komunitarioen lursailak zehazten dituen planoak. B.U.

## 21 lursail esleitzeke daude oraindik

Ortu komunitarioetarako 91 lursail aurrekusi ditu Udalak eta horietatik 75 lursail esleitu ditu, behin-behineko izaerarekin; behin betikoa izateko, 50 euroko fidantza ordaindu behar da eta baratze gintza ekologikoari buruzko ikastarora joan beharra dago.

# Lursailak esleitu dituzte ortu ekologikoetarako

San Joxepeko eremuan kokatuta dauden ortu komunitarioetarako 91 lursailetatik 75 esleitu ditu Udalak, behin-behinean; eskatzaileek 50 euroko fidantza ordaindu eta urriaren 22ko edo 29ko ikastaroetara joan beharko dute baratzeak erabiltzen hasteko

### Jokin Bereziartua BERGARA

San Joxepen kokatuta dauden ortu komunitarioetako lursailak esleitu dira, urriaren 5ean egin-dako zozketaren bidez. 75 lursail banatu dira urtebeterako –urtez urte luza daiteke–, eta beste 21 daude erabilgarri. Ortuen esleipena bideratzen denean, epez kanpo jaso diren eskaerak tramitatzeko hasiko da Udala, jaso

diren hurrenkeran. Horrek esan nahi du orain ere interesa duten herritarrek eskaera egin dezaketela. Urriaren 5ean egin-dako zozketan beste 21 lursail horiek banatzeko hurrenkera ere erabaki da.

### Fidantza eta ikastaroa

Hori bai, orain arteko esleipenak behin-behinekoak dira; esleipe-

na behin betikoa izateko eskatzaileek honako bi baldintza hauek bete beharko dituzte: batetik, 50 euroko fidantza ordaindu beharko da, transferentzia kontu korrante honetara eginda: 2095 5070 79 1061075569 (Kutxabank); kontzeptuan eskatzailearen partzelaren zenbakia adieraztea nahikoa izango da. Bestetik, etorkizuneko ortuon

erabiltzaileek Udalak antolatutako baratze gintza ekologikoaren gaineko ikastarora joan beharko dute alde aurretik.

Ikastaro horietarako bi data zehaztu dituzte, ortuetan bertan: urriaren 22an eta urriaren 29an, 09:30etik 13:30era; hilaren 22ko saioa euskaraz izango da eta hilaren 29koa, berriz, euskaraz eta gazteleraz. Udaletik eskatu dute alde aurretik izena ematea ikastaro horietarako: [negia@bergara.eus](mailto:negia@bergara.eus) helbidera mezua bidali beharra dago, edo 943 77 91 56 telefono zenbakira deitu.

### Aisialdirako, ez saltzeko

Ortu ekologiko hauekin "aisialdi aktiborako eta inklusiborako topagune bat" sustatu nahi du Udalak, gizatalde ezberdinen arteko elkarbizitza eta harremanak nahiz belaunaldien arteko trukea bultzatzeko; eta, aldi

berean, nekazaritza ekologikoari bultzada emateko. Hala, helburuetako bat aisialdia den heinean, baratze hauetatik ateratako produktuak saltzea debekatuta egongo da, eta, beraz, norberak kontsumitzeko eta etxeko erabilerarako soilik diren produktuak bakarrik landatu ahalgo dira. Behin betiko izaeraz esleipena jasoko duten herritarrek behartuta egongo dira elkarte bat sortzera baratzeak kudeatzeko, eta, horrez gain, udal arduradunarekin zuzeneko harremana izateko pertsona bat izendatu beharko dute.

## URRIAREN 22AN ETA 29AN EGINGO DIRA DERRIGORREZKO IKASTAROAK; ORTUETAN, GOIZEZ

# "Mendiko herriak husten ari dira, drama handi baten hasiera da"

## IÑIGO ZUBELDIA ELOSUKO ALKATEA

Urriaren 12ko feriak agur esan du, "jarraipen faltagatik"

### J.B. BERGARA

2019koa izan zen Elosuko azken feria, 41. edizioa. Iñigo Zubeldia auzo-alkateak GOIENARI azaldu dio desagertzearen arrazoia. **Zergatik desagertu da Elosuko mendi eta ganadu feria?**

Batez ere, ez dagoelako jarraipenik. Elosuan gero eta auzotar gutxiago gaude eta gero eta zaharragoak, eta ilusioa ere kaltetuta zegoen. Nola edo hala antolatu beharrean, erabaki genuen bertan behera uztea;

izan ere, urtez urte gero eta zailagoa izaten zen 80 bat lagun elkartzeko lanerako, tiraka ibili behar izaten genuen. Gainera, argi ikus daiteke landa eremua eta mendiko herriak husten ari direla, eta horrek eragin digu jende falta izatea halako egun bat antolatzeko. Politika eraginkorrik ez bada egiten landa eremua bizirik mantentzeko, kondenatuta gaude.

**Zer galduko du Elosuak feria barik?** Auzolanean antolatzen genuen egun polit baterako ilusioa gal-



Iñigo Zubeldia, asteon. J. BEREZIARTUA

duko du Elosuak. Lan handia zen, baina gogoz eta ilusioz egiten genuen, giro onean eta elkarrekin. Bestalde, bisitariek familia giroan gozatzeko egun polit bat galduko dute.

**Egun tristea urriaren 12koa, ezta?** Bai. Drama handi baten hasiera da. Jendeak jakin behar du mendi auzoetako ekimenak ez badira zaintzen, pikutara joango garela. Hori esanda, Elosuko feria posible egin duten laguntzaile guztiei gure eskerrik beroena adierazi nahi diegu.

# Arrizuriaga, Zabalotegi eta azoka dituzte lehentasun

Agintaldi amaierara begirako erronka nagusien berri eman du Udal Gobernuak; tartean, Arrizuriaga egonkortu ostean kultura proiektu "berria eta berritzailea" martxan jartzea, Zabalotegiko jolas parkea berritzea eta Oxirondoko azoka berrantolatzea

## Jokin Bereziartua BERGARA

Arrizuriaga jauregia, Oxirondoko azoka eta Zabalotegiko jolas parkea berritzeko erronkak zehaztu ditu Udal Gobernuak, besteak beste, agintaldi amaierari begira; betiere, *Bergara izan, bizi, ekin* plana "iparrorraz" hartuta. Arrizuriaga egonkortzeko lanak "aurreratuta" doazela dio Gorka Artola alkateak, eta eraikin baten obrak egitea baino "askoz gehiago" dela Arrizuriagako proiektua: "Ondoren barruan garatuko den herrirako kultura proiektu berria eta berritzailearen lanketa ere abiatuta dago. Kultura eragileekin elkarlanean garatzen ari gara, gure egiteko moduan daroagulako elkarlana, gure ezaugarri bat izatea nahi dugulako. Bergarako aberastasun kulturalari ekarpena egingo zaio proiektu horrekin, eta askotariko adierazpideei bidea zabaldu".

## Azoka berri eta berrantolatu

Azoka biziberritzeko proiektuaren bueltan ere kontzeptu bera nabarmendu du Artolak: "Espazioa berritzea eta berrantolatzea baino askoz ere gehiago izango da". Irailaren 26ko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak kreditu aldaketa bat lan horiei ekiteko; EAJ eta PSE-EE abstentitu egin ziren. Jeltzaleen kezka



Arrizuriaga egonkortzeko lanak "amaitze" daudela dio Udal Gobernuak. I. ARANBARRI

da azokaren kudeaketaren inguruan oraindik lanketarik egin ez izana, eta gaineratu zuten lanketan laguntzeko prest daudela. EH Bilduk azaldu zuen, baina, obra hau lanketa zabalago baten barruko urrats bat gehiago dela, bere ibilbidea duen egitasmoa dela eta EAJk parte hartzeko aukera izan duela hasieratik.

## Obra handien amaiera, laster

Horrez gain, agintaldiko obra esanguratsuenak izan diren Zubieta eta Masterreka kaleak be-

rriri urbanizatzea eta Agorringo zelaia berritzearena "amaitze" daudela gogoratu du Udal Gobernuak. Eta, "dimentsio txikiagokoak" izanda ere, "ilusio berezia" sortzen duten proiektuak azpimarratu ditu alkateak: "Duten izaeragatik, esaterako, dependentzia apala duten adinekoentzat San Joxepen zabalduko dugun *Arin* zerbitzu berria aipatuko nuke. Pertsona horien autonomia eta bizi-kalitatea hobetzen lagunduko du eta zerbitzu oso aproposa izango da". Pertsona nagusien ongizateari lotuta, eta

gizartean haien bizi esperientziak duen garrantziari jarraituta, Pertsona Nagusien Kontseilua sortzeko bidea ere zabalik dago.

## Hainbat asmo mahai gainean

Herritarrentzat "garrantzitsuak" izango diren beste lan batzuk ere aipatu ditu Artolak; esaterako, Boluko maldaren egonkortzerako lanen lehen fasea amaitzea. Ortu komunitarioena ere lehentasunezko proiektua da Udal Gobernuarentzat; herritarrek datozen egunetan jasoko dute formakuntza (Ikus 36. orria). Beste hainbat asmoren berri ere eman dute: Osintxuren biziberritzera begira "hainbat interbentzio"; herri barruko bidegorri sarea berri eta bizikleten eta autoen artean bidea partekatuzko prestatu; ur txorroten gunea sortzea, parke estalia egitea eta Zabalotegiko jolas parkea eraldatzea eta berritzea; nerabeak "subjektu aktibo" izan daitezen euredako "parte-hartze organo bat" sortzea; eta gertukoei agur esateko espazio laiko baten falta "askotan" sumatu ostean hileta zibilak egiteko gune bat sortzea -EAJk azken urteetan egindako eskaeretakoa bat da, besteak beste-.

## Lanketa "publiko-komunitarioa"

Bestalde, Udal Gobernuak elkarlan "publiko-komunitarioaren" ideia ere azpimarratu du, lan egiteko modu gisa: "Hainbat proiektu eta lanek ikusiko dute argia laster. Egun gutxi barru zabalduko da Ehundu eraldaketa sozialerako bulegoa, esaterako. Gainera, Energia Berriztagarrien Komunitatea (EBK) sortzeko urratsak ere egin dira, eta laster gauzatuko da. Eta UNEDen kokatuta Alkar Lankidetzaren Gunea ere zabalik dago".



Iralaren lekuan, *Askatasuna kalea*. ERNAI

## Hispanitate Eguna: 'Askatasuna kalea' izena jarri diote Iralari

Hispanitate Egunaren harira, kolonialismoaren aurkako ekintza aldarrikatzailea egin zuten hilaren 11n Ernai Bergarakoek. Hain zuzen, *D. Irala kalea* jartzen zuen plaka kendu eta *Askatasuna kalea* moduan izendatu zuten: "Aro Garaikidean, herriko kale nagusietako batek Domingo Martinez de Irala konkistatzaile eta kolonizatzailearen izena izateak ez dauka lekurik".

## Euskaraldia: izen-ematea herritarrek eta entitateek

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingo den Euskaraldiaren hirugarren edizioarako izen-ematea zabalik dago. Barrenkaleko 35. zenbakian kokatuta dagoen lokalean eman daiteke izena, eta baita [bergaraeuskaraldia@gmail.com](mailto:bergaraeuskaraldia@gmail.com) helbidera idatzita ere. Entitateek urriaren 31ra arte eman ahaliko dute izena; 120 entitate baino gehiago dira dagoeneko.



## Realaren eta Mallorcaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

### GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Mallorca partida beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko tokirik onenetik. Urriaren 19an, eguaztena, 20:00etan. Parte hartzeko azken eguna: Urriak 16

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!



goiena<sup>''</sup>  
kide

Okm:  
batzen gaituen  
distantzia



Ezkerrean, Mikel Laskurain saria jaso berri; eskuinean, Yune Nogueiras, Emakumezko Errebelazio Aktorearen sariarekin. EAB

## Laskurain eta Nogueiras, euskal aktoreen begiko

Euskal Aktoreen Batasunak ematen dituen Besarkada sarien galan, Mikel Laskurain eta Yune Nogueiras bergararrak protagonista izan ziren. Laskurainek 'Patria' telesailagatik jaso zuen saria eta Nogueirasek, berriz, 'Intimidad' eta 'Los Santos Inocentes' lanengatik

### Jokin Bereziartua BERGARA

Antzerkian, telebistan eta zinema jarduten duten euskal aktoreak saritu zituen urriaren 11n Euskal Aktoreen Batasunak, Donostian. Besarkada sariak banatu zituzten, eta Debagoienak eta, bereziki, Bergarak protagonismo berezia izan zuten Getari Etxegaraik eta Maria Urzelaik zuzendutako galan. Izan ere, Kepa Errasti, Jon Olivares eta Mikel Laskurain ziren izendapena jaso zuten aktore debagoiendarrak; Laskurainek jaso zuen Telebistako Gizonezko Aktorerik Onenaren saria, *Patria* telesailagatik.

### Laskurain, "ilusio handiz"

Gasteizko Printzipal aretora bidean, *Familia sarekada* obra entseatzera zihoala jaso zuen GOIENAREN deia Laskurainek, atzo goizean. Besarkada saria jaso eta berehala urduri jarri zela dio: "Agertokira igo eta txiste bat kontatu ostean lasaitu nintzen; kar-kar. Lau ginen izendatuak eta banuen esperan-

tza saria jasotzeko. Hala ere, aitortu beharra daukat momentuan bertan ez nuela buruan izan saria *Patria*-gatik ematen zidatenik; nire ibilbide osoa izan nuen presente, baditugu-eta urte batzuk...". Hori bai, argi dauka "berezia" izan dela *Patria* haren ibilbidean: "Lehen aldia izan da halako produkzio handi baten parte hartu dudana, halako aurrekontu handiarekin eta horrenbeste egun errodatzen. Alde horretatik, berezia izan da".

Euskal aktoreek ematen duten saria izanik, bereziki pozik dago Laskurain: "Kazetariak eman dezaketen sari batek baino ilusio handiagoa egiten du, beste maitasun eta gertutasun bat da. Hala ere, ez pentsatu boto asko

**'ALTSASU' LANAGATIK  
IZENDATU ZUTEN JON  
OLIVARES, ETA KEPA  
ERRASTI 'LA TARARA'  
ANTZEZLANAGATIK**

jaso ditudanik, euskal aktoreak ez gara-eta asko...".

### Nogueiras, "oso hunkituta"

Eta aktore izendatuen artean ez egon arren, Yune Nogueiras bergararra izan zen galako beste protagonista aipagarri bat. Izan ere, Emakumezko Errebelazio Aktorearen saria jaso zuen Bergarako aktoreak, *Intimidad* eta *Los Santos Inocentes* lanengatik. "Sekulako sorpresa izan zen. Nire agentea eta aita ados jarri ziren nire ezer ez esateko, eta borobil atera zitzaizen jokaldia; berez, sari bat ematera joan behar nuen Donostiara, eta, azkenean, sari batekin etorri naiz Madrilera. Oso hunkituta nago", adierazi dio GOIENARI. Madrilgo etxeko logelan jarriko du Besarkada saria: "Egun txar bat alaitzeko balio izango dit, euskal aktoreek horren modu positiboan nire lana errekonozitu izana oso polita da eta. Badirudi bide onetik goazela, zerbait ondo egiten ari garela...".



B.U.

## Lau pasabideak berri dituzte

Boluko lau igogailuetarako pasabideetan eskubanda berriak jarri dituzte eta LED argiteria jarri dute. Herdoilduta zeuden burdinez egindako baranda zaharrak, eta altzairu herdoilgaitzez egindakoak jarri dira; Udalaren arabera, mantentzean diru gutxiago gastatuko da. Contrucciones Zubieder enpresak egin ditu lanak, eta 178.891 euroko kostua izan dute, BEZa barne.

## OHARRAK

### Euskaraz errazago irakurri eta idaztea

Udal Euskaltegiak ikastaro bat antolatu du, euskaraz jakin arren irakurtzen eta idazten erraztasuna hartu nahi duten euskaldunei begira. Astean bi saio egingo dituzte, goizean edo bazkalostean. Izena emateko interesa dutenek Udal Euskaltegira jo beharko dute; Irizar jauregiko harrera bulegora joan daitezke, edo 943 76 44 53 telefono zenbakira deitu.

### Ehundu: formakuntza saio berri bat

*Bizigarritasuna eta bideragarritasuna ekimen kooperatiboetan eta komunitarioetan* izeneko saiorako Lakariko Leire Udabe gonbidatu dute. Urriaren 18an izango da, UNEDen (17:00).

### Taila ikastaroan parte hartzeko gonbidapena

Taila elkarte ezagutu nahi duena gerturatu dadila urriaren 19an Zabalotegi kaleko 11. zenbakira; bilera 18:00etan egingo dute.

### 1935ean eta 1949an jaiotako ospakizuna

1935ekoak urriaren 23an elkartuko dira Sirimiri jatetxean bazkaltzeko: 943 76 18 52 edo 943 76 21 13. 1949koek, berriz, hilaren 28an Tartufon afalduko dute; izena emateko, 50 euro ordaindu behar da: ES20-3035 0009 1500 9116 1220 (Laboral Kutxa).

### Mendizabalek eta Melcovak joko dute Santa Marina elizan

Organo Erromantikoaren Zikloaren bigarren asteburuko kontzertua bihar izango da, urriak 15, Santa Marina elizan (20:00). Donostiako Alize Mendizabal eta Eslovakiako Monica Melcova organistak gonbidatu dituzte; bost pieza joko dituzte. Bergarako azken emanaldia hilaren 29an izango da (20:00), organo ikasleen eskutik.

**Kabutzia**

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62

# Domekan lau gaztek egingo dute debuta

Bergarako Musika Eskolan hezitako lau musikari gaztek debuta egingo dute bandarekin. Laida Unamuno eta Aimar Linzoain flauta-jotzaileak dira eta Uxue Vega eta Alazne Suinaga, klarinete-jotzaileak. Denetariko estiloak joko dituzte

**Xabier Urzelai** BERGARA

Domekan, hilak 12, Udal Pilotalekuan Bergarako Musika Bandak eskainiko duen urriko kontzertuan, lau gaztek debuta egingo dute: Laida Unamunok, Aimar Linzoainek, Uxue Vegak eta Alazne Suinagak -12:30; sarrera, doan-. "Esango nuke hiru urte pasa direla bandara azkeneko jende berria etorri zenez. Ez da egunero gertatzen den zerbait, eta berezia izango da, bai", adierazi dio GOIENARI aste barruan bandako zuzendari Enrike Txurrukak.

Hala, Txurrukak nabarmendu du normalean ez dituztela musikariak bandara bakarrik erosten; alegia, taldea egin arte itxaroten dutela: "Eurak ere erosoago egon daitezten egiten dugu hori, eta taldeko kide senti daitezten. Hala, emanaldiaren aurretik aparteko entseguak egiten ditugu eurekin, maila orain artekoa baino goragokoa izaten delako eta eurak ere seguruago senti daitezten, goza dezaten. Hori horrela, oraingoan laukotea direnez domekako kontzertuan ez diet aparteko atentziorik jarriko. Akaso, hori gehiago izaten da bandara gazte bakarrik ekartzen dugunean. Hor bai, saiatzen gara gainean egoten. Azken batean, lagun



Bergara Musika Bandako emanaldia, uztailean. GOIENA

taldea gara, eta garrantzitsua da musikaria gustura sentitzea".

## Emanaldi osoa

Domekan joko dituzten piezen artean daude *Certamen Levantino* (1916, Pascual Martina), *Athalia* (1845, Felix Mendelssohn), *Eusko Eleskiak* (1933, Jose Franco), *Rikudim* (1986, Jan Van der Roost) eta *A tribute to Amy Winehouse* (2006, Moldaketa, Peter Kleine Schaars): "Ahalegindu gara, beste batzuetan egin ohi dugun moduan, askotariko estiloak batzen. Uste dut aberatsa

dela. Pasodoble bat nahi duena asetzea ondo dago, baina gero, emanaldian entzun dezala Amy Winehouserri eskainitako pieza. Eta kontrara, abesti hori entzuzteratorrenak ikus dezala ze ederra den duela 100 urte sortutako pasodoble bat. Halakoetan beti jarri ohi dut adibide berbera: Su Ta Gar jo genuen kontzertuan kuadrillakoak etorri ziren emanaldira, eta urteak zeramatzen banda ikusi gabe. Bada, beste pieza batzuekin ere gozatu egin zuten, eta hori da nahi duguna".



IMANOL SORIANO

## Etorkizuneko txirrindulariak

Zapaturako Lokatzak antolatutako bizikleta festan 74 neska-mutikok hartu zuten esku. Arratsaldeko bizikleta gainean pasatzeko aitzakia izan zen, eta batek daki, akaso, Seminarioko patioan batu ziren gazteak Gorlako edo San Martzialeko igoeretan lehiatuko dira urte batzuk barru. Horraino iritsi barik ere, egunero bizikleta erabiltzen badute, helburua beteta.

## Pilota partiduak gaur, egubakoitza, eta zapatuan

Gaur, egubakoitza, 19:15ean hasita, pilota partiduak izango dira Udal Pilotalekuan. Arratsaldeko lehenengo bi partiduak infantil mailakoak izango dira. Eskuz banaka, Bergarako Montalbok Arrasateko Etxaberen kontra jokatu du. Jarraian, Contreras bergararrak Azkoitiko Alberdi izango du aurrean. Gazte mailako partiduan, eskuz binaka, Bergarako eta Eibarko pilotariak izango dira aurrez aurre, eta senior mailako partiduan ere bi herrietako ordezkariak neurtuko dituzte indarrak.

Zapatuan (12:00), emakumezkoen txanda izango da. Eskuz binaka, Bergarakoek Behar Zakoak izango dituzte aurrean.

## Ligako lehen garaipenaren bila Soraluze BKE

Liga hasiera ez dute nahi modukoa izan Soraluze BKE taldeko senior mailako mutilek, orain arteko bi partiduak galdu egin dituzte eta. Ligako lehenengo partiduan, etxean, gol bakarreko aldegatik galdu zuten Muntarperen kontra (21-22), eta, joan den astean, Ordizian bost goleko aldegatik galdu zuten (35-30). Hala, egoera horri buelta ematen saiatuko dira bihar, zapatua, 17:45ean, Labegarrietan.

Joseba Elorzaren taldeak aurrean izango duten kontrarioa Ormaiztegi da, eta, bergararrek bezala, goierritarrek ere ez dute liga ondo hasi, haiek ere oraindik ez dute eta partidurik irabazi.

**UGARTE**  
AROTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoiak  
Horma-armairuak  
Altzariak neurria  
Ateak · Eskailerak ·  
Leihoak · Tarimak ·  
Egur lanak

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 034630

**AROTEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 765491

**BERGARA**  
aroztegia@ugarte-aroztegia.com

**21**  
**K**  
KALITATEA

Enpresa Registrada N°00025

Aitor Zabaleta  
Tel.: 606 58 18 10  
www.txipi.com

TXIPI

LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

Sugoi

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.  
943 76 59 54 BERGARA



Angel Chamorro neurologo oñatiarra. ANGEL CHAMORRO

## Iktusei buruz arituko da gaur Angel Chamorro

Angel Chamorro neurologo oñatiarra iktusari buruzko hitzaldia egingo du gaur iluntzean Santa Anan, 19:00etan. Esperientzia Gela irekiko duen solasaldia izango da, 55 urtetik gora duten herritarrei zuzendutako ekimena

### Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Egubakoitzean egingo den hitzaldia inauguratuko du Oñatiko Esperientzia Gela, 55 urtetik gorako herritar guztiei zuzendutako ekimena. Angel Chamorro neurologoa eta iktusetan aditua den oñatiarraren hitzaldiak emango dio hasiera, hain zuzen ere.

### Iktusetan aditua

Oñatiko medikuetako baten semea, bertan jaio zen, 1958an, eta Valladolidera joan 1975ean mediku ikasketak egitera. Madrilen neurologian espezializatu zen, eta, iktusaren munduak erakarritu, horren aditu egitea erabaki zuen. Bartzelonan bizi da egun. 20.000 iktusetik gora tratatu ditu eta haren ezagutza partekatuko du egubakoitzean Oñatin egingo duen hitzaldian. Santa Anan izango da, 19:00etan.

Goienagusi elkartearekin batera jarri du martxan Udalak Esperientziaren Gela eta 55 urtetik gorakoendako hitzaldiak,

tailerrak zein irteerak antolatuko dituzte. Herritar multzo horren jakin-mina betetzea eta parte-hartzaileen arteko harreman sarea sortzea da ekimen honen helburua, Oñatiko zein inguruko herrietako biztanleen artekoa. Duela hamar urte abiarazi zuten Goienagusi proiektua Arrasten eta Bergaran, eta hilabete honetatik aurrera Oñatin ere eskainiko dituzte hitzaldiak.

Angel Chamorrorena da ikasturte honetako lehena, baina urrian bertan izango dira ekin-tza gehiago. Asteazkenean, esaterako, hamasei urte hauetan munduan zehar bizikletarekin egindako bidaietan hartutako esperientziak egingo du berba Aitor Igiñiz andoaindarrak. Eta

**HILEAN BI EKITALDI  
IZANGO DIRA OÑATIN  
ETA IKASTURTE  
HONETAN DOAN,  
HERRITARRENDAKO**

egunean, berriz, urriaren 20an, hamar kilometroko ibilaldia egingo dute Oñatin, 10:00etan Unibertsitate parean elkartu eta Garagaltza auzora abiatuta. Juanjo Alvarez eta Felix Arrieta izango dira Oñatira etorriko diren beste bi hizlari.

### Beste herrietara ere bai

Goienagusi elkarteak hilean bi ekitaldi antolatuko ditu Oñatin 2022-2023ko ikasturtean zehar, eta doan izango dira oñatiarrentzat. Hitzaldietarako joateko izena eman beharrik ez da izango, modu librean joan daitezke interesatuak hitzaldira. Arrastan eta Bergaran antolatuko diren ekintzetan ere doan parte hartu ahal izango dute oñatiarrek, urtea amaitu bitartean, abenduaren 31ra arte. Hortik aurrera, eskualdeko beste herrietan antolatzen diren ekintzetan parte hartu ahal izateko, Goienagusi elkartearen bazkide egin beharko dira. Horretarako bidea da: [goienagusi@gmail.com](mailto:goienagusi@gmail.com).

### Jabetze Eskolan hilaren 23ra arte eman daiteke izena

Guztira, bederatzi ikastaro, hitzaldiak, ikuskizunak eta gizonen taldea jaso dira udazkenerako egitarauan. Azken hori berria da eta feminismoaren aldarriekin bat egin eta parekidetasunerantz urratsak egin nahi dituzten gizonaekoei zuzenduta egongo da. Bestalde, neska gazteendako jabetze eskola eratze-ko beste ahalegin bat egin gura dute eta azaroaren 7an bilera irekia egingo dute, gaztelekuan, gazteen euren interesak eta proposamenak jasotzeko.

Emakumeen Etxea eraikitze-ko prozesu parte-hartzailearen lehen bilera, berriz, eguaztenean da, urriak 19, 18:00etan, Eltzia-ko topalekuan.

### Hilabetez itxita egongo da parrokia, astelehenetik

Pipia hedatuta dago parrokian, eta astelehenean itxi egingo dute, hilabetez, lan horiek egiteko. Azaroaren 18ra arte –biak barne– egongo da itxita. Parrokia-ko zorua, bankuak, konfesatokiak eta koruko eserlekuak tratatuko dituzte. Hilabete iraungo dute lanek, eta, bitartean, agustindarren elizan izango dira elizkizunak, baita hiletak ere.

### HERIOTZA-OHARRA

### Oihartzun handia izan du Manu Arregiren heriotzak

Ilartegi Astronomia Elkarteko sortzailea zen Manu Arregi, baita Fisika, Matematika eta Astronomia irakaslea ere Aranzadi ikastolan. Goienan ez ezik, beste hainbat tokitan ere kolaboratu izan du astronomiako aditu zen aldetik, dibulgazioan lan handia eginez. Proiektuen artean daude, Bergarako ikasleekin 2019an konekzioa lortzea Nazioarteko Espazio Estazioarekin eta 2014an txantxikua estratosferara bidaltzea, gaztelekukoekin. Ezustean hil zen domekan, 54 urterekin, eta Euskal Herritik kanpo ere izan du oihartzuna haren heriotzak.

### Euskaraldiaz gain, Hikaldia ere egingo da Oñatin

Oñatin ere egingo da Hikaldia. Hain zuzen ere, bertan parte hartzen duenak H hizkia duen pegatina batekin adieraziko du prest dagoela hari hitanoan berba egiteko; horretarako konpromisoa hartzen du, alegia. Txapak ere banatuko zaizkie. Bestalde, Euskaraldiaren barruan, hilaren 31ra arte luzatu dute entitateen izen-ematea.

### NIRE USTEZ



ONEKA ANDUAGA GARAI

### Badakigu, baina ez dugu erabiltzen

Bada azkenaldian kezkatzen nauen gai bat: herriko jendeak ez du euskaraz hitz egiten. Plazan, nerabe kuadrillen ondotik pasatzerakoan, gaztelera besterik ez dut aditzen; eta metro batzuk beherago poteoan dabiltzan gurasoen kuadrilletan ere gauza bera. Hau Oñati bezalako herri euskaldun batean gertatzen bada, ez dut pentsatu ere egin nahi arnagune ez diren beste lekuetan zer gertatuko den.

Eta ez da jendeak euskaraz hitz egiten ez dakielako; erabiltzen ez duelako baizik. Hor dauzkagu azken ikerketen datuak: Uemak ohartarazten du euskararen ezagutza goraka doan arren, erabilera gero eta apalagoa dela; bestalde, Soziolinguistika Klusterrak azpimarratzen du Euskal Herriko kaleetan behatutako zortzi pertsonatik soilik bat ari zela euskaraz.

Euskaraldirako motorrak berotzen ari garen honetan, hausnarketa (kritikatxo) bat luzatu nahiko nuke (nigandik hasita): 15 egunetan *Ahobizi* izango garenok kapaz izango al gara beste 350 egunetan txapatxoa mantentzeko?





Andoni Altuna, Amaia Erostarbe, Angel Biain, Nerea Altube eta Marijo Etxegoien martitzeneko aurkezpenen. L.Z.

# Olaitturriko gunea proposatu du EAJk Musika Eskola berrirako

Espazioaren heren bat hartuko lukeen 500 metro karratuko hiru solairuko eraikin berria egitea proposatzen dute, eta San Martin auzoa baino kokaleku egokiagoa dela diote. Musikako Eskolako hainbat eragile entzunda egindako proposamena dela azaldu dute

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI  
Olaitturriko gunea proposatu du EAJk herriko Musika Eskola berria egiteko. "Musika Eskolako eragileekin elkartu gara, eta entzundakoak oinarri hartuta egiten dugun proposamena da. Uste dugu San Martin edota Garoa baino kokaleku egokiagoa dela", esan du Amaia Erostarbek prentsa agerraldian.

**Arrazoi bat baino gehiago**  
Aukera horren aldeko arrazoiak ere eman dituzte. Kirol kantxaren heren bat hartuta, 500 metro karratuko hiru solairuko eraikin berria egitea proposatzen dute. "Horrek erantzuna emango lioke hainbat eragilek espazioaren azaleraren inguruan egindako eskaerari. Gainera, herrigunean dago eta eragile gehienek hori eskatzen dute. Horrekin batera, Oñatiko Udalaren jabetzakoa da

lur eremua, eta eraikin berria eraikitzeak aukera emango du nahi bezalako barne-antolaketa egiteko". Abantaila horiez gain, proiektuak inguruaren "berrantolaketa, egokitzea eta txukuntzea" ekarriko lukeela ere esan dute. "Bestetik, aldamenen daude agustindarren komentua eta eliza, eta epe luzera aukera emango luke inguru honetan, apurka-apurka, kultura-gunea bat sortzeko". Gehitu dute aretoa egotea ere ahalbideratuko lukeela: "Eltzian egindako saioetatik irtendako ondorio txostenen jasotzen da hainbat eragi-

**GAINDITU BEHARREKO PUNTUAK IZAN ARREN, DIOTE EGIN DAITEKEELA, BORONDATEAREKIN**

lek 300 bat metroko areto bat eskatu dutela".

**Leku aproposa**  
Jeltzaleek San Martin baino leku aproposagoa ikusten dute Olaitturri. Diote badituela gainditu beharreko puntuak, baina guztiak konpondu daitezkeela, benetako borondatearekin. "Erreka oso hurbil dago eta begiratu beharko litzateke Ura Agentziak zer dioen. Oñatiko alde zaharra izanik, Foru Aldundia ere kontsultatu beharko litzateke, eta, ziurrenik, egitasmoak eskatuko du Herrigunea Birgaitzeko Plan Berezian egokitzapenak egitea. Baina San Martingo lur eremua libre utziko litzateke etorkizunean aurreikusten diren gizar-te zerbitzuen alorreko premiei aurre egiteko, eta uste dugu hori ere oso garrantzitsua dela herrirendako".

## "Arduragabekeria", dio Gobernuak

EAJren Musika Eskolaren kokapen proposamenaren harira, "arduragabekeriaren ondorioa" dela iruditu zaio Udal Gobernuari, eta "nolabaiteko protagonismo bila" aritu dela "erdipurdiko informazioa emanez, herritarrak nahastu nahian. Gainera, kontuan hartu behar da prozesu bat abiarazi zela etorkizuneko musika eskolaz hausnartzeko, eta, prozesu hori oraindik ere martxan denean, bere aldetik bere proposamen propioa egin duela EAJk, prozesua bera errespetatu barik", gaineratu du.

Dio komunikabideetan irakurritakoarekin ulertu daitekeela San Martin gunea dela Udal Gobernuaren proposamena, eta hori dela lehen arduragabekeria, "aukera desberdinak aztertzen" dabilelako eta "oso argi" duelako "Musika Eskolako komunitatearekin adostutako espazio bat izan behar duela". Gaineratu du Musika Eskolakoekin

irailean egindako bileretan ez dela lekurik aipatu eta Udal Gobernuak ez duela EAJren proposamenaren txostenik jaso: "Soilik ahozko azalpena eta komunikabideetan ikusi ahal izan den eskuz margotutako planoak, irailaren 26ko dataz".



Musika Eskola, Errekalden. GOIENA

### San Martin gunea

Udal Gobernuak aitortu du San Martin epe motzean abiarazteko proiektu aukera moduan jarri duela, "betiere, musika eskolako komunitateak begi onez hartuko balu", baina EAJk ez duela hori aipatu. "Lurrak 7.000 metro karratu dituelako, udal jabetzakoa direlako eta Musika Eskola berria hutsetik diseinatzeko

aukera ematen duelako, herrigunetik gertu dagoelako, naturaz inguratua dagoelako, ikastetxeetatik eta auzoetatik dagoen distantzia parekoa delako, San Martin auzunean familiak ugaritzen doazelako, Olakuarekin lotura egiten duelako, batez ere negu partean seme-alaben bila joateko aparkalekua egiteko aukera ematen duelako, herritarren kopuru handi bat Etxaluzetik gora bizi delako, espazio oso zabala delako eta banaketa egoki batek etorkizunean San Martin egoitzaren beharrei edo proiektuei erantzuteko aukera ematen duelako". Epe ertain-luzera hainbat espazio egon daitezkeela dio: "Zortzi espazio jasotzen ditu txostenak, baina hori erabakitzeke du Musika Eskolako zuzendaritzak –langileak, gurasoak, ikasleak eta udal ordezkariak–. Udal Gobernuak ez daki EAJk bere aukera arrazoitzeko 'Musika Eskolako eragileekin elkartu gara' dioenean zeini buruz ari den".

**AUTLAN<sup>®</sup>**  
EMD

**Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako  
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.**



Azkoagaingo belar artifizial eta margotze-lan berriak. M.B.M.

# Vasconiaren kontrakoa Azkoagainen jokatu da

Futbol zelaia berritzeko lanak bukatuta, Ohorezko Erregional mailako partidua izango da bertan jokatu den lehena, domekan, 16:30ean. Bestalde, eguenean hasi ziren taldeetako batzuk Azkoagainen entrenatzen. Hurrengo astean talde guztiak itzuliko dira

## Mireia Bikuña Madrid OÑATI

Espero baino atzerapen handiagoarekin, baina bukatu dituzte Azkoagain eraberritzeko lanak. Hala, asteburu honetan hainbat partidu jokatu dira bertan. Besteak beste, Ohorezko Erregional mailako taldearena. Domekan izango da, 16:30ean, Vasconiaren kontra. "Gogotsu gaude etxean jokatzeko. Antzuolako partiduetan fin ibili gara, eta emaitza onak lortu ditugu, baina zaleen babesa faltan igarri dugu. Ea, bada, domekan animo horiek berreskuratzen ditugun", esan du Gari Nuñez entrena-tzaileak.

Hernaniren eta Urolaren kontra jokatu du Aloñak Antzuolan. Bi partiduak irabazi ditu, aurkari indartsuen kontra. "Pozik gaude, taldeak itxura ona eman duelako Eztalako partiduetan. Ez da erraza horren estua den zelai batean jokatzeko. Azkoagain txikia dela diote, baina Eztala askoz txikiagoa. Hala, jokatzeko

sistema apur bat moldatu behar izan dugu Antzuolan jokatzeko".

## Oraingo, seigarren

Domekan, ohiko sistemara itzuliko da Aloña. Ohiko jokoa egiteko asmoz zelairatuko da. Eta aurrean izango du Vasconia. Ohorezko Erregionalera igo berri den taldea. "Ez du denboraldia ondo hasi, baina azken par-

tidua irabazi egin du. Talde sendoa da, zelaian ondo kokatzen dena, eta baloiaren kontrola aurkariari uzten diona. Zaila izango da. Baina etxeakoak irabazi behar ditugu".

Izan ere, oraingo moduan, sailkapeneko gorengo lekuetan egoteko ezinbestekoak dira etxe-ko puntuak. Oñatiarren aurtengo helburua maila mantentzea da. "Orain, seigarren lekuan gaude. Ikusiko dugu hiruzpalau partidu gehiagoren ostean non gauden. Futbola dinamika kontua da, eta, oraingo, olatu ona harrapatu dugu. Baina 34 jardunaldi dituen txapelketa baten, krisi uneak izango ditugu", aitortu du entrenatzaileak.

## Lehen urtea

Gari Nuñezek lehen denboraldia du Aloñako talde nagusiarekin. "Egia esan, harrera ona izan dugu taldean, eta jokalariek ondo barneratu dituzte gure proposamenak eta ideiak. Gustura gaude".

## Hainbat lan egin dituzte

Denboraldia bukatuta, hainbat berrikuntza-lan egin zituzten futbol zelaian. Hain justu ere, belar artifizial berria jarri, zelai azpiko drainatze arazoa konpondu, horma indartu eta sarea aldatu. Opsiak enpresak egin ditu lanak, 454.597 eurotan

## Aita Madinaren kantuekin osatu du diskoa Suhar abesbatzak

Esteban Urzelai oñatiarrak zuzentzen duen taldeak etzi aurkeztuko du diskoa, agustindarren elizan

### M.B.M. OÑATI

Esteban Urzelai oñatiarrak zuzentzen duen gizonetzkoen koruak *Aita Madina (1907-1972)* izeneko diskoa kaleratu berri du. Labetik irten berritan, Oñatin egingo duten emanaldiarekin aurkeztuko dute jendaurrean. Kontzertua agustindarren elizan izango da, domekan, 19:30ean –sarrera bost euro da–. Suhar koruaren lehen diskoa *Euskal Choral Music* bilduman sartuko da, eta, lanaren izenburuak dioen moduan, euskal musika kulturaren bultzatzaile izan zen Aita Madina omentzeko asmoz egin dute.

### Bi zatitan

Diskoan bi motatako kantuek sartu dituzte: sakroak eta herrikoiak. Lehenak Azkoitiko Ama Birjinaren Jasokundearen parrokian grabatu zituzten, Thomas



Esteban Urzelai zuzendaria. E.U.

Ospital organistarekin; eta bigarrenak, Oñatiko Madalenako ermitan. Maite Arruabarrena mezzosopranoak pieza batean kolaboratu du.

Etziko emanaldia *Musikegunak 2022. Madina 50. urteurrena* egitarauaren baitan sartzen da.

## Eskulan ikastaroetan 153 leku eskainiko ditu Udalak

Iaz egin ez zen hari eta orratz-lanen –42 leku, zarpiko taldeetan– ikastaroa da aurtengo eskaintzaren berrikuntza nagusia. Gainerako ikastaroak izango dira: eskulan dekoratiboak –hamasei leku, zortziko taldeetan– eta pintura ikastaroak, haur, gaztetxo eta nagusientzat –guztira, 95 leku–. Kultura Departamentuaren eskaintzan parte

hartu gura dutenendako zabalik dago izen-ematea. Hain justu ere, hilaren 19ra arte egin ahal-ko da aurretiko izen-ematea. Izan ere, eskaintzen diren lekuak baino lagun gehiagok izena emango balu, zozketa egin beharko litzateke. Behin betiko onartuen zerrenda hilaren 26an publikatuko dute, kultura etxean eta Udalaren webgunean, eta ostean egin beharko da ordainketa. Eskulan ikastaroak azaroko lehen astean hasiko dira, eguna eta ordutegia aintzat hartuta.

## Igeriketa ikastaroak eta ur-ekintza, astelehenetik

Igeriketa ikastaroen ikasturte berrirako izena eman dute Txantxiku guztiak hurrengo astean sartuko dira Zubikoako igerilekuan, adinaren eta egunaren arabera. Maiatzera arte iraungo dute igeriketa ikastaroek. Aquagima, aquatraininga, matro-igeriketa, aqua-powerra eta helduen igeriketa ere astelehenean hasiko dira.

## Eskola kirolak astelehenean hasiko ditu ekintzak

Lehen Hezkuntzako 600 ume inguruk hasiko dute ikasturte hilaren 17an. Astelehenean zehar izango dituzte kirol saioak, txandaka, 16:45etik aurrera. Hainbat espazio erabiliko dituzte ekintzak egiteko: kiroldegia, hiru ikastetxeak, Larraña eta Zuazola. Azken urteetako bide beretik, aurtenean kirol egokituaren gainekoak landuko dituzte.



**DANBAKA))))))**  
MUSIKA LEHIAKETA

# LEMAK • KIIMAK THE CLAYTON • JASAN

Bergarako Seminarixoa | **Urriaren 14a, egubakoitza** | 21:30

**Chill out gunea**, 20:00etatik aurrera, San Martin plazan (Errege Seminarioaren arkupeetan), DOAN  
**Artista gonbidatua: Unai Cantabrana**

Sarrera arrunta **4€** • *Goiena* aplikazioan alta ematen dutenek **2€** • Goienakideek *Goiena* txartela erakutsita **0€**

Urriak 28

**EYHARTS • 112  
INGUMA • LETAGIN**

Azaroak 11

**AIERT • BROKEN LEGACY  
SUKENA • BALARRASA**

Azaroak 25

**KTARSIA • ILUMINATIZZ  
ERROMINTXELAK • ETXEPE**

Abenduak 16

**ARRAGOA • ISLABAT  
ORHI • SINDY BERBENAS**

BABESLEAK

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Kultura, Lanbideztza, Gazteria  
eta Kirol Departamentua



Diputación Foral  
de Gipuzkoa  
Departamento de Cultura,  
Cooperación, Juventud y Deporte



Begarako Udala

LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEA

**goiena**  
KOMUNIKAZIOTALDEA



**Xabier Urzelai arrasate**

Beste urte batez, domekan Urkuluko urtegia konpromiso eta elkartasun urratsez beteko da. Kooperatiben arteko VII. lasterketa solidarioa egingo dute, 11:00etan hasita, baina lehenago bestelako jarduerak ere izango dira; izan ere, aurten, familia osoarendako egitaraua prestatu dute antolatzaileek. Alegia, zazpigarren edizioak haur eta gazteentzako lasterketak ekarriko ditu berrikuntza moduan. Hala, aurtengo edizioak Mundukidek Brasilen, Kolonian, Ekuadorren, Mozambikene eta Etiopian zuzentzen dituen lankidetzak programak indartzeko helburua izango du.

**Hiru modalitate**

Hiru modalitateetan parte hartu ahal izango da lasterketa solidarioan: X3 taldekako lasterketa, ibilketa nordiko modalitatean eta oinez burutu ahalko dira Urkuluko ibilbideak dituen 6,3 kilometroak. 10:30ean abiatuko dira ibilketa nordiko modalitatean eta oinez arituko direnak. Bi modalitate hauek publiko guztientzat daude zabalik eta 10 euroko ekarpena egin beharko dute –izena Internetez emateko epea agortu da jada, baina egunean bertan ere izena eman ahalko da, Otorako prestakuntza-zentroaren apartalekuan–.

Ordu erdi geroago, berriz, 11:00etan, X3 talde lasterketa abiatuko da. Azken honetan,

# "Pobretutako herrialdeei laguntzea da helburua"

**ATLETISMOA** Mundukidek antolatuta, domekan egingo dute lasterketa solidarioaren VII. edizioa. "Mundukide bera sortu zen elkartasun unibertsalaren alde lan egiteko, eta inoiz baino behar handiagoa dago", adierazi zuen aurkezpenean Urri Urizarrek



Lasterkideak, lazko edizioan, proba hasi baino apur bat lehenago. GOIENA

**"JENDE ASKO DAGO OSO BALDINTZA ZAILETAN BIZITZEN; HAIEI LAGUNTZEKO DAGO MUNDUKIDE"**



**URRI URIZAR**  
MUNDUKIDE

**"DATOZEN URTEETAN TESTIGUA HARTZERA ANIMATU NAHI DITUT GAINONTZEKO KOOPERATIBAK"**



**LUIS ANDUAGA**  
KREAN

**"LASTERKETA ANTOLATZEN LAGUNTZEKO ARDURA IZAN DUGU ETA POZIK GABILTZA LANEAN"**



**OSCAR ARROYO**  
FAGOR  
ELEKTRONIKA

kooperatiba bakoitzeko hiru kidek osatutako taldeek parte hartuko dute eta emakumezko, gizonezko zein talde mistoak izan daitezke. Haiek ere 10 euroko ekarpena egin beharko dute pertsonako.

**Lehenago, gazteen lasterketak**

Aurreratu moduan, baina, aurtengo berritasuna da antolatzaileek ahalegina egin dutela bestelako jarduerak ere antolatzen, eta hor etxeko txikiengan jarri dute fokua. Hala, bailarako neska-mutikoen lasterketa gosea asetzeko, propio haien izenarekin izango dute lasterketa bat, adin tarte bakoitzari dagokion distantziara egokituta. 2012-2013an jaiotakoek 500 metro egin beharko dituzte, 2010-2012an jaiotakoek 1.000 metro, 2008-2009an jaiotakoek 1.500 metro eta 2004-2007an jaiotakoek 7.000 metro. Haien lasterketak 10:00etan hasiko dituzte eta izen-ematea doakoa izango da. Egunean bertan, gainera, zuzeneko musika emanaldiak –Markel DJ– izango dira eta UDA elkartearen kantinan jatekoak eta edatekoak izango dira.

**Dortsal solidarioa**


Domekan Urkulura joan ezin direnak ere ekarpena egin ahal izango dute, dortsal solidarioaren bidez. *Mundukide.org*-en izena emateko atalean dago dortsal solidarioa erosteko aukera.

## Ainara Urrutia: "Jende oso ona utzi dut atzean, oso pozik nago"

**MENDI LASTERKETAK** Aretxabaletakoa zazpigarren izan da nazioarte mailako Gorbeia Suzien Skymasters proban

**X.U. ARETXABALETA**

Zeanurik Skymasters-etako mendi lasterketa hartu zuen asteburuan, Gorbeia Suzien. Eta bertan, Ainara Urrutiak azpimarratzeko moduko lana egin zuen, sailkapenean zazpigarren helmugaratuta –Onditz Iturberen atzetik euskaldun onena izan zen Urrutia–. "Izugarria izan da, Maite Maioraren eta Oihana Azkorbeitiaren aurretik helmugaratu izana sekulakoa izan da, oso pozik nago", adierazi zion Aretxabaletakoak GOIENARI. "Hetzetasun handia zegoen, zorua



Ainara Urrutia, helmugan. MIKEL TABOADA

labainkor eta lokatz dezente izan genuen. Lehenengo aldia zen 33 kilometroko lasterketa bat egin nuen [2.500 metroko desnibela], eta ondo kudeatu nituen indarrak. Ez zen inprobisaziorik egon, ondo geneukan dena neur-tuta". Gainera, Munduko Txapelketako azken proban batutako puntuei esker, txapelketa bera zortzigarren amaitu zuen euskal selekzioko ordezkariak: "Sekulako urtea izan da, eta badakit emaitza honek aukera emango didala datorren denboraldia hobeto planifikatzeko eta lasterketa gustukoena aukeratzeko. Izugarri ikasi dut aurten, eta etorkizunean lagungarri izango da".

Gazte mailan, Ibai Larrea antzuolarra izan zen onena, eta kadete mailan Elgetako Urko Lonazo.



OLATZ BENGOA

## Guenetxeak brontzea Getafen

Brontzezko domina eskuratu du Irati Guenetxea Bengoa (argazkian, ezkerrekoa) gazte aretxabaletarrak Getafen bukatu den Espainiako Zailtasun Eskalada Kopa txapelketan, 18 urtez azpiko kategorian. Txapelketa irabazi du euskal selekzioko ordezkari Ainhize Belar Barrutiak eta bigarren postuan geratu da Ana Torregrosa Martinez, Valentziako selekzioko kidea.





Aretxabaletako eta Eskoriatzako Jasan taldea. JASAN



Bergarako eta Antzuolako Lemak taldea. LEMAK



Aramaioko The Clayton boskotea. MIKEL SERRATO



Antzuolako Kiimak bikote artistikoa. KIIMAK

**Aitziber Aranburuzabala** BERGARA Hamabi urte pasa dira azkeneko Danbaka egin zenetik eta "mimo eta ilusio handiz" abiatuko du gaur, egubakoitza, Goienak denboraldi berria, bosgarrena. Atzo egin zituzten agertoki nagusia izango den Seminarixoa aretoan muntaketa teknikoak, telebistarako zein soinu eta argi azpiegiturak atonduta.

Guztia gertu, bada, lehenengo lau lehiakideak hartzeko. Danbakak ikur duen denetarikoen estiloen eta erritmoen koktela izango da gaurko eskaintza. 2015ean Eskoriatzako eta Aretxabaletako musikariek sortu zuten Jasan laukoteak rock-metal emanaldi basatia eskainiko du. Antzuolako eta Bergarako musikariak batzen dituen Lemak hirukoteak, 2019ko uztailean

## Danbaka: eskualdeko musika harrobia ezandarazteko gertu

Lau talde lehiatuko dira Seminarixoa areto barruan, 21:30ean hasita; eta kanpoan, 20:00etan hasita, chill out gunean, Sanprubusa eta zuzeneko musika gozagarri

sortutako formazioak, berriz, pop-rock doinuekin jantziko du aretoa, iazko azaroan kaleratu zuten *Hegikide* bildumako kantutak eskainita. Antzuolako Kiimak bikotea ere taularen gainean izango da gaur. 2020ko martxoan

ren 8an batutako formazioak, bi gitarra, teklatu bat eta bi ahots lagun, abesti ezagunen bertsioekin eta euren kantu propioekin osatutako pop-rock estiloko kantu zerrenda du presatuta. Eta 2017an Aramaion

abiatutako The Clayton boskoteak borobilduko du lehen kontzertuko lehiakideen zerrenda. Iaz argitaratu zuten *Phoenix* diskoa oinarri hartuta, punk eta rock-and-roll doinu biziak eroango dituzte gaur Seminarixoa areto

barruko agertoki gaineko emanaldira.

### Bost kanporaketa eta finala

Debagoieneko askotariko hogeita musika taldek hartuko dute parte bosgarren aldian. Bost kontzertutan banatuta, saio bakoitzeko lau musika-proposamen izango dira gozagarri, abenduaren 16ra bitartean, hamabostean behin, egubakoitzetan. Talde bakoitzak ordu erdiko emanaldia egingo du, 21:30ean hasita.

Julen Narbaiza, Kristina Markina, Aitor Aldanondo, Iñigo Ugarte eta Nerea Loron *La Furia* dira aurtengo epaimahaiakideak eta eurek aukeratuko dituzte urtarrilaren 13an jokatu den finalerako hiru hautagaiak. Talde edo bakarlari irabazleak disko bat grabatzeko diru-laguntza jasoko du.

### Danbaka lehiaketako kontzertuak

#### Urriaren 14a

- Lemak Bergara eta Antzuola.
- Kiimak Antzuola.
- The Clayton Aramaio.
- Jasan Aretxabaleta eta Eskoriatza.

#### Urriaren 28a

- Eyharts Bergara.
- 112 Arrasate.
- Inguma Oñati.
- Letagin Oñati.

#### Azaroaren 11

- Aiert Oñati.
- Broken Legacy Oñati.
- Sukena Oñati.
- Balarrasa Aramaio, Eskoriatza eta Atxondo.

#### Azaroaren 25a

- Ktarsia Bergara.
- Iluminatizz Aretxabaleta eta Otxandio.
- Erromintxelak Arrasate eta Bergara.
- Etxepe Arrasate.

#### Abenduaren 16a

- Arragoa Bergara.
- Islabat Bergara eta Elgoibar.
- Orhi Bergara.
- Sindy Berbenas Arrasate.

**Publikoaren saria ere bai**

Aurreko aldietan moduan, publikoak gustuko duen taldeari edo bakarlariari botoa emateko aukera izango du. *Danbaka.eus* atarian izango dira hogeit hamar proposamenei botoa emateko formularioak eskuragarri, urriaren 15ean hasita. Abao Komunikazio Agentziaren eskutik bideo klip bat grabatzeko aukera izango du talde edo bakarlari irabazleak.

**Iruditeria zaindua**

Soinuaz gainera, mimoz landutako irudia izango du Danbaka berriak, agertokian zintzilikatutako apaingarrietan eta kontzertuak iragartzeko karteletan daudenak. "Aurtengo *lait motiv*-ean egin duguna da euskal musikagile klasikoak oinarri hartu eta irudi horien gainean zirriborroak edo marrazkiak egin. Zergatik? Kontraste bila joan garelako, gu, Danbaka, klasikoak baino harago gaudela adierazteko. Emanaldi bakoitzarako kartel bat sortu dugu; lehenengoa iragartzeko Juan Crisostomo Arriagaren irudia aukeratu eta black metal estiloa aplikatu diogu, eta bi maraka gehitu ere bai", dio Goienako diseinu taldeko Aitor Lagomak.

**Sarrerak, hainbat preziotan**

Goiena Komunikazio Taldeak antolatutako oraingoan, Bergarako Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzak, Gazteria eta Kirol Departamentuaren eta Sein taldearen babesletza eta laguntzarekin. "Halako ekintza bat aurrera eramateko ezinbestekoak ditugu babesleak eta laguntzaileak. Eskerririk asko Bergarako Udalari, erraztasun guztiak eman dizkigulako lehia-keta Seminarixoa antolatzeke, teknikari eta bestelako baliabideak jarrita. Gipuzkoako Foru Aldundiari ere eskerririk asko emandako babesagatik, eta baita Sein taldeari ere", azaldu du Goienako komertzial saileko arduradun Mireia Larrañagak.

Kontzertuetara joan nahi dutenek egunean bertan izango dute sarrera erosteko aukera, hainbat preziotan; honela azaldu du Larrañagak: "Ez da aurrealmentaririk izango, 21:00etan zabalduko ditugu aretoko ateak eta han erosi ahalko dira. Prezio ezberdinak izango dira: sarrera arrunta lau eurotan izango da; bi eurotan, berriz, *Goiena* aplikazioa

telefonoan jaitzita eta momentuan alta emanda dutela erakusten dutenendako; eta Goienakideek doako sarrera izango dute".

**Kamisetak ere bai**

Aurreko edizioetan egin izan den moduan, gaurtik hasita, Danbakako kamiseta berria eskuragarri izango dela gaineratu du Larrañagak: "Hamabi euro da prezio arrunta, baina hemen ere Goienakideek abantaila izango dute eta hamar eurotan erosteko aukera izango dute".

**Goienaren jarraipen zabala**

Seminarixoa areto barruan eta kanpoan izango diren ekitaldiak zuzenean jarraitzeko aukeraz gainera, Goienako hedabideek jarraipen zabala egingo diote

**"LEHIAKETAREN JARRAIPIEN ZABALA EGINGO DIOGU GURE HEDABIDE GUZTIETAN"**

ENEKO AZKARATE,  
GOIENAKO EDUKI ARDURADUNA

**"GOIENAKIDEEK DESKONTUAK IZANGO DITUZTE SARRERAK ETA KAMISETETAN"**

MIREIA LARRAÑAGA,  
GOIENAKO KOMERTZIAL SAILA

**"EUSKAL MUSIKAGILE KLASIKOEN IRUDIEKIN JOLASTUZ SORTU DITUGU IRUDIAK"**

AITOR LAGOMA,  
GOIENAKO DISEINU SAILA

**Unai Cantabrana chill out gunean**

Elgetako Unai Cantabrana musikari gaztearen ahots gozoarekin gozatzeko aukera izango da Seminarixoa areto kanpoan izango den chill out gunean. 20:00etan zabalduko dute gune hori eta 01:00etan itxi. Kontzertua doan da eta bi zatitan banatuta eskainiko du, 21:00etatik 21:15era eta 22:45etik 23:00etara.

**Sanprubusaren eskutik, jatekoa eta edatekoa**

"Elorregitik behin bakarrik mugitu izan gara, baina proposamen polita eta bateragarria iruditu zitzaigun. Edari hotzak eta beroak eta askotariko pintxoak eramango ditugu. Horrez gainera, areto barruan barra txiki bat ere izango da", dio Sanprubuseko arduradun Jon Mujikak.


lehiaketari. "Aurreko aldietan moduan, kontzertu guztiak osorik grabatuko dira eta Goiena telebistan eskainiko ditugu eguinetan. Gaurko emanaldiei dagokienez, esaterako, urriaren 20an bi kontzertu ikusteko aukera izango da, 21:00etan eta 23:00etan, eta beste bi taldeenak, berriz, urriaren 27an ordutegi berean", azaldu du Goiena telebistako zuzendari Oihane Agirrek, eta zera gaineratu: "Horrez gainera, kontzertu egunaren bezperan, protagonista izango diren musikarien aurkezpen-bideoak eskainiko ditugu, eta kontzertu-egunek emandakoen laburpena, berriz, martitzenetan; horiek guztiak, *Hemen Debagoiena* saioan".

GOIENA aldizkarian ere egingo diote tokia Danbakari. "Kontzertuen egunetan protagonista diren musikarien eta bestelako ekitaldien informazioa jasoko dugu eta kontzertu osteko astean, berriz, izan diren kontzertuen kronikak, argazkiak eta bestelakoak", dio Goienako editore Eneko Azkaratek.

Sarean ere jarraipen zabala egiteko asmoa dutela azaldu du *Goiena.eus*-eko arduradun Mirari Altubek: "Kontzertu-biharumenean Seminarixoa areto barruko eta kanpoko giroaren erakusleho izango da, argazkiak, bideoak eta kantuak jasota. Eta behin telebistan eskaini ondoren, kontzertuak osorik ikusteko aukera ere izango da atari horretan. Sare sozialetan ere bagaude eta Twitterreko eta Instagrameko Danbakaren kontuetatik askotarikoak kontatuko ditugu emanaldietatik zuzenean; eta ezin albo batera utzi lehiaketak propio duen ataria, *Danbaka.eus*; hor ere askotarikoak aurkituko dituzue".

**Hogeit hamar talde parte-hartzaileak**

JASAN



THE CLAYTON




EYHARTS



INGUMA




AIERT




SUKENA



KTARSIA



ERROMINXELAK




ARRAGOA



ORHI




LEMAK




KIIMAK



112



LETAGIN



BROKEN LEGACY




BALARRASA



ILUMINATIZZ



ETXEPE



ISLABAT



SINDY BERBENAS

# Puntaik Punta Arrasaten

Naturari eta turismoari balioa emateko Debagoieneko bidezidorren jaialdia gaur hasiko da, eta ekintza ugari izango dira asteburuan, herriko hiru eremu nagusitan

**Imanol Beloki Unamuno** DEBAGOIENA Gaur hasi eta domekara bitartean ospatuko da Debagoieneko Mankomunitateak antolatutako Puntaik Punta, Debagoieneko Bidezidorren Jaialdia. Aurtengoa seigarren edizioa da, eta, Arrasate izango du erdigune, nahiz eta eskualdeko beste hainbat gunetara ere luzatzen diren proposamenak.

Joan den astean eman zituzten egitasmoaren xehetasunak Maria Ubarretxena Arrasateko alkateak, Iker Goiria Foru Aldundiko Turismo zuzendariak, Maite Anton Debagoieneko Mankomunitateko lehendakariak eta Leire Parra Debagoieneko Mankomunitateko Turismo teknikariak, eta, bertan esan zuten moduan, lehenengo edizioan bezala ingurumen ondarea ezagutarazteko eta hari balioa emateko edizioa izango da aurtengoa ere.

## Hiru gune nagusi

Leire Parra Debagoieneko Mankomunitateko Turismo teknikariak asteon Arrasate Irritako egindako elkarrizketan adierazi duenez, "hiru gune nagusi izango dira Arrasaten. Bertakoa bertakoei eta kanpotik

datozenei erakusteko asmoz". Biteri plazan bi azoka egongo dira: natura-turismo azoka eta Debagoieneko artisauen azoka; eta karpa handi bat ere jarriko dute bertan, ikuskizunak egiteko. Zapatuan 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara eta domekan 11:00etatik 14:30era egongo da zabalik. "Azoka horietan, alde batetik, senderismo azoka izango da, eta kanpotik etorritako bost turismo eragile ere batuko dira". Bigarren gune nagusia, berriz, Zaldibarren jarriko dute. Bertan, abentura jolasak izango dira haur eta gazteentzat. Zapatuan 11:00etatik 14:00etara eta domekan 11:00etatik 14:30era. "Slack-line-a, zuhaitzen eskalada, kutxen eskalada, ohe elastiko erraldoia eta ginkana izango dira, besteak beste". Hirugarren gunea, aldiz, Seber Altube plaza izango da, eta bertako produktuen azoka egongo da zapatuan, 09:00etatik 14:00ak arte.

## Bailara ezagutzeko ekintzak

Bailarako bidezidorren jaialdia izanik, mendi ibilaldi gidatuen artean hamalau aukera izango dira, adin guztietara eta zailta-

sun maila ezberdinetara zuzentzen direnak, eta horietan aurrez izena ematea derrigorrezkoa izango da [puntaikpunta.turismodebagoiena.com](http://puntaikpunta.turismodebagoiena.com) webgunean. Antolatzaileek adierazi dutenez, Aranzadi Zientzia Elkartearekin



Puntaik Punta Eskoriatzan egin zenekoa. GOIENA

Bedoñan egingo den izarrak ikusteko hitzordua beteta dago, baina gainontzekoen artean azpimarratzeko mendi ibilaldiak eta bestelakoak daude, leku librekin. "Biteri plaza izango da hasiera puntua eta baita infor-

mazio-gunea ere. Antolatu diren artean, esaterako, orientazio proba-lasterketa izango da Monterronen, 14 urtetik gorakoentzako. Naturan murgilduz, eguneroko erritmo frenetikoak moteltzen laguntzeko *Baso bai-*

## "Publiko zabalarentzat egindako emanaldia izango da zapatukoa"

MIKEL BARGIELA KLAK!SON TALDEKO ABESLARIA

Zapatuan, 19:00etan, Klak!son taldearen kontzertua izango da Biteri plazan. Antzuola eta Urretxu-Zumarragako rock taldea da, hamabost urtetik gora ekinean ari dena. Gertu daude debagoieneko bidezidorren jaialdian euren musika bazter, bide, bidezidor eta herri osoan zehar zabaltzeko.

### Debagoieneko musika talde beteranoa da zuena. Zer eskainiko duzue Puntaik Punta jaialdiko emanaldian?

Ordubete inguruko saioa eskainiko dugu. *Playlist*-a pentsatu dugu eta denetarik



KLAK!SON

batu dugu kontzerturako. Iaz, *Puntu urdin margula* izeneko diskoa argitaratu genuen Durangoko Azokarako, eta disko horretan batzen diren kantuak, gure kanta ezagunenak eta

berreskuratu ditugun kantu zahar pare bat eskainiko ditugu. Pop-rock progresiboa dela egiten duguna diogu guk, eta, abesti rockzale azkarrez gain, lasaigoak ere eskainiko ditugu, publiko zabalarentzat zuzendutakoak.

### Diskoak urtebete izanda, aurrera begira zer?

Hori ari gara debatitzen egunotan: kontzertuak ematea eta horiek lotzea edo abesti berriak sortzen jartzea. Biak uztartzea ez da erraza izaten, baina nik sorkuntza-dinamika baten sartu nahiko nuke. Ikusiko dugu zapatuan nolako harrera izaten dugun, eta gero geroakoak. Hori da garrantzitsuena, kontzertuak ondo prestatzea eta ikus-entzuleen gustukoak izatea.

GOIENA  
TELEBISTA  
SASOI  
BERRIA

## 'HARA, BI!'

URRIAREN 18AN, MARTITZENEAN,  
21:00ETAN ETA 23:00ETAN  
ARRASATEKO HERRI ESKOLAKO  
HAURRAK PROTAGONISTA

goiena

Zu hemen zaude.



nua izeneko esperientzia eskainiko dugu Santa Barbaran, egunerokotasunetik deskonektatzeko. *Arrasate harri bitxia* izenpean, bisita ekologikoa egingo da; herri erdigunean... Ekin-tza honetan, Arrasateko erdigunean dauden eraikin eta elementu ornamentaletako arrokak erabiliz geologia eta ondarea ezagutuko da. Honako hauek proposamenetako batzuk dira, baina aukera eta eskaintza zabalda da; hala ere, webgunean izena emateko eskatzen dugu", adierazi du Parrak.

**Herrixa Dantzan, arrabitariekin**  
Bailarako ondareak kulturarekin duen erlazioa estua izanik, musika kontzertuek eta dantzaldiek, esaterako, bat egingo dute aste-buruko jaiarekin. Hitzordu azpimarragarrietako bat izango da domekan izango den Herrixa Dantzan, Patxi Monteroren gidaritzapean eta bailarako arrabitariekin, Biteri plazan. "Arrabitariena ez da talde finko bat bere horretan. Bailarako hamai-ka musikari elkartu dira, eta, arrabitez gain, txeloa, flauta bat eta gitarrak ere izango dira. Euskal Herriko eta Europako doinuekin kanta batzuk prestatu ditugu, eta saio irekia izango da, parte hartzeko", adierazi du Monterok; herritarrei saiora animatzeko dei egin die.

**Argazki rallya zozketarekin**  
Puntaik Puntako jardueretan parte hartzen dutenei Instagramen euren argazkiak partekatzeko gonbidapena ere egin nahi diete antolatzaileek. Elkarbanatutako argazkiek #puntaikpunta22 traola eta @turismo\_deba-goiena aipatuta dutenen artean, bertako produktuen otarre bat irabazteko zozketan parte hartuko dute.

**ZENBAIT EKINTZATAN IZENA EMAN BEHARKO DA AURREZ, PUNTAIK PUNTAREN WEBGUNEAN**

**BEDOÑAN EGINGO DEN IZARREN BEHAKETARAKO BETETA DAGO IZENEMATEA**

## Egitaraua egunez egun

### Urriaren 14a, egubakoitza

- **17:00** *Txirula magikoa* ipuin kontaketa musikatua, Biterin.
- **18:30** Mendifilm-eko hiru proiektio, Kulturaten: *Action Directe*, *Jötunn* eta *La Pantalla Andina*.
- **20:00** Izarren behaketa Bedoñan. Lainotuta badago, planisferioa aurkeztuko da Kulturaten. Izena eman behar da.

### Urriaren 15a, zapatua

- **09:00** Mendi igoera gidatua Udaltxera. 12 urtetik gorakoentzat. Izena eman behar da.
- **09:30** Erreka garbiketa. Hitzordua Biterin eta San Isidron.
- **09:30** Mendi ibilbide gidatua: Urkulu-Santikruz-Andarto-Degurixa. Izena eman behar da.
- **10:00** *Nordic walking*-a: hastapen ikastaroa Biterin eta ibilbidea herrian zehar. Izena eman behar da.
- **10:00** Ibilaldi gidatua: Deba ibaiaren biodibertsitatea aztertzen. Arrasatetik Elorregira. Hasiera Biterin. Izena eman behar da.
- **11:00** Hitzaldia Kulturaten: *Oñati turismo jasangarria; Arrikruz-Oñatiko kobaren eredu*.
- **12:00** Erraldoi eta kilikien konpartsa eta Arrasateko gaiteroak herrian zehar.
- **13:00** Kontzertua: Mikel Zamora, Biteri plazan.
- **16:30** Orientazio proba-lasterketa, Monterron parkean, 14 urtetik gorakoentzat. Izena eman behar da.
- **17:00** Baso bainua Santa Barbara parkean; irteera Biteri plazan. Izena eman behar da.
- **18:00** Sambamaña batukada taldearen kalejira.
- **19:00** Kontzertua: Klak!son taldea, Biteri plazan.
- **20:30** Kontzertua: NHIL taldea, Biteri plazan.

### Urriaren 16a, domeka

- **09:00** Mendi ibilbide gidatua: Garagartza-Udala-Besaide-Tellamendi-Garagartza. Izena eman behar da.
- **09:30** Mendi ibilbide gidatua Sasoibiderek, Bedoña elizateko Andra Mari Zurira. Izena eman behar da.
- **10:00** Mendi ibilbide gidatua: Murugain, dragoiaren bidetik. Izena eman behar da.
- **10:00** Bizikletan ibilbide gidatua: Vasco-Navarro bide berdetik. Eskoriatatik Arrasatera. Izena eman behar da.
- **10:30** Espeleoarrikutz, Arrikruz-Oñatiko koban. Izena eman behar da.
- **12:00** Bisita gidatua Gatz Museora. Hiruerreketa ibilbidearekin Deba ibaiaren sorrera eta Leintz Gatzagako inguruak ezagutzera. –gatzelaniatzko bisita 13:00etan izango da–. Izena eman behar da.
- **12:00** Trikitixa Eskolako taldearen kalejira.
- **12:30** Herrixa Dantzan dantzaldia, bailarako arrabitariekin. Dantza gidaria: Patxi Montero.
- **16:30** Bisita geologikoa: *Arrasate harri bitxia*, erdigunean. Izena eman behar da.
- **18:00** Kale antzerkia, Hortz mugaren eskutik; *Jule*. Biteri plazan.



Arrabitariki taldea. DANTZAK.EUS

## Goienakideen txokoa

### URRIKO SARIAK

#### Tableta

'InnJoo Superb' tableta

Parte hartzeko sariaren izena: tableta



#### Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



#### Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



#### PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE

\*sariaren izena\* [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

\*goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Indarrez dagoen LOTO 15/9999 igaren arabera, jainkoartea dagoen datu pertsonal Geroa Komunikazio Zerbitzuen Iturriag automatizatu bater sartuko dela. Datu-bilketak herri-herbaitzako indarrez dagoen salapena galaratzen. Eskubide onargarriak babestuta daude, hauek zuzentzeko eta zozketarako helbide honetan idatzi: goienakide@goiena.eus

## Realaren eta Mallorcaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

### GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Real-Mallorca partida beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeraturako beste lagun batek. Reale Arena futbol zelaiko tokirik onenetik. Urriaren 19an, eguaztena, 20:00etan.



## Irabazi bi lagunendako sarrerak

### Arrasateko Udaleri esker

'Su(i)realismo' dantzaldirako sarrerak ditugu

Arrasate | Amaia Antzokia | Urriak 23 | 19:30

#### PARTE HARTZEKO:

E-postaz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE "Dantza"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

\*goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Indarrez dagoen LOTO 15/9999 igaren arabera, jainkoartea dagoen datu pertsonal Geroa Komunikazio Zerbitzuen Iturriag automatizatu bater sartuko dela. Datu-bilketak herri-herbaitzako indarrez dagoen salapena galaratzen. Eskubide onargarriak babestuta daude, hauek zuzentzeko eta zozketarako helbide honetan idatzi: goienakide@goiena.eus

## Irabazi bi lagunendako otordua

### BERGARAKO BATZOKIA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!

Parte hartzeko azken eguna: urriak 18.

☎ 943 25 05 05 ✉ goienakide@goiena.eus 📱 \*Goiena app'-a / zozketa atalean.

🗨 GOIENAKIDE Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 15 €  
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena“  
kide

Okm: batzen gaituen distantzia.



**URTEURRENA**



## Valentin Villa Gallastegi



2021eko urriaren 15ean hil zen, 84 urte zituela.

---


Urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 16an, 12:00etan, Elgetako Jasokundeko Amaren parrokian.

---

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Elgetan, 2022ko urriaren 14an.

**ESKER ONA**

## Manu Arregi Biziola



2022ko urriaren 9an hil zen, 54 urte zituela.

---


Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

---

Oñatin, 2022ko urriaren 14an.

**ESKER ONA**

## Angel Arriolabengoa Larrañaga



2022ko urriaren 11n hil zen, 90 urte zituela.

---

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

---

Aramaion, 2022ko urriaren 14an.

**URTEURRENA**



## Mari Tere Basabe Gorrotxategi



2018ko urriaren 10ean hil zen, 75 urte zituela.

---

Laugarren urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 16an, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

---

*Erakutsi zenigun ausardia eta kemena, motz gelditu zaigu zure ondoan behar genuena, zure maitasuna, gure oroitzapen hoberena, bizirik iraungo duzu, gure bihotzean barrena.*

---

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Arrasaten, 2022ko urriaren 14an.

**OROIGARRIA**

## Manu Arregi Biziola



(1968-2022)

---

*Amets bat zinan zeruan, izar iheskorrak heldu nahian. Bazoaz, bazatoz... haiengana, guregana, beti hain hotz eta hain bero. Urrutiko Aloñako uestezko zeru ilunean, iltatgi aparra. Oso gertu, eta, hala ere, oso urruti, utzi gaituzu goizegi. Hemen utzi diguzu ontzikada argia, geldi-geldi zure arimaren ontzia: irribarrea eta argi-izpia.*

---

Zure kuadrilla.  
Oñatin, 2022ko urriaren 14an.

**OROIGARRIA**



## Manu Arregi Biziola



---

*Ikastola zerura begira jarri duzu, beste behin. Izarretan elkartuko gara, lagun!*



Aranzadi Ikastolako lankideak.  
Oñatin, 2022ko urriaren 14an.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

---

**ARRASATE EGUNEZ**

Egubakoitza, 14 RUIZ: Nafarroa etorbidea / 943 79 14 09

Zapatua, 15 ETXEBERRIA: Zarugalde 38 / 943 77 16 30

Domeka, 16 AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15

Astelehena, 17 JUNCAI: Iturriotz 17 / 943 79 79 99

Martitzena, 18 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26

Eguaztena, 19 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39

Eguena, 20 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

**BERGARA EGUNEZ**

Egubakoitza, 14 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63

Zapatua, 15 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Domeka, 16 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Astelehena, 17 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74

Martitzena, 18 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Eguaztena, 19 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05

Eguena, 20 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63

**OÑATI EGUNEZ BAKARRIK**

Egubakoitza, 14 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

Zapatua, 15 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

Domeka, 16 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

Astelehena, 17 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

Martitzena, 18 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

Eguaztena, 19 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Eguena, 20 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

---

**ARRASATE GAUEZ EGUNERO**  
(22:00etatik 09:00etara)

2022a bukatu arte: AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15

---

**BERGARA GAUEZ EGUNERO**  
(22:00etatik 09:00etara)

2022 osoan: URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74

**OROIGARRIA**

## Manu Arregi Biziola




---

*Manu, bizitza guztia lurretik izarrei begira, eta bapatean, abixau barik, izarretatik lurrera begira. Zauzen lekuan zauzela, zure izarra ez da inoiz itxungiko.*


---

Zure lagunak.  
Oñatin, 2022ko urriaren 14an.

**OROIGARRIA**



## Juan Angel Fernandez Lopez



2020ko urriaren 16an hil zen, 62 urte zituela.

---

*Horrenbeste maite zaitxugu, ezin dala gehixau maite.*

---

Etxekoak.  
Arrasaten, 2022ko urriaren 14an.

**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**  
edo [eskelak@goiena.eus](mailto:eskelak@goiena.eus)

- ▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 186 € / Goiena Klubeko bazkideendako 166 €
- ▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 165 € / Goiena Klubeko bazkideendako 145 €

**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

**BADESLEA**

## Oroilore

Maitasunez bizi,  
maitasunez agurtu

---

*Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.*

*Gure eskerrik beroenak guran izan duzuen konfiantzagarritik eta maitasunagarritik.*

**Ion, Mario, Iban eta Maribi**

---

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA  
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

## BERRI-ZAKUA

**Siziliara bidaia**

Arrasateko Musakola auzoko lagun talde ederra joan zen Siziliara irailean. 50, hain justu ere. Giro paregabearekin, eta auzoko kamiseta arrosak soinean, egun batzuk eman zituzten han. Hainbat leku bisitatu zituzten. Besteak beste, Etna sumendiaren inguruan ibili ziren. Leku esanguratsu hartan talde argazkia atera zuten, ikurrina eskuetan. Arrasatera heldu orduko hasi dira hurrengo bidaian pentsatzen. Animorik eta gogorik ez zaie falta argazkikoei, eta segituan hasiko dira maletak prestatzen berriro.

**'Bergara oinez' ekimena**

*Bergara oinez* ekimenekoek gogotsu hasi dute ikasturtea. Urriaren 6an, nagikeria etxean utzi eta paseo ederra egin zuten herrian barrena. 30 bat pertsona elkartu ziren ibilaldia egiteko. Paseo bakoitza eragile batek antolatzen du. Azken horretan, Aspaceko lagunak eskutik joan ziren.

**Aramotz mendizerran**

Begarako Pol Pol mendizale taldeko 32 beteranok ibilaldia egin zuten urriaren 9an Bizkaiko Aramotz mendizerran: Mañari-Ortuzar-Neberondo-Mugarrikolanda-Belatxikieta-Zornotza. Guztira, hogeiki kilometro. Hurrengoa azaroaren 1eko zubian egingo dute: Mont-Rebei eta Montsec inguruetara joango dira. Lleidako Tremp herrian hartuko dute ostatu.





**Hidratazioaren gainean**

Amaia Diaz de Monasterioguren eta Amaia Ayerbe nutrizionistek gidatuta, dozena bat laguneko taldea elkartu zen aurreko zapatuan Oñatiko Natur Eskolan, ongizatearen inguruan sakontzeko tailerra egiteko. Hidratazioa izan zuten gai nagusi. Errekara ere joan ziren.



**Bisita antzeztua**

laz eguraldi txarrak ekitaldia zapuztu bazuen ere, aurreko eguraldia lagun, giro ederrean egin zuten Intxortako frontearen nondik norakoak jasotzen zituen bisita gidatu antzeztua Elgetan. Frontearen 86. urteurrenaren baitan egindako lehen ekintza izan zen.



**Buru osasuna ikustarazteko**

Arrasateko San Juan de Dios ospitaleko terapia okupazionalako zerbitzuak merkatu solidarioa egin zuen astelehenean, bigarren urtez, Seber Altube plazan. Osasun mentalaren Nazioarteko Egunaren harira egin zuen ekimena, eta eguna bera agerian jartzea izan zen helburuetako bat.



**60. urteurrena**

Ignacio Benito eta Santi Fraile arrasatearrak zorioneko daude. Ezkondu zireneko 60. urteurrena bete dute. Bete, eta ospatu. "Zorionak, bikote, familia osoaren partetik! Segi zoriontsu izaten, eta besarkada bana!"



**Bihar ezkonduko dira**


Itziar Landeira eta Jorge Espinal oñatiarrak bihar, zapatua, ezkonduko dira. "Zorionak, bikote! Jarraitu zoriontsu izaten! Ederto ospatuko dugu zuen ezkontza eguna! Musu bana, familiaren eta lagunaren partetik".



**Gaur ezkontza eta bihar ospakizuna**

Gaur, egubakoitza, ezkonduko dira Maiane Barrena eta Unai Ormaetxea, eta bihar, zapatua, egingo dute ospakizuna. "Zorionik beroenak bioi, eta gozatu biharko egunaz. Besarkada bana, Oñatiko Barrena familiaren partetik!"

**ZORION AGURRAK**



**OÑATI Gabriel Kortabarria Ali**  
Urriaren 15ean, 8 urte. 8 urte, txapeldun! Zorionak zure familia guztiaren partetik! Pa!



**BERGARA Enara Brunet Moreno**  
Urriaren 14an, 8 urte. Zorionak! Egun polita pasa, katutxo. Muxu potoloak etxeko guztien partetik.



**OÑATI Urko Urtaza Hernandez**  
Urriaren 12an, 6 urte. Zorionak, txapeldun, etxeko danan partetik. Patxo potolo bat!



**ARETXABALETA Irati Romero**  
Urriaren 11n, 5 urte. Zorionak, maittia! Primeran ospatukou zure eguna! Besarkada handi bat maite zaitugunon partetik! Jarraitu gure bizitzak poztasunez betetzen!



**BERGARA Irati Davila Iza**  
Urriaren 9an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Muxu handi bat familiako guztien partetik!



**OÑATI Iraide Zumalde Irazabal**  
Urriaren 8an, 8 urte. Zorionak, Iraide! Muxu handi bat familiako guztien partetik!

**Urte askotarako!**

Zoriontzeko, hiru bide dituzu:

**Internet**  
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

**Posta elektronikoa**  
Mezua bidali [zorionagurrak@goiena.eus](mailto:zorionagurrak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**  
Etor zaituz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 14

**ARETXABALETA 'Paintball' jolasa**

Bixi egitasmoaren baitan, 12-17 urte artekoendako. Aurrez eman behar da izena, taldeka zein banaka.  
*Ibarra zelaian, 17:00etan.*

**ARRASATE Puntaik Punta**

17:00etan, *Txirula magikoa* ipuin kontaketa musikatua haurrendako; 18:30ean, Mendifilm Festibaleko hiru proiektzio; eta, 20:00etan, izarren behaketa, Aranzadi Zientzia Elkartearekin.  
*Arrasaten.*

**BERGARA 'Dinosauro galduaren bila' ekintza**

Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetak umeendako, Aidau haurren zerbitzuaren eskutik.  
*Oxirondo azokan, 17:30ean.*

**OÑATI 'Lo que sabemos del ictus' hitzaldia**

Angel Chamorro neurologo oñatiarrek egingo du berba Esperientzia Gela martxan ipiniko duen hitzaldian.  
*Santa Ana antzokian, 18:30ean.*

**ARRASATE Mugi Panderoa, Skakeitan eta Zetak taldeak**

Mondragon Unibertsitatearen 25. urteurreneko ekitaldia. 18:30ean, Mugi Panderoa; 21:00etan, Skakeitan; eta 23:00etan, Zetak.  
Debalde.  
*Iturripe kiroldegian.*

**ESKORIATZA Euskaraldia:**

**'hamabikoa'-ren aurkezpena** Izena emateko aukera egongo da.  
*Fernando Eskoriatza plazan, 19:00etan.*

**ARETXABALETA Hipnosia taldea**

Ukitu progresibo eta elektronikoak dituen talde bizkaitararen kontzertua. Sarrerak, bost euro.  
*Arkupen, 20:00etan.*

**BERGARA Danbako: Lemak, Kiimak, The Clayton eta Jasan taldeak**

Lehenengo emanaldia. Sarrerak: *Goiena* txartela erakutsita, debalde;

*Goiena* aplikazioa alta emanda, bi euro; eta arruntak, lau euro.  
*Seminarixoan, 21:30ean.*

**BERGARA Kosmai Kosin eta Turbo Retrobator taldeak**

*Egubakoitzak berreskuratzen* egitasmoaren baitan. Sarrerak, bost euro.  
*Kartzela zaharrean, 22:30ean.*

## ZAPATUA 15

**ARETXABALETA Ibilgailu klasikoen topaketa**

09:00etan, harrera; 11:00etan, ibilaldia; 12:00etan, luntxa; 13:00etan, opariaren zozketa; eta 14:00etan, agurra.  
*Herriko Plazan.*

**ARRASATE Puntaik Punta**

Askotariko ekintzak eta mendi ibilaldiak. Egitaraua, osorik, 48. eta 49. orrialdeetan.  
*Arrasaten.*

**ELGETA Erreka garbiketa azulanean**

Bigarrenengo Erreka garbituko dute elgetarrek.  
*Mendizaleen plazan, 09:30ean.*

**ARETXABALETA Erreka garbiketa**

Herriko Plazan elkartuko dira, 09:30ean, eta lantaldeetan banatu.  
*Herriko Plazan.*

**ESKORIATZA Erreka garbiketa**

Santa Marina plazan elkartuko eta taldeetan banatuko dira.  
*Santa Marinan, 10:00etan.*

**OÑATI Debagoieneko Ikasle Eguna**

11:00etan, hitzaldia; 12:30ean, triki-poteoa; 14:30ean, bazkaria, eta ostean, gaiztakeria tailerra; 18:30ean, Züttik elektro-txaranga; eta, 21:00etan, Buru Gabe, Virgin Mary eta Larru Beltzak taldeak.  
*Antixena gaztetxean.*

**BERGARA Guda Zelaia. II jardunaldia**

11:30ean, *Arte sorkuntza eta aurreko ziklo politikoaren amaiera* hitzaldia; 13:00etan, dantza ikuskizuna Munibe plazan;

14:30ean, bazkaria; 18:00etan, *Agirretarren bandera* antzezlan San Martin plazan; 19:30ean, Debrass Band taldearen kalejira; eta, 21:30ean, Berandu Baino Lehen, Inguma, Erne eta DJ Aifilen emanaldiak. Sarrerak, bost euro.  
*Bergaran.*

**ESKORIATZA Ezkurtxo, Gellaon**

Ipui kontaketak, jolas tradizionalak, ibilaldiak, txokolate-jana... Autobusak egongo dira erdiguneko bus geltokitik, 15:00etan, Apotzagaraino; eta 15:30ean Gellaoraino.  
*Gellaon.*

**ARRASATE 'Munduari itzulia 80 egunetan' antzezlan**

Jules Vernerren eleberrian oinarritutako lana, 3-9 urte arteko umeendako eta familiendako.  
*Amaia antzokian, 17:00etan.*

**ARRASATE Gaba Baltzerako maskarak egiteko aukera**

Gaztetxoendako ekintza.  
*Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.*

**OÑATI 'Klima ingeniariaritz eta osasuna' hitzaldia**

Nauzet Mogardek egingo du berba, Informatuk gonbidatuta.  
*Santa Ana antzokia, 18:30ean.*

**BERGARA Organo kontzertua**

Alize Mendizabalen eta Andra Mari abesbatzaren emanaldia.  
*Santa Marinan, 20:00etan.*

## DOMEKA 16

**ELGETA Ibilaldia Altzaniako mendietara**

Lezeko kobazulotik abiatuko dira, Arbarain eta Irumuga igotzeko helburuarekin.  
*Mendizaleen plazan, 08:00etan.*

**OÑATI 'Olateko indarretxeak 100 urte. Araozetik Olatera' ibilaldia**

Natur Eskolak antolatutako X. Ibilagun Astearen baitan. Oñati-Arantzazu autobus zerbitzua erabiliko dute. San Lorentzoko autobus geltokian.  
*San Lorentzon, 08:30ean.*



ALIZE MENDIZABAL

**BERGARA Alize Mendizabal eta Monica Melcova organistak**

Organo Erromantikoaren 23. Zikloaren baitan. Mozarten eta Txaikovskiren piezak joko dituzte, besteak beste, Donostiako eta Eslovakiako organo-jotzaileek. Debalde.  
*Bihar, zapatua, Santa Marinan, 20:00etan.*

**ARRASATE Puntaik Punta**

Egitaraua, osorik, 48. eta 49. orrialdeetan.  
*Arrasaten.*

**OÑATI Irteera gidatua Gomitzeaira**

Ibilbide irisgarritik joanda, gazta dastatzeko aukerarekin. Izenak: arantzazu@gipuzkoanatura.eus edo 943-78 28 94.  
*Parketxean, 09:00etan.*

**ELGETA Gernikako azokara irteera: izen-ematea**

Erretiratuek urriaren 31n egingo dute irteerarako gaur eman behar da izena: Ozarki elkartearen, 11:00etatik 12:30era.  
*Ozkarbi elkartearen.*

**BERGARA Txapa Irratiaren denboraldi berriaren aurkezpena**

Programazioaren aurkezpena, mikro irekiak eta Txitxi-Zotz.  
*Kartzela zaharrean, 12:00etan.*

**BERGARA Bergarako Musika Bandaren kontzertua**

Enrike Txurrakak zuzenduta.  
*Udal pilotalekuan, 12:30ean.*

**ARRASATE Beldurrezko pelikula**

Gaztetxoendako ekintza.  
*Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.*

**OÑATI Suhar koruaren kontzertua**

Aita Madinaren heriotzaren 50. urteurrenaren harira. Grabatu berri

duten diskoaren aurkezpena izango da. Sarrerak, bost euro.  
*Agustindarren elizan, 19:30ean.*

## ASTELEHENA 17

**OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea**

Pentsio duinak eskatzeko.  
*Foruen plaza, 12:00etan.*

**ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea**

Pentsio duinak eskatzeko.  
*Herriko Plaza, 12:00etan.*

**ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea**

Pentsio duinak eskatzeko.  
*Herriko Plazan, 12:00etan.*

**BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea**

Pentsio duinak eskatzeko.  
*San Martin plazan, 12:00etan.*

**ELGETA Podologa erretiratuendako**

Txanda hartzeko: 669 99 81 65.  
*Kultura etxean, 15:00etan.*

**ARETXABALETA Odol ateratzea**

Herritar guztiendako.  
*Durana kalean, 16:45ean.*

**ARRASATE 'Gizarte-bazterkeriaren eragin ezberdina Euskadin' hitzaldia**

Garapen Komunitarioko zinegotzi Maitane Muñozek, Gizarte Zerbitzuetako buru Iñigo Garitanok,





AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

## Ikastolen hazia

Ni ikastolakumea naiz. 4 urtetik 18ra, unibertsitatara joan nintzenera arte, Errenteriako Orereta ikastolan ikasi nuen. Geroago, Bergarara ezkondu nintzen, nire bigarren herrira. Ondo ezagutu nituen andereñoak, geroago maisuak eta euskal irakaskuntza eta ikastolen eredu aurrerakoiaren nondik norakoak, baina askoz beranduago jakin nuen nondik sortu zen ikastolen hazia. EAJ barruan sortu zen, Emakume Abertzale Batzaren eskutik.

Emakume haiek oso lan historiko eta garrantzitsua egin zuten, beraien helburu nagusia neska-mutilak euskaraz hezteak baitzen. Euskal kultura, ohiturak eta historia euskaraz irakasten hasi ziren, orain 100 urte eta, gainera, berdintasunean, neska-mutilak geletan batera, orduko irakaskuntza espainiarrean ez bezala. Elbira Zipitria zumaiarra izan zen andereño horietako bat, Emakume Abertzale Batzako militantea eta Donostian eta Gipuzkoan, andereñoetan andereño. Eredugarri izan ziren emakume mugimenduan ere, politikari gisa aldarrikatzen zuten euren burua.

Jakin beharko genuke ikastolen eta euskal eskola publikoaren gaurko izana eta irakaskuntza eredugarria nondik datozen.

GOIENA OKM GIDA

# "Estilistak izateaz gain, psikologoak ere bagara"

IZASKUN ALDANONDO SESIÑENA ILE-APAINDEGIA

Aitari laguntzen hasi zen Aldanondo, 13 urterekin, eta, ordutik, denetariko orrazkerak egin ditu; lanaren alderik onena bezeroak ile-apaindegitik gustura irtetea dela dio

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA

Familiako ogibidea aukeratu zuen Aldanondok eta hirugarren belaunaldia da. 13 urte zituenen hasi zen aitari ile-apaindegian laguntzen, gizonezkoei bizarra eta ilea mozten. 18 urterekin Donostian egin zituen ikasketak, eta, Madrilan, Londresen eta Bartzelonan formatzen nahiz lanean ibili ostean, Oñatira itzuli zen aita erretiratu zenean. Gizon nahiz emakumeentzako ile-apaindegia da, eta estetika zentroa ere bada.

**Oñatitik kanpo ikasi duzu eta egin duzu lan. Beti egin duzu lan ile-apaindegi batean?**

Bartzelonan ile-apaintzaile batekin egon nintzen lanean. Modeloa ere bazen; eta, orduan, egun batzuetan ile-apaindegian egiten genuen lan, eta beste batzuetan, desfileetan. Pasarelan une puntual bateko pasea egitea da, zoroagoa da; dendakoa, egunerokotasunekoa, monotonoagoa.

**Bereizita daukazu ile-apaindegia.** Garbi neukan ez nuela gizonak eta emakumeak nahasterik nahi. Gizonezkoen lana azkarrago egiten da, eta emakumeekin denbora gehiago pasa behar duzu. Oñatin, gainera, denok ezagutzen dugu elkar eta ema-



Izaskun Aldanondo, Sesiñenea ile-apaindegian lanean, martitzen goizean. I.A.A.

## Zuretzat balio ez duen orrazkera

"Asko ospetsuen argazkiekin etortzen dira eta azaldu egin behar diet *look* hori ez zaiela ondo geratuko. Aurpegi motaren arabera, era batera edo bestera eraman behar duzu ilea. Askotan gertatzen da, adibidez, argazkikoak aurpegi borobila izatea eta bezeroak karratua. Hortaz, tendentzia moldatu behar izaten dut. Argazkikoaren berdina ez zaiela geratuko esaten diet, eta 'egin ahal duzuna' erantzuten didate. Jendeak, normalean, ulertzen du".

kumeei ez die graziarik egiten gizonezkoek buruan erruloekin, tindagaiarekin... ikustea.

**Txutxu-mutxu asko egoten dira?** Garai batean, bai, baina uste dut hori asko aldatu dela. Bezeroek ez zuten txandarik hartzen eta bertan pasatzen zuten eguna. Gaur egun, hitzordua hartzen da eta pertsonalagoa da; ez da hainbeste berba egiten. Lanean ari garen bitartean, prentsa irakurtzen dute askok.

**Udazken eta neguko tendentzia?** Melena karratuak. Ile-luzeetan uhinek jarraituko dute. Kolorrean, berriz, fantasia koloreak, edo, bestela, ez da tindatzen. Ile-horriak beti daude modan.

**Orrazkera ausartak izaten dituzue ile-apaintzaileek.**

Guk ez baditugu eramaten, nork izango ditu? Euskal Herrian tendentziak erradikalagoak dira. Andaluzian ez duzu halakorik ikusiko, gehienek ile luzea baitaukate. Londresko, Parisko eta Italiako ile-apaindegiak desberdinak dira teknikoki. Ingalaterrakoa gogorragoa da, eta gure tendentzia hori da.

**Lanaren alderik onena?**

Jendea gustura joatea hemendik. Gu ez gara estilistak bakarrik, psikologoak ere bagara. Asko gaizki sentitzen delako etortzen dira. Orduan, bezeroa energia positiboarekin kalera joango dela jakitea da ederrena.

**Zein ospetsuri aldatuko zenioke orrazkera?**

Askori. Gehienek estilistak badituzte ere, ez dute asmatzen euren tendentziarekin.

Goiena OKM  
Gidaren  
eskaintza  
osoa



goiena  
Okm  
gida

**ttap**

Irakurri, ukitu,  
ikusi, entzun.

DOAN  
Euskarazko aldizkari digitala  
zure mugikorrean

ASTE HONETAN

Ion Celestino  
Musikaria

"Iruñerrian Euskal Rock  
Erradikala hil egin da, behingoz"

